

**GAZTE JUSTIZIAKO IV. PLANA**

**I. liburukia**

**2014 – 2018**

**AURKIBIDEA**

1.	AURKEZPENA .....	6
2.	SARRERA .....	7
2.1	Gazte-justiziako sistema baten funtsezko eskakizunak .....	7
2.2	Gazteen arau-haustearen azalpen-ereduak.....	9
2.3	Gazte Justiziari buruzko Nazioarteko Araudia.....	10
2.3.1	Nazio Batuen Gutxieneko Arauak Adingabeen Justiziaren Administrazioarako (Beijingeko Arauak), 1985 .....	11
2.3.2	Haurren Eskubideei buruzko 1989ko Hitzarmena .....	12
2.3.3	Gazte Delinkuentziaren Prebentzioarako Nazio Batuen 1989ko Zuzentarauak (Riadeko Zuzentarauak) .....	14
2.3.4	Nazio Batuen Gutxieneko Arauak askatasuna kendu zaien adingabeak babesteko (Habanako Arauak), 1990.....	15
2.4	Adingabeen justiziari buruzko Europako Araudia .....	15
2.5	Gazte Justiziari buruzko Estatuko Araudia .....	16
2.5.1	5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena (AZELO).....	16
2.5.2	1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.....	21
2.6	Autonomietako araudia .....	22
2.6.1	3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzekoa eta Babestekoa .....	22
2.6.2	163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, Erakunde laguntzaileak baimentzeari, homologatzeari, ikuskatzeari eta erregistratzeari buruzkoa, EAEko adingabeko arau-hausteei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-jarduerari dagokionez.....	23
2.6.3	80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko hezkuntza-zentroi buruzkoa.....	23
3	EGOERAREN EBALUAZIOA ETA DIAGNOSIA: 2008-2012 GAZTE JUSTIZIAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA .....	25
3.1	Sarrera .....	25
3.2	Helburuak eta iturriak .....	25
3.3	Kanpo-iturrien datu orokorrak .....	27
3.3.1	Estatuko Fiskaltza Nagusia .....	27

3.3.2	Estatistikako Institutu Nazionala.....	28
3.3.3	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia .....	30
3.4	Justizia Zuzendaritzako datu orokorrak .....	30
3.4.1	Talde psikosozialen jardura: Adituen txostenak eta bitartekaritzako, kontziliazioko eta konponketako prozesuak adingabeen jurisdikzioan.....	30
3.4.2	Neurrien bilakaera:.....	32
3.4.3	Adingabe arau-hausleen profila .....	37
3.4.4	Berrerortzearen ebaluazioa .....	39
3.5	Neurriak gauzatzeko baliabideak .....	48
3.5.1	Egoitza-zerbitzuak .....	49
3.5.2	Ingurune irekiko zerbitzuak.....	51
3.5.3	Baliabide ekonomikoak .....	51
3.6	Helburuak, sailaren arabera .....	55
3.6.1	Herrizaingo Saila.....	55
3.6.2	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila .....	56
3.6.3	Osasun Saila.....	56
3.6.4	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila .....	57
3.6.5	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.....	57
3.7	Ondorioak.....	59
3.7.1	Kanpoko iturriak.....	59
3.7.2	Justizia Zuzendaritzaren ondorioak: talde psikosozialen bitartekaritza-prozesuei eta aholkularitza-jarduketei dagokienez.....	60
3.7.3	Neurriei buruzko ondorio orokorrak.....	60
3.7.4	Kautela-neurriei buruzko ondorioak .....	60
3.7.5	Neurri irmoei buruzko ondorioak.....	61
3.7.6	Talde espezifiko nabarmenenei buruzko ondorioak.....	62
3.7.7	Kriminologiaren Euskal Institutuaren (Euskal Herriko Unibertsitatea) ondorioak 64	
3.8	Gazte-justiziako joerak.....	65
4.	JUSTIZIA ZUZENDARITZAKO JUSTIZIA ZERBITZUAREN ESKARIARI BURUZKO ANALISIA (2013-2014).....	67
4.1	Justizia Zuzendaritzako Justizia Zerbitzuaren datu orokorrak (2013-2014).....	67
4.1.1	Neurri irmoak eta kautelazkoak: Alderdi orokorrak .....	67
4.1.2	Kautela-neurriak.....	69

4.1.3	Neurri irmoak .....	71
4.2	Neurriak gauzatzeko baliabideak: Egoitza-zerbitzuak eta ingurune irekiko zerbitzuak (2013-2014) .....	79
4.2.1	Egoitza-zerbitzuak .....	80
4.2.2	Ingurune irekiko zerbitzuak.....	82
4.3	Gazte-justiziako neurrien eskariaren ondorioak (2013-2014). .....	83
5.	INKARDINAZIOA JAURLARITZAREN PLANGINTZA OROKORREAN .....	85
6.	GAZTEEN JUSTIZIAREN PRINTZIPIOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN.....	88
6.1	Zigor-erantzukizuneko eredia: izaera zehatzaile-hezitzailea .....	92
6.2	Sistema berme-emailea: eskubide guztiak zorrotz baino zorrotzago errespetatzea..	94
6.3	Erantzukizuna hartzea .....	95
6.4	Behar den gutxieneko esku-hartzea.....	96
6.5	Goi-mailako interesa: banakako egokitzapena .....	98
6.6	Erkidegoaren ikuspegiaren normalizazioa .....	99
7.	ILDO ESTRATEGIKOAK .....	101
7.1	Prebentzioa .....	101
7.2	Sailartekotasuna eta erakundeen arteko lankidetzak .....	102
7.3	Esku-hartzearen kalitatea: ebidentzian oinarritutako tratamendu-programak .....	103
7.4	Erantzukizun publikoa eta kudeaketa-eredu mistoa .....	104
8.	HELBURU OROKORRAK .....	106
9.	HELBURUAK SAILEN ARABERA (helburuak, ekintzak, aldia eta adierazleak) .....	108
9.1	Segurtasun Saila .....	108
9.1.1	Helburuak .....	108
9.1.2	Ekintzak, aldia eta adierazleak .....	108
9.2	Osasun Saila.....	109
9.2.1	Helburuak .....	109
9.2.2.	Ekintzak, aldia eta adierazleak .....	109
9.3	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila .....	111
9.3.1	Helburuak .....	111
9.3.2	Ekintzak, aldia eta adierazleak .....	112
9.4	Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila (Lanbide).....	112
9.4.1	Helburuak .....	112
9.4.2	Ekintzak, aldia eta adierazleak .....	113

---

9.5	Herri Administrazio eta Justizia Saila .....	113
9.5.1	Helburuak .....	113
9.5.2	Justizia Administrazio Zuzendaritza .....	115
9.5.3	Justizia Zuzendaritza.....	117
10.	KUDEAKETA EREDUA .....	121
10.1	Zuzendaritza koordinatzailea: Justizia Zuzendaritza .....	121
10.2	IV. Plana ebaluatzea .....	122
11.	AURREIKUSPEN EKONOMIKO OROKORRAK 2014-2018.....	125
11.1	Talde psikosozialen gastuen aurreikuspena.....	125
11.2	Ingurune irekiko programa eta zerbitzuetako gastuen aurreikuspena.....	127
11.3	Gazte Justiziako Hezkuntza Zentroetako gastuen aurreikuspena.....	128
11.4	Gazte Justiziako hezkuntza-zentroetako segurtasun-gastuen aurreikuspena.....	131
12.	GIZA BALIABIDEAK ZENTROAK ETA ZERBITZUAK .....	132
12.1	Ingurune irekiko zerbitzuak/programak: Profesionalak.....	132
13.	Taulen aurkibidea.....	134
14.	Grafikoen aurkibidea.....	136

## **1. AURKEZPENA**

## 2. SARRERA

### 2.1 Gazte-justiziako sistema baten funtsezko eskakizunak

Adingabeen justizia-administrazioa, nolabait, sistema judizial guztiei dagokie, mundu osoan. Gizarteak legearen nagusitasunaren garrantzia sustatzeko dituen interesak islatzen ditu, eta helburu du legea ez betetzeagatik salatuak izan diren adingabeak berriro integratzea. Gazte-justiziak ez du bakarrik zigor-legean eragina; alderdi ugari hartzen ditu, besteak beste, delitua prebenitzea, legea aplikatzea, adingabeen epaileek ezartzen dituzten hezkuntza-neurriak hartzea eta errehabilitatzea. Herrialde bateko politika sozialaren gairik garrantzitsuenetakoa da; neska-mutil ugariengan du eragina. Botere judizialak pertsona horiek tratatzeko duen modua funtsezko faktorea da, beren familietan, eskolan eta erkidegoan berriro nola integratuko diren zehazten duena.

Gazte-justiziari buruzko nazioarteko arauen aplikazio-eremuak, 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren eraginpean<sup>1</sup>, errealitate horiek islatzen ditu. Hitzarmenaren xedapen gehienak zuzenean daude gazte-justiziarekin lotuta. Eskubideekiko errespetuak –besteak beste, hezkuntzarako, osasunerako, abusuaren eta esplotazioaren aurkako babeserako, informazio egokirako, moralaren gaineko maila egokirako... eskubideak– laguntzen du saihesten neska-mutilek delitu-ekintzetan parte hartzea, eta ezinbestekoa da legearekin gatazkan sartu diren adingabeen tratamendurako.

Gai horren gainean egin den ikerketaren arabera, nabarmena da erakundetzea prozesu oso mingarria dela nerabe batentzat; izan ere, bere sozializazioaren aurka doa. Beste arrazonamendu komun bat da askatasuna kentzea ia inoiz ez dela neurri

---

<sup>1</sup> Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena haurtzaroaren eskubideak jasotzen dituen nazioarteko tratatua da, eta umeak eragile sozial gisa eta beren eskubideen titular aktibo gisa aitortzen dituen lehen tresna loteslea da. Testua Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsi zuen, 1989ko azaroaren 20an, eta 1990eko irailaren 2an jarri zen indarrean.

eraginkorra errehabilitaziorako, berrintegraziorako eta delituak berriro egitea prebenitzeko. Zorionez, gure herrialdean ez da hori gertatzen, baina adingabe askori, munduko beste herrialde askotan, sarritan, askatasuna kentzen zaie delitu arinengatik, indarkeria-zantzurik ez dagoenean, bai eta deliturik egon ez denean ere.

Herrialde askotako justizia formalaren sisteman, neurri alternatiboak, besteak beste, gizartearentzako lanak, beharrezkoa ez den zigorra eta adingabearen jokabidearen estigmatizazioa eragotziz dihardutenak, ez dira existitzen edo ez daude eskuragarri gazte-justiziako funtzionario arduradunentzat. Nahiz eta hezkuntza-zentroetako baldintzak hobetzeko ahalegin oro positiboa den, are nabarmenagoa da neska-mutilak ardatz dituen eta beren eskubideetan oinarritzen den gazte-justiziaren sistema bat ezartzeko beharra. Alegia, askatasuna kentzeko neurria behin eta berriro baliatzeak dakartzan ondorio suntsitzaileak saihesten dituen eta, horren orde, segurtasun publikoa bermatzeko eta adingabeek egindako arau-hausteei beren eskubide eta interesak errespetatuz erantzuteko neurri alternatiboetarako bide ematen duen sistema bat.

Herrialde bateko gazte-justiziaren sistemak arrazionala eta gizatiarra izan behar du, hau da, eraginkorra izan behar du helburuak betetzeko, giza duintasunarekin probetxuzkoa eta errespetuzkoa, eta legezko sistemei erreferentzia egin behar die (1959ko Haurren Eskubideei buruzko Adierazpena<sup>2</sup>, 1989ko Haurren Eskubideen Hitzarmena, 1985eko Beijingeko Arauak<sup>3</sup>, 1990eko Riadeko Zuzentarauak<sup>4</sup> etab.), eta, zehazki, eta gure kasuan, zehazki, gainera, 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa,

---

<sup>2</sup> Haurren Eskubideei buruzko Adierazpena nazioarteko tratatua da; 10 printzipio jasotzen ditu, 1924ko Haurren Eskubideei buruzko Genevako Adierazpenean oinarrituta, 1959ko azaroaren 20an onetsitakoan, aho batez orduan Nazio Batuen Erakundea osatzen zuten 78 estatu kideek adostuta.

<sup>3</sup> Nazio Batuen Adingabeen Justiziaren Administrazioarako Gutxieneko Arauak (Beijingeko Arauak), Batzar Nagusiek 1985eko azaroaren 29ko 40/33 Ebazpenaren bidez onetsia.

<sup>4</sup> Gazte Delinkuentzia Prebenitzeko Nazio Batuen Zuzentarauak (Riadeko Zuzentarauak), Batzar Nagusiek 1990eko abenduaren 14ko 45/112 Ebazpenean hartuta eta aldarrikatuta.



Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena<sup>5</sup>, 3/2005 Euskal Legea, otsailaren 18koa, Haurtzaroari eta Nerabezaroari Arreta emateari eta Babesteari buruzkoa<sup>6</sup> etab. Gainera, adingabeak gizatasunez tratatu behar dira eta, hori horrela, debekatuta dago 18 urtetik beherako adingabe guztientzat heriotza-zigorra, tortura eta biziarteko kartzelako barneratzea. Barneratzea dela eta, beste batzuetan esan izan dugun bezala, oso modu murriztailean ezarri beharreko neurria izan behar du eta, baliatuz gero, ahalik eta laburrena izatea denboran eta adingabe den aldetik dituen beharrak kontuan hartuko dituena. Azken batean, sistema judiziala adingabeen inguruan aritu behar da; adingabe horiek funtsezko eskubide eta askatasunen babesa izango dute, eta ezarriko diren neurri guztiek adingabearen interes nagusiaren arabera izan beharko dute.

Azkenik, komeni da aipatzea gazte-justiziaren sisteman espezializazioak eta diziplina anitzeko ikuspegiak duten garrantzia. Gazteen sistema judizialak ahalegina egin behar du eragile guztien espezializazioa suspertzeko, eta sistema judizial desberdina izan behar du, adingabeak beren adinera eta heldutasun-mailara egokituta tratatzen dituena.

## 2.2 Gazteen arau-haustearen azalpen-ereduak

Batzuk eta askotarikoak dira diziplina honen jatorritik gaur egun arte delitu-jarreraren "nolakotasuna" eta/edo "zergatia" azaltzeko ahalegina egin duten teoria kriminologikoak. Era berean, psikologiatik ere, giza-jokabidea aztertzen duen zientzia den aldetik, delinkuentziaren inguruko azalpen-ereduak garatu dira. Gainera, bi eragile

---

<sup>5</sup> 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena (7/2000 eta 9 /2000 Legeak, abenduaren 22koak, eta 15/2003 Legeak, azaroaren 25ekoak, aldatuta), 2000ko urtarrilaren 13ko 11 zenbakiko BOEn argitaratua, aplikatzekoa da 14 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako pertsonen, zigor-erantzukizuna eskatzeko, Zigor Kodean edo zigor-lege berezietan delitu edo huts gisa tipifikatutako gertakarien kasuan.

<sup>6</sup> 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurtzaroari eta Nerabezaroari Arreta eta Babesa emateari buruzkoa, 2005eko martxoaren 30eko EHAAn eta 2011ko azaroaren 14ko 274 zenbakiko BOEn argitaratua.

horiekin batera, jokabide desbideratuaren aldagai argitzaileei egileek ematen dieten garrantziari dagokionez dauden oinarritzko ikuskerena ere aipatu behar da<sup>7</sup>. Hori dela eta, teoriak gehien erabiltzen duten sailkapen-irizpideetako bat da delituaren azalpen mailetan oinarritzen dena.

Garridok (1987)<sup>8</sup>, ildo horretatik, funtsezko hiru azalpen mailaren inguruan hitz egiten du: indibiduala (teoria biologikoak eta psikologikoak), mikrosoziologikoa (teoria soziopsikologikoak) eta makropsikologikoa (teoria sozialak).

Baina, oraintsuago, Redondok (2008)<sup>9</sup> eredu berria proposatu du delinkuentzia azaltzeko, Delituaren Arrisku Hirukoitzaren Eredua izenekoa, eredu bera garatzeko oinarri bezala prebentziorako ardatz gisa hartzen duen laguntza sozialari buruzko analisia, delituaren egoerak eta, zehatzago, arrisku-eta babes-faktoreei buruzko ikerketa kriminologikoa harturik, etengabeko eta mailaz mailako arrisku-dimentsio gisa birkontzeptualizatuta. Arrisku-dimentsio guztiak hiru kategoriatan edo arrisku-iturritan taldekatzen dira: a) pertsonalak, b) jasotako "laguntza prosozial"ari dagozkionak eta c) delitu-aukerei dagozkionak. Uste da hiru arrisku-kategoria horiei dagozkien elementuen subjektu partikular bakoitzean konbinazio bakarrak azkartu egiten dituela prozesu kriminogeniko bereziak (delinkuentziaren teoria klasikoek adierazten duten bezala) eta horiek "motibazio antisoziala" eta "jokabide antisozialaren arriskua" baldintzatzen dutela. Hori oinarri hartuta, eredu horrek eraginkor bihurtzen du jokabide antisozialaren balioespena eta delinkuentziarako arrisku sozialarena.

### 2.3 Gazte Justiziari buruzko Nazioarteko Araudia

Aurretik esan dugun bezala, adingabeen justiziari buruzko nazioarteko dokumentu ugari dago. Zehazki, Nazio Batuek hainbat adierazpen, ebazpen eta abar egin dituzte, delitu-egitateak gauzatzen dituzten neska-mutilei buruzkoak, besteak beste: Bejingeko Arauak, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, Riaden Zuzentarauak eta Habanako Arauak.

<sup>7</sup> Mirón, L. eta Otero-López, J.M. (2005). *Jóvenes delincuentes*. Bartzelona: Ariel.

<sup>8</sup> Garrido, V. (1987). *Delincuencia Juvenil*. Madril: Alhambra.

<sup>9</sup> Redondo, S. (2008) *Manual para el tratamiento psicológico de los delincuentes*. Madril: Pirámide.

### 2.3.1 Nazio Batuen Gutxieneko Arauak Adingabeen Justiziaren Administrazioarako (Beijingeko Arauak), 1985

Nazio Batuen Gutxieneko Arauak Adingabeen Justiziaren Administrazioarako (Beijingeko Arauak) Biltzar Nagusiek hartu zituzten 1985eko azaroaren 29ko 40/43 Ebazpenaren bidez, Zazpigarren Kongresuak hala gomendatuta. Aurretik, Seigarren Kongresuak, Nazio Batuetako Krimenaren Prebentzioarako eta Kontrolerako Batzordeak, 4. Ebazpenean, arau horiek garatzen lagundu zuen, eskualdeko eta eskualdeen arteko Nazio Batuen erakundeekin lankidetzan. Arau horiek sakonago landu zituen 1984an Beijingen, Txinan, "Gazteria, Krimena eta Justizia"ri buruzko Zazpigarren Kongresurako eskualdeen arteko prestatze-bilerak.

Arauek nazio mailako esparruak eta legezko egiturak dituzte kontuan, gazte-justiziaren helburuak eta izaera islatzen dituzte eta printzipio egokiak eta gazteentzako justizia-administrazioarako praktikak azaltzen dituzte. Nazioartean onartutako gutxieneko baldintzak erakusten dituzte, legearekin gatazkan dauden gazteak tratatzeko. Beijingeko Arauen arabera, gazte-justiziaren helburuak dira gaztearen ongizatea sustatzea eta gazte delinkuenteentzako edozein erantzun beti gaztearen eta delituaren egoerekin proportzioan egongo dela ziurtatzea. Arauetan, gazte-justiziaren faseak betetzen dituzten neurri bereziak aurreikusten dira. Era berean, erakunde baten sartzea azken baliabide gisa erabiltzeko azpimarratzen dute, eta ahalik eta eperik laburrenerako.

Arau horien arabera, adingabea da, dagokion sistema juridikoaren arabera, heldu baten bestelako zigorra jaso dezakeen umea edo gaztea. Delitua da legez, dagokion sistema juridikoaren arabera, zigortzen den edozein jokabide (ekintza edo ez-egitea), eta adingabe delinkuentea da delitua egin izanaren egozpena jaso duen edo delitu bat egin izanagatik errudunaren egozpena jaso duen edozein ume edo gazte.

Zigor-arloko adin-nagusitasuna zehaztea dela eta, adingabeei dagokienez, zigor-arloko adin-nagusitasunaren kontzeptua onartzen duten sistema juridikoetan, hasiera ez da oso adin goiztiarrean ezarri behar, kontuan hartuta heldutasun emozionalarekin,

mentalarekin eta intelektualarekin batera datozen gertakariak. Zigor-erantzukizunaren ondorioetarako gutxieneko adina aldatu egiten da, nabarmen, alderdi historiko eta kulturalen arabera. Ikuspegi modernoa da aztertzea ea umeek zigor-erantzukizuneko elementu moralekin eta psikologikoekin duinak diren; alegia, umea, bereizketa eta ulermen indibidualen arabera, funtsean antisoziala den jokabide baten arduradun hartu ahal den. Zigor-arloko adin-nagusitasuna adin goiztiarregian ezartzen bada edo gutxieneko adinik ezartzen ez bada, erantzukizunaren kontzeptuak zentzua galduko du. Oro har, harreman estua dago delitu- edo krimen-jokabidearen ondoriozko erantzukizunaren kontzeptuaren eta beste eskubide eta erantzukizun sozial batzuen artean (besteak beste, egoera zibila, adin-nagusitasuna ondorio zibiletarako etab.). Ondorioz, ahalegina egin behar da nazioarte mailan aplikatzekoa den arrazoizko gutxieneko adina hitzartzeko.

### 2.3.2 Haurren Eskubideei buruzko 1989ko Hitzarmena

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena 1989ko azaroaren 20an hartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Nazioarteko tratatu honek umeen giza eskubideak aitortzen ditu, 18 urtetik beherako pertsona gisa definituta. 41 artikulutan ezartzen du alderdi-estatuak ziurtatu behar dutela ume guztiak –bereizketarik gabe– honako alderdi hauek dauzkatela: babes eta asistentziarako neurri batzuk; zenbait zerbitzu, besteak beste, hezkuntza eta osasuna; beren pertsonalitateak, gaitasunak eta talentuak erabat garatzeko aukera; poztasuneko, maitasuneko eta ulermeneko giroan hazten direla eta beren eskubideak baliatu ahal izateko eta prozesuan parte hartu ahal izateko informazioa eskuragarri dutela eta aktiboki jasotzen dutela.

Hitzarmena erreferentzia-puntua da, haurren giza eskubideen inguruko arauak betetzean lortutako bilakaerak aztertzeko eta emaitzak erkatzeko. Hitzarmenaren arauak aplikatzea onartzean, gobernuek beren legeak, politikak eta praktikak Hitzarmenaren arauekin bateratzeko lan egin behar dute; arau horiek umeentzako errealitate bilakatzeko eta eskubide horiek baliatzea oztopatuko edo zapalduko duen neurririk ez hartzeko.

Hitzarmena berresten duten gobernuek txostenak aurkeztu behar dizkiote Haurren Eskubideei buruzko Batzordeari. Herrialde sinatzaileetako umeen eskubideen egoerari buruzko txostenak bi urteko epean aurkeztu behar dira, berrespenaren ondoren, eta bost urterik behin, ordutik aurrera.

Batzordeak Genevan du egoitza, eta zenbait herrialde eta sistema juridikotako 10 kidek osatu behar dute, "osotasun moral handia" eta haurren eskubideen esferetan gaitasuna aitortua dutenek. Batzordeko kideak Hitzarmena berretsi duten gobernuek aukeratzen dituzte, baina nork bere izenean jarduten du eta ez bere herrialdeen izenean.

Garrantzitsua da gogoraraztea Hitzarmena, batez ere, gobernuek haurren eskubideak bermatzeko egin behar dutena dutela ardatz, eta ez hainbeste gizabanakoek egin behar dutena. Haurren Eskubideei buruzko Batzordeak gobernuek Hitzarmenean umeen eta familien ongizaterako ezarritako arauak ezartzeko eta betetzeko duten moduz arduratzen da. Batzordeak ez du ikuskatzen guraso indibidualen jokabide pertsonala. Ez ditu jasotzen, bestalde, herritarren keak, umeenak barne, guraso indibidualen aurka.

Adingabe arau-hausleei dagokienez, Hitzarmenaren 40. artikulua dio legea hautsi duen ume oro tratatu behar dela duintasunaren eta balioaren gainean duen zentzuaren sustapenarekin bat, umeengan hirugarrenen funtsezko giza eskubideekiko eta askatasunekiko errespetua indartzeko. Kontuan izan behar da umearen adina eta garrantzitsua da umearen gizarteratzea sustatzea. Erruduntasuna frogatu ezean, inozentea izango da, bere aurka dauden karguen berri emango zaio eta asistentzia juridikoa edo asistentzia egokia izango ditu, ez da derrigortuta egongo lekukotza ematera edo bere burua errudun aitortzera, agintaritzaren edo goi-mailako organo judizial eskudun independente eta inpartzial baten esku jarriko da. Hizkuntza ulertu ezean, doan izango du interpretearen zerbitzua eta bere bizitza pribatua errespetatuko da. Alderdi-estatuek neurri egokiak hartuko dituzte umeentzako legeen, prozeduren, agintaritzen eta erakunde berezien ezarpena sustatzeko: gutxieneko adina ezartzea,

ume horiek prozedura judizialetara jo gabe tratatzeko neurriak hartzea, erakundeetan barneratzearen alternatibetarako neurriak eta aukerak izatea.

### 2.3.3 Gazte Delinkuentziaren Prebentziorako Nazio Batuen 1989ko Zuzentarauak (Riadeko Zuzentarauak)

Prestatze-jarduera batzuen ondoren, Zortzigarren Kongresuak Nazio Batuen Batzar Nagusiari gomendatu zion gazte-delinkuentziaren prebentziorako Nazio Batuen zuzentarauak hartzeko. Batzar Nagusiak zuzentarau horiek 1990eko abenduaren 14ko 45/112 ebazpenean hartu zituen.

Laburbilduz, zuzentarauetan jasotzen diren puntu hauek nabarmenduko genituzke:

- Gazte-delinkuentziaren prebentzioa funtsezkoa da gizarteko delituaren prebentzioan. Gazteak legezko eta sozialki baliagarri diren jardueretan aritu eta gizarterantz bideratzen badira, eta bizitza irizpide humanistez aztertzen badute, krimenarekin zerikusirik ez duten jarrerak berengana ditzakete.
- Gazte-delinkuentzia modu eraginkorrean prebenitu ahal izateko, gizarte osoak ahalegindu behar du nerabeen garapen orekatua lortzen eta haien nortasuna haurtzarotik errespetatu eta zaintzen.
- Honako Arau hauen interpretazio-xedetarako, arreta haurrarengan jarri behar da. Gazteek eginkizun eraginkor eta parte-hartzailea bete behar dute gizartean, eta ez da pentsatu behar sozializazio- edo kontrol-objektu hutsak direnik.
- Honako Arau hauek aplikatzerakoan eta herrialdeetako antolamendu juridikoen arabera, prebentzio-programek gazteen ongizatean jarri behar dute beren arreta haurtzaroko lehen urteetatik.

### 2.3.4 Nazio Batuen Gutxieneko Arauak askatasuna kendu zaien adingabeak babesteko (Habanako Arauak), 1990

Batzar Nagusiak 1990eko abenduaren 14ko 45/113 ebazpenean hartu zituen arau horiek; horien helburua izan da askatasunaz gabetu diren adingabeak babesteko Nazio Batuek onetsitako gutxieneko arauak ezartzea, funtsezko giza eskubideekin eta askatasunekin bateragarriak, mota guztietako atxiloketaren ondorio kaltegarriei aurre egiteko eta gizarteratzea sustatzeko. Arauak erreferentziazko eredu praktiko izateko eta adingabeen justizia-sistemaren administrazioan parte hartzen duten profesionalentzat eragingarriak izateko eta orientazioa emateko hartu dira.

## 2.4 Adingabeen justiziari buruzko Europako Araudia

Europar, ugari dira gazte-justiziarekin lotutako lanak, programak, ekintzak, lanak, ebazpenak, irizpenak eta abar.

Europako Batzordeak –gazte-justiziaren arloan oso organismo dinamikoa– ebazpen (1978ra arte erabili izan den izendapena) eta gomendio (1979tik aurrera erabilitakoa) ugari egin ditu. Nabarmenenak honako hauek izan dira:

- 1966ko apirilaren 30eko (66) 25 Ebazpena, 21 urtetik beherako gazte delinkuenteen epe laburreko tratamenduari buruzkoa.
- 1978ko azaroaren 29ko (78) 62 Ebazpena, gazteen delinkuentziari eta gizarte-eraldaketari buruzkoa.
- Irailaren 17ko (87) 20 Gomendia, gazteen delinkuentziaren aurreko gizarte-erreakzioei buruzkoa.
- Apirilaren 18ko (88) 6 Gomendia, familia emigranteetako gazteen delitu-jokabidearen aurreko gizarte-erreakzioei buruzkoa.
- 2000ko urriaren 6ko (2000) 20 Gomendia, kriminaltasuna saihesteko esku-hartze psikosozial goiztiarraren zereginari buruzkoa.

- 2003ko irailaren 24ko (2003) 20 Gomendia, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordearena, gazteen delinkuentzia tratatzeko modu berriei eta hazte-justiziaren zereginari buruzkoa.
- 2008ko azaroaren 5eko (2008) 11 MB/Gom, zehapenak edo neurriak hartzea ekarriko dituzten adingabe arau-hausleentzako arau europarrak.

Europar Batasuna, urte askotan zehar integrazio ekonomikoan sartuta eta, ondorioz, izaera horretako arazoetatik urrun, ez dago gazteen delinkuentziaren fenomenora hain ohituta, beste nazioarteko erakunde batzuk bezala, besteak beste, Nazio Batuak edo Europako Kontseilua bezala, oraintsu ikusi den bezala. Hala ere, izaera politikoko lotura bilakatzean, batez ere Lisboako Tratatuaren (2007) ondoren, Europar Batasuna estatu kide guztientzat adingabe arau-hausle guztiakin esku hartzeko eredu bat diseinatzeko prozesuan dago; eredu horretan, dagoen arazo nagusietako bat nabarmentzen da, alegia, homogeneotasunik eza adingabe arau-hausleen gutxieneko zigor-adinean.

Nolanahi ere, dauzkagun tresnen artean Haurren Eskubideen Europako Karta (1992), Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen Irizpena (2006) eta Europako Parlamentuak gazteen delinkuentziari, emakume, familia eta gizartearen zereginari buruz emandako Ebazpena (2007) nabarmendu behar dira.

## **2.5 Gazte Justiziari buruzko Estatuko Araudia**

### **2.5.1 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Zigor Erantzukizuna arautzen duena (AZELO)**

Gure herrialdean adingabe batek, 14 eta 18 urte bitartean dituen adingabe batek, Zigor Kodean edo lege berezietan delitu edo huts gisa tipifikatuta dagoen egitatea eginez gero, 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Zigor



Erantzukizuna arautzen duena, aplikatzen zaio; lege hori 2000ko urtarrilaren 12an eman zen, eta hurrengo urteko urtarrilaren 13an jarri zen indarrean.

5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, printzipio orokor batzuei jarraiki egin zen:

- ✓ Adingabe arau-hausleei aplikatzekoak diren neurrien eta prozeduraren izaera formalki penala eta materialki zehatzaile eta hezitzailea.
- ✓ Eskubide konstituzionalen eta adingabearen intereseko eskaera berezien errespetutik ondorioztatzen diren berme guztien esanbidezko errekonozimendua.
- ✓ Adingabe arau-hausleen kategoriako prozesuko eta zehapeneko ondorioetarako tarteen bereizketa.
- ✓ Malgutasuna kasu zehatzaren egoerek gomendatutako neurriak hartzeko eta gauzatzeko.
- ✓ Adingabeen erreformarekin eta babesarekin lotutako erakunde autonomikoen eskumena, epaian ezarritako neurriak gauzatzeko.
- ✓ Gauzatze horren kontrol judiziala.

Adingabeen zigor-erantzukizunak, helduenaren aurrean, izaera hezitzailea du, funtsean, eta prozeduraren eta hartzen diren neurrien elementu zehatzaile gisa nagusitzen da, "adingabearen interes nagusia".

AZELOren 7. artikuluari jarraiki, aplikazioa Eusko Jaurlaritzaren Justizia Zuzendaritzaren eskumenekoa den neurrien kasuan, erreformaren mende dagoen adingabe subjektuari aplika dakizkiokeen neurriak honako hauek dira:

1. Barneratzea: neurri honek arriskugarritasun handiagoari erantzuten dio, egitateen izaera larriak erakusten duen bezala, kasurik nabarmenetan indarkeria, larderia edo pertsonentzako arriskua ezaugarri direla. Neurriaren helburu nagusia da hezkuntza-baldintza egokiak ematen dituen giroa izatea, adingabeak bere jokabide antisoziala ekarri duten xedapen edo urritasunak berriro orientatu ahal izan ditzan,

baldin eta, horretarako, behintzat aldi baterako, arau-hauslea bere askatasuna fisikoki murrizten duen erregimenean dagoela ziurtatu behar bada.

a) Erregimen itxiko barneratzearen helburua da adingabeak gizarte-gaitasunerako nahiko baliabide eskuratzea, erkidegoan jokabide arduratsua eduki ahal izateko, kontrol-kudeaketaren bidez giro murriztailean eta pixkanaka autonomoan.

b) Erregimen erdi-irekiko barneratzean, hezkuntza-proiektua dago; proiektu horretan, hasieratik, funtsezko helburuak erkidegoko beste pertsona eta erakunde batzuekin harremanetan egiten dira, eta adingabeak egoitza zentroan du, horren programa eta barne-erregimenean.

c) Erregimen irekiko barneratzean, adingabeak hezkuntza-proiektuko jarduera guztiak gauzatuko ditu inguruneko zerbitzu normalizatuetan, zentroan biziko dela, ohiko bizileku gisa.

Gogorarazi beharra dago, egile batzuentzat, bigarren mailan geratzen den ihes egiteko arriskua datu nagusia izan behar dela, egitatearen arrazoizko zantzuekin batera, inputatutako subjektuaren askatasuna hain zorrotz murrizten duen neurria aukeratzean (García-Rostán, 2007).

2. Barneratze terapeutikoa aurreikusten da adingabeek, alkoholarekiko edo drogekiko duten mendekotasunagatik edo psikismoan duten disfuntzio esanguratsuengatik, testuinguru egituratua behar dutenean, programazio terapeutikoa egiteko, alde batetik, adingabearengan edo bere ingurunean tratamendu ambulatoriorako baldintza egokiak ematen ez direlako eta, beste alde batetik, adingabeari erregimen itxiko barneratzea aplikatzeko eskatzen duten arrisku-baldintzak daudelako.

3. Tratamendu ambulatorioa da mendekotasun-prozesuak edo psikismoaren disfuntzio esanguratsuak gainditzen laguntzeko programa terapeutikoen onurak jasotzeko bizi-baldintza egokiak dituzten adingabeei ezartzen zaien neurria.

Alkoholarekiko edo drogekiko mendekotasuna duten eta erkidegoan trata daitezkeen adingabeentzat aurreikusita, tratamendu ambulatorioan asistentzia mediko eta psikologikoko mota desberdinak konbina daitezke. Oso egokia da barneratzerik gabe arretoa jaso dezaketen desoreka psikologikoaren edo psikismoaren nahasmenduaren kasuetarako. Gizarte- eta hezkuntza-zereginarekin dagoen bereizketa argiena da horren bidez gaitasuna lortu nahi dela, ikaskuntza, metodologia bat erabiliz, ez hain klinikoa, baizik eta psikologia eta hezkuntzara bideratuagoa.

4. Eguneko zentro batera joatean, adingabeak erkidegoan erabat integratuta dagoen zentro batera joaten dira; bertan, beren gizarte-gaitasunari laguntza emateko hezkuntza-jarduerak egiten dira. Neurri horrek egunaren zati handi batean ingurune egituratua eskaintzen die; ingurune horretan, gizarte-hezkuntzako zenbait jarduera egiten dira, familia-giroko gabeziak konpentsatzeko. Eguneko zentroan adingabearen gizarte-hezkuntzako proiektuaren mamia gauzatzen da; horixe da, hain zuzen ere, eguneko zentroaren ezaugarria. Dena den, adingabeak beste toki batzuetan ere erabil ditzake aisialdiko nahiz kulturako beste baliabide batzuk.

5. Asteburuko egonaldia da adingabe batek ostiral arratsalde edo gauetik igande gauera arte etxean geratzeko beharra ezartzen duen neurriak zehazten duen adierazpena, epaileak esleitutako gizarte- eta hezkuntza-zereginak egiten dituen denbora salbu. Asteburuetan bandalismo-ekintzak edo eraso arinak egiten dituzten adingabeentzako egokia da.

6. Ezarritako neurria zaintzapeko askatasuna denean, adingabea zaintza eta jagotzapean dago epaian ezarritako denboran zehar. Langileria espezializatuak burutzen ditu zaintza eta jagotza horiek, adingabeak trebetasun, gaitasun eta jarrera egokiak beregana ditzan, gizabanako moduan eta gizartearen barruan bere nortasuna behar bezala gara dadin. Zaintzapeko askatasunak dirauen bitartean, adingabeak bete beharko ditu, orobat, epaileak AZELOrekin bat etorritik ezar diezazkiokeen betebeharrak eta debekuak.

7. Pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bizitzea adingabeei gizarteratze-giro positiboa emateko neurria da; giro hori lortzen da bizikidetzaren bidez, epaileak zehaztutako epe batez, pertsona batekin, berea ez den familia batekin edo berengan gizarte- eta afektu-urratsak garatzeari dagokionez familiaren funtzioa betetzeko bere burua eskaintzen duen hezkuntza-talde batekin.

9. Gizartearentzako lanen neurri horren bidez aurretik finkatutako saio-kopuruan egiten dute jarduera bat, dela gizarte orokorraren, dela edozein arrazoiengatik urritasun-egoeran dauden pertsonen onuragarri. Ahal dela, dena delako neurriari dagokion jardueraren izaera adingabeak gauzatutako egitateek kaltetutako ondasun juridikoekin lotura izan dadin saiatuko da. Neurri hauen berezitasuna da ulertaraztea bere jokabidearen ondorioz talde edo pertsona batzuek bidegabeki ondorio kaltegarriak jasan dituztela. Subjektuari ulertarazi nahi zaio oker jokatu duela, gizartearen gaitzespen formala merezi duela eta eskatzen zaizkion lanak gauzatzea bidezko erreparazio-ekintza dela.

10. Gizarte- eta hezkuntza-zereginak betetzea da adingabeak bere gizarteratzea bideratuko duten hezkuntza-educikiko jarduera bereziak egitea. Jarduera autonomia izan daiteke edo beste jarduera konplexuago baten zati izan daiteke. Neurria autonomia izanez gero, horren xedea da beharrian zehatzak asetzea, halako beharrianak igarri direlako eta beharrian horiek haren oso-osoko garapena oztopatzen dutelako. Izan daiteke erkidegoan dagoeneko badagoen programa batera joatea edo bertan parte hartzea, edo neurria gauzatzeko ardura duten profesionalen *ad hoc* sortutako batera joatea. Gizarte- eta hezkuntza-zereginen adibide gisa, honakoak aipa daitezke: zereginetarako tailer batera, konpentsazio-hezkuntzako gela batera edo enplegua prestatzeko ikastaro batera joatea; gizarte-kulturaren sustapenerako jarduera egituratuetan parte hartzea; gizarte-gaitasuna ikasteko tailerretara joatea eta abar.

AZELOn jasotako neurrien izaera aztertu ondoren ikusten den bezala, lege hau inflexio-puntua izan zen zigor-arloko arau-hausteak egiten dituzten adingabeak tratatzeko eremuan. Gazte-justiziaren eredu tradizionala alde batera utzi,

protektionistagoa edo paternalistagoa dena, eta modu esanguratsuan sustatzen da hezkuntza-erantzulearen eredia. Umearen erantzukizuna funtsezkoa da prozesuan eta egitatean, bai eta bere hezkuntza-beharrak ere; horiek biak izango dira prozesua eta aplikatu beharreko neurriak markatuko dituzten bi tesiak.

### **2.5.2 1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena**

1774/2004 Errege Dekretuak, uztailaren 30ekoak, 5/2000 Lege Organikoa honako hiru gai hauen inguruan garatzen du, zati batean: Polizia Judizialaren eta talde teknikoaren jarduna, kautela-neurrien eta behin betikoen gauzatzea eta zentroen diziiplina-erregimena.

Polizia Judizialaren eta talde teknikoaren jarduketari buruzko II. kapituluak bi kolektibo horien esku-hartzea arautzen du. 2. eta 3. artikulua Polizia Judizialaren jarduketari buruzkoak dira; Polizia Judiziala funtzionalki Fiskaltzaren eta Adingabeen epailearen mendekoa da, eta arreta berezia eskaintzen dio adingabeen atxiloketarako moduari. 4. artikulua talde teknikoaren jarduketari buruzkoa da (psikologoak, hezitzaileak, gizarte-langileak, adingabea atxilotzen dutenetik asistentzia emateko arduraduna, adingabeen epaileei asistentzia emateko arduradunak eta Fiskaltzari asistentzia emateko arduradunak eta bitartekaritzan esku hartzeko arduradunak).

"Neurriak gauzatzeko arauak" III. kapitulua hiru idatz-zatitan banatzen da: Arau komunen araubidea dela eta, neurrien eta adingabeen eskubideak gauzatzeko oinarri izan behar duten printzipioak dira. Gainera, erakunde publikoaren jarduketa arautzen du, askatasuna kentzeko eta ez kentzeko neurrien kasuetan. Adingabeak kaltea konpondu nahi duen eta biktimarekin adiskidetu nahi duen kasuetan arautzen da eta zeregin hori erakunde publikoari esleitzen zaio; erakunde publikoak izango du bitartekaritza egiteko ardura. Bestalde, askatasuna ez kentzeko neurriak gauzatzeko arau bereziak aurreikusten ditu, bai eta gauzatzeko programa indibidualizatua egiteko beharra ere. Azkenik, askatasuna kentzeko neurriak direla eta, sartzeko, adingabeari

asistentzia emateko, komunikazio-erregimenerako eta abarrerako neurriak eta izapideak arautzen ditu, barneratze-araubideei dagozkien xedapenak jasotzen ditu (23-29, 34. eta 53. art.), zentroen funtzionamenduari dagozkionak (30., 33., 35. eta 53-58 art.), adingabearen sarrerari eta askatasunari dagozkionak (31., 32., 34. eta 36. art.), adingabeari asistentzia emateari dagozkionak (37., 38. eta 39. art.), jakinarazpenei dagozkionak (40-44 art.) eta irteera eta baimenei dagozkionak (45-52 art.).

Azkenik, zentroen diziplina-araubideari buruzko IV. kapitulua zenbait gaimultzotan banatzen da: 59. eta 60. artikuluetan oinarria eta aplikazio-eremua eta diziplina-ahala arautzen dira. Diziplina-hutsak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke, eta 61. artikulutik 64ra bitartean arautzen dira. Zehapen orokorrak eta zalantzagabeak 65. artikulutik 69ra bitartean arautzen dira. Zehapenak ezartzeko prozedurak 70. artikulutik 80ra bitartean arautzen dira. Eta, azkenik, zehapenei (gauzatzea eta betetzea, murrizketa, etetea eta ezabatzea, iraungitzea eta preskripzioa) eta pizgarri edo sariei buruzko arau bereziak 81. artikulutik 85era bitartean jasotzen dira.

## 2.6 Autonomietako araudia

### 2.6.1 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzekoa eta Babestekoa

Azken urteotan, gazte-justiziarekin lotutako araudi ugari garatu da Euskal Autonomia Erkidegoan, besteak beste, 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzekoa eta Babestekoa. Legearen helburua lehenengo artikuluan zehazten da, honako puntu hauen bidez:

- ✓ Konstituzioak, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak, Haurren Eskubideei buruzko Europako Gutunak eta, oro har, antolamendu juridikoak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren edo dauden haur eta nerabeei onartzen dizkieten eskubideak gauza daitezen bermatzea.

- ✓ Haur eta nerabeen eskubideak eta ongizatea sustatzeko jarduerak eta haur eta nerabeak zaindu eta babesteko esku-hartzeak gauzatu behar diren jardun-esparrua ezartzea, familian eta gizartean haur eta nerabeen garapena bermatzeko.
- ✓ Babesgabezia-egoeran edo arrisku-egoeran dauden haur eta nerabeak babesteko arloan eta arau-hausle adingabeekin egin behar diren esku-hartzeen arloan jarduteko printzipioak zehaztea, bai eta eginkizun horretan eskumenen eta erakundeen esparrua mugatzea ere.

#### **2.6.2 163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, Erakunde laguntzaileak baimentzeari, homologatzeari, ikuskatzeari eta erregistratzeari buruzkoa, EAEko adingabeko arau-hausleei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-jarduerari dagokionez**

Bestalde, irailaren 30eko 163/2008 Dekretua onetsita, adingabe arau-hausleentzako gizarte- eta hezkuntza-arloko arreta ematen duten erakunde laguntzaileen antolaketa-arauak ezartzen dira. Zehazki, honako jarduketa hauek arautzen dira: administrazio-baimena arreta egokia bermatu ahal izateko behar diren eskakizunak eta baldintzak betetzen dituzten erakunde laguntzaileentzat; erakunde laguntzaile horien homologazioa, EAEko administrazioarekin hitzarmenak ezartzeko aurretiko baldintza gisa; erakunde laguntzaile horien ikuskaritza eta, azkenik, erakunde laguntzaile horien erregistroa.

#### **2.6.3 80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko hezkuntza-zentroi buruzkoa.**

Azkenik, 80/2009 Dekretuak, apirilaren 21ekoak, askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAEko hezkuntza-zentroi buruzkoak, helburu du hezkuntza-zentroek bete beharko dituzten eskakizun materialak, funtzionalak eta langileen arautzea, 5/2000 Legean aurreikusitako askatasunaz gabetzeko neurriak gauzatzeko. Horrela, adingabeen neurrien betearazpenaren printzipio gidariak, eskubideak eta betebeharrak jasotzen dira, bai eta hezkuntza-zentroetan lan egiten

duten profesionalen eskubide eta betebeharrak ere. Bestalde, hezkuntza-zentroetan hartutako pertsonen arreta emateko eta horiekin esku hartzeko arloak ere arautzen ditu, bai eta hezkuntza-zentroen ezaugarriak, tipologia eta antolaketa, zaintzari eta segurtasunari buruzko kontuak, baimenak, diziplina-araubidea eta kexak eta ikuskaritza ere.



### 3 EGOERAREN EBALUAZIOA ETA DIAGNOSIA: 2008-2012 GAZTE JUSTIZIAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA

#### 3.1 Sarrera

2008-2012 aldirako Gazte Justiziako Plan hau Gobernu Kontseiluak onetsi zuen 2008ko azaroaren 18an eta Gazte Justiziako III. Plana da, Eusko Jaurlaritzak 1996. urtean adingabe arau-hausleak gizarteratzeko eskuduntza hartu zuenetik.

Gazte Justiziaren III. Planaren helburua argia zen: zeharkakotasuna, ildo estrategikoetan jasotzen den bezala. Bere helburu eta ekintzek honako gai hauetan eskumena duten sailak inplikarazten ditu: justizia, enplegua, hezkuntza, osasuna, segurtasuna, gizarte-politikak, etxebizitza, prestakuntza etab. Testuinguru honetan, Herri Administrazio eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritzari prozesuaren lidergo-funtzioa esleitzen zaio; hala egin izan du plana indarrean egon den aldian.

#### 3.2 Helburuak eta iturriak

Gazte Justiziako III. Planean zehaztutako bost helburu orokorrak honako hauek izan dira:

- I. Adingabeek egindako arau-haustek prebenitu eta murriztea.
- II. Bizkor eta egoki erantzutea adingabeek egindako arau-hausteen aurrean, hala dagokionean, erantzun zigortzaile-hezitzailea emanda.
- III. Erakundeen erantzunaren kalitatea eta eraginkortasuna handitzea, eta prozeduren kalitatean eta esku-hartzearen eta ebaluazioaren metodologia zientifikoan sakontzea.
- IV. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskumenekoak diren adingabeen epaitegi guztiek emandako ebazpen judizial guztiak beteko direla bermatzea.

V. Adingabe arau-hausleen gizarteratzea lagundu edo hobetzea.

Informazio-iturriak direla eta, kanpokoak eta barnekoak erabili dira. Lehenengoak direla eta, honako hauek izan dira:

- Estatistikako Institutu Nazionala.
- Estatuko Fiskaltza Nagusia.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

Horiek guztiek gazte-delinquentziak gure erkidegoan 2008. urtetik 2012ra, biak barne, bizi izan duen egoeraren ikuspegi panoramikoak ematen digun baliabidea osatzen dute, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Zuzendaritzak barruan erabiltzen dituen datuetatik haratago. Eskainitako datuak urteko memorien argitalpenen bidez eskuratu dira (Estatistikako Institutu Nazionala, Estatuko Fiskaltza Nagusia eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia); horietan, adingabe arau-hausleentzako atal berezia dago. Aurkezten diren taulak *ad hoc* egin dira, memoria hau prestatzeko. Datuak, ondorioz, epigrafe handien arabera aurkezten dira, erakunde bakoitzak emandako informazioaren arabera; beraz, ezinezkoa da, erabat, datuak erkatzea. Hala ere, hasieran esan dugun bezala, horien irakurketaren eta analisiaren bidez, adingabeek Plana EAEn indarrean egon den aldiaren egin dituzten arau-hausteen joera orokorra ikus dezakegu.

Era berean, beste informazio-iturri batzuk kontsultatu eta aztertu dira; horiek dokumentuan zehatz nabarmentzen ez badira ere, horiek berrikusi izana oso baliagarria izan da memoria hau prestatzeko, besteak beste, Arartekoaren urteko txostenak, herritarren defendatzailearen txostenak, Gazte Justiziako Nazioarteko Behatokiaren txostenak etab.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren barneko iturriak honako hauek izan dira:

- I. Herri Administrazio eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritza.
- II. Osasun Saila.
- III. Segurtasun Saila.
- IV. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

- V. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (Instituto Vasco de Criminología / Kriminologiaren Euskal Institutuaren bidez).

2008-2012 Gazte Justiziaren Planaren Ebaluazioan deskribatzen den informazioa ez errepikatzeko, aztertutako iturri batzuetako kontu orokorrak edo emaitzarik esanguratsuenak aipatuko ditugu.

### 3.3 Kanpo-iturrien datu orokorrak

#### 3.3.1 Estatuko Fiskaltza Nagusia

Estatuko Fiskaltza Nagusiak emandako datuetan ikus daiteke delitu-egitate gehienak delitu gisa tipifikatzen direla. Gainera, 2008-2012 aldiari dagokionez, delitu-egitateen kopurua asko handitu da honako hauetan: trafikoaren segurtasunaren aurka eta etxeko indarkeria eta genero-indarkeria; asko gutxitu dira kalteak, ebasketak eta lesioak. Hutsak direla eta, gorakada handia izan dute ebaluatutako aldian, "beste batzuk" atala salbu, behera egin baitu.

Neurriak direla eta, gehien ezarri direnak gizartearentzako lanak, zaintzapeko askatasuna eta erregimen erdi irekiko barneratzeak izan dira. Ebaluatutako aldian gora egin zuten neurriak barneratzeak eta zaintzapeko askatasuna izan ziren, eta behera egin zutenak asteburuetako egonaldiak, gizartearentzako lanak eta ohartarazpenak. Azkenik, epaietan, absoluziokoak izan dira behera egin dutenak azken urteotan. Zigor-epaietan, horietako gehienak dira adostasunaren ondoriozkoak, bai aztertutako epean, bai aztertutako urte bakoitzean.

### 3.3.2 Estatistikako Institutu Nazionala

Estatistikako Institutu Nazionalak emandako informazioa kontuan hartuta, adingabe-kopuruak, guztira, gora egin du, 2008tik 2010era. 2011n, ordea, behera egiten hasi zen, aurreko urtearen aldean, eta hala jarraitzen du 2012an ere.

Arau-hauste bat egiten duten adingabeetan, 2009an gora egiten dutela ikusten da, 2008aren aldean, baina, 2010etik aurrera, beherakada esanguratsua da, eta 2011n talde hau adingabe arau-hausleen % 49,9 da, guztira. Bestalde, 3 zigor-arloko arau-hauste baino gehiago egiten dituzten adingabeetan, joerak behera egiten du 2009an, 2008aren aldean. Hala ere, une horretatik aurrera, ehuneko gora doa. Bestalde, EAEko datuak Espainiako estatuko gainerako datuekin erkatuta egiaztatzen da ebaluatutako urte guztietan (2008-2012), Espainiako gainerako lekuetan zigor-arloko arau-hauste bakarra egiten duten adingabeen ehuneko handiagoa dagoela, EAEn baino. Aurreko datuarekin batera, ikus daiteke EAEn zigor-arloko 3 arau-hauste baino gehiago egiten dituzten adingabeen kopurua askoz handiagoa dela Espainiaren gainerako lekuekin alderatuta; uneren batean (2010) proportzioa bikoiztu ere egin izan da.

Zifra horren motiboa ez da agertzen Fiskaltzak eginiko analisian, eta harrigarria da, Justizia Zuzendaritzaren ikuspuntutik; izan ere, kontsultatutako beste iturri batzuen arabera, esaterako, Barne eta Justizia Ministerioek jasotako arabera, EAEko kriminaltasunaren zifrak estatuko gainerako tokietakoak baino baxuagoak dira. Hipotesi modura, zera esan daiteke:

1. Euskadiko nerabeen jokabide urratzaileen judizializazio handiagoa (interbentzio judiziala hutsak egiteagatik).
2. Justizia sarriago erabiltzea Euskadin hezkuntza-baliabide gisa eta esku hartzeko berme gisa.
3. Administrazio-erantzunaren bermea, gazte-justiziaren sistematik eskari judizialei.

Bestalde, adingabe arau-hausleen profila, bai EAEn, bai Espainiako gainerako lekuetan, gizonezkoa da, baina ikus daiteke EAEn arau-hausteren bat egiten duten

emakumeen ehunekoa handigoa dela, beste autonomia-erkidego batzuetakoa baino. Gainera, aipatu behar da bai EAEn, bai gainerako autonomia-erkidegoetan, arau-hausteren bat egiten duen emakumeen ehunekoa gora doala, baina 2011n behera egin zuen, 2010aren aldean. Jaioterria dela eta, datuek erakusten dute Espainian jaio diren eta arau-haustek egiten dituzten adingabeen ehunekoa handiagoa dela atzerriko adingabe arau-hausleena baino. Beste autonomia-erkidego bateko datu orokorrekin erkatzen baditugu bertoko datuak, ebaluatutako lehen hiru urteetan (2008-2010), atzeritarren ehunekoa EAEn estatukoa baino askoz altuagoa da; ordea, 2011n eta 2010ean, datuak antzekoak dira. Motiboa izan daiteke 2008., 2009. eta 2010. urteetan Euskadira adinez nagusiko atzeritar ugari heldu izana, batez ere Magrebeko herrialdeetatik, beste autonomia-erkidego batzuekin erkatuta; horri, lagunartean, "dei-efektua" esan izan zaio.

Arau-haustek direla eta, gorakada egon da EAEn, 2008tik 2010era bitartean. 2011n eta 2012an egindako arau-hauste guztietan beherakada nabarmendu zen, 2010aren aldean, baina kopuruak jarraitzen du 2009an eta 2008an egiten ziren arau-hausteen kopurua gaintitzen. Bestalde, delitu motako arau-hausteen ehunekoak behera egin du 2008tik 2010era arte. 2011n, ordea, delitu-motako delitu-egitateen ehunekoak gora egin zuen, baina 2008an zegoen ehunekora iritsi gabe. 2012an, ehuneko horrek behera egin zuen, berriro ere.

Bestalde, EAEko datuak beste autonomia-erkidego batzuetako datuekin erkatzen baditugu, Espainiako gainerako lekuetan EAEn baino delitu-proporzio handiagoa dagoela ikusten da. Ondorioz, *huts* motako arau-haustek direla eta, egiaztatzen da horien ehuneko handiagoa dagoela EAEn Espainiako gainerako lekuetan baino.

Gure erkidegoan ebaluatutako aldian (2008-2012) hartu diren neurriak direla eta, nabari da gorakada egon dela neurrietan 2008. urtetik 2010. urtera, eta une horretan hasten dela horien beherakada, harik eta 945 neurrira iritsi arte 2012an, 2008an lortutako balioaren behetik. Ingurune irekian betetzeko neurriak direla eta, datuek adierazten dute antza behera egiteko joera dagoela. Garrantzitsua da,

zalantzarik gabe, ingurune irekian neurriak betetzeko ehunekoari eustea, ahal den neurrian, adingabe arau-hausleetan duen eragina kontuan hartuta.

Erkaketarako kontu esanguratsua da ingurune tarteko irekian edo hezkuntza-zentroan betetzeko ehunekoa, beste autonomia-erkidego batzuetako datuekin erkatuta. Horrela esan daiteke ingurune irekian betetzeko neurrien ehunekoa handiagoa dela EAEn Espainiako gainerako lekuen aldean, 2008an eta 2009an, eta hurrengoan alderantzikatu egin da joera hori, urterik urtera. 2012an, ingurune irekiko ehunekoa Espainiako baino txikiagoa da.

### **3.3.3 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia**

Gai-kopurua dela eta, zigor-arloko jurisdikzioaren daturik esanguratsuen da sartu den gai-kopurua; 2008tik 2012ra beherakada egon da. Hori dela eta, ebatzitako gai-kopuruak ere behera egin du urte horietan, bai eta izapidetzen ari zirenak urte bakoitzaren amaieran.

Gaien ebazpena dela eta, ikusten denez, epai-kopuruek gora egin dute, 2008tik 2010era. 2011n, beste iturri batzuetan ikusi dugun bezala, epaien beherakada esanguratsua hasi zen.

Azkenik, eskainitako datuen arabera ebatzitako epaiak behera doaz, urterik urtera, erregistratutakoak baino gutxiago sartzen baitira.

## **3.4 Justizia Zuzendaritzako datu orokorrak**

### **3.4.1 Talde psikosozialen jarduera: Adituen txostenak eta bitartekaritzako, kontziliazioko eta konponketako prozesuak adingabeen jurisdikzian**

Aldi honetan, talde psikosozialen lanak beheranzko joera nabarmena izan du, aholkularitza-txostenak egiteko eskaerei dagokienez; jakina, gauzatu beharreko neurrien murrizketan islatu da. Gauza bera gertatu da exhortoz eskatutako txostenak

egiteko eta neurriak gauzatzeko aldi egindakoekin. Halaber, aipatzekoa da kautela-agerraldietako asistentzian egon den murrizketa. Murrizketarik izan ez duen datu bakarra audientzietara bertaratutako egun-kopurua izan da.

**Tabla 1.** Talde psikosozialek gazte-justizian eginiko jarduera (2008-2012). Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

Talde psikosozialen jarduera: Txostenak	2008	2009	2010	2011	2012
<b>Txostenak, Aholkularitza</b>	1939	1679	1451	1233	1081
<b>Txostenak. Exhortoak</b>	104	81	68	59	73
<b>Txostenak. Gauzatzailleak</b>	194	185	182	157	136
<b><i>Gutzizkoak</i></b>	<b>2237</b>	<b>1945</b>	<b>1701</b>	<b>1449</b>	<b>1290</b>
<b>Txostenak. Kautela-agerraldiak</b>	77	107	113	98	68
<b>Bertaratzea. Entzunaldi-egunak</b>	219	227	244	255	262
<b><i>Gutzizkoak</i></b>	<b>296</b>	<b>334</b>	<b>357</b>	<b>353</b>	<b>330</b>

Nahiz eta neurri bat ez izan, zentzu zorrotzenez, bitartekaritza-, kontziliazio-edo erreparazio-prozesuek Gazte-justiziaren identitate-zeinuetako bat osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan. Gatazka judizioz kanpo konpontzeko prozesuak dira, eta ebazpen positiboa dutenek ez dute neurri judizialik jasotzen. Talde horren berrerortze-tasa ez da % 10era iristen.

Prozedura horiek Justizia Sailburuordetzako langileek gauzatzen dituzte eta, zehatzago esateko, Talde Psikosozial Judiziala eratzen duten profesionalek; horiek, bitartekaritza-programak gauzatzeaz gainera, 5/2000 Lege Organikoak talde

teknikoaren eskumen eta zeregin gisa esleitzen dituen jarduketak egiten dituzte (27., 28., 35., 37., 47. eta beste zenbait artikuluko).

Kontuan hartuta 2008-2012 Gazte Justiziako III. Planaren ebaluazioan eskuratutako datuak, bitartekaritzen % 88,5en amaiera positiboa izan zen, eta horrek esan nahi du horien hasieran proposatutako helburuak lortu zirela. Bitartekaritzaren emaitza negatiboa izan zuten adingabeek neurri irmoa betez igaro ziren ohiko prozesu judizialek.

**Tabla 2.** Gazte-justiziako bitartekaritzari buruzko datu orokorrak (2008-2012). Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

Bitartekotza-prozesuak	2008	2009	2010	2011	2012	GUZTIRA
<b>Emaitza positiboa</b>	538	362	289	307	347	<b>1.843</b>
<b>Emaitza negatiboa</b>	48	55	41	58	37	<b>239</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>586</b>	<b>417</b>	<b>330</b>	<b>365</b>	<b>384</b>	<b>2.082</b>

### 3.4.2 Neurrien bilakaera:

Justizia Zuzendaritzak administratutako neurriak direla eta, 5/2000 Legearen 45. artikuluko ezarritakoa oinarri hartuta gauzatuz, oro har, zera egiaztatu da:

Neurri irmo eta kautela-neurriak, guztira, Gazte Justiziako II. Plana indarrean egon den aldiaren, 5811 izan dira. Horietatik, 5361 (% 92,3) irmoak izan dira eta 450 (% 7,7) kautelazkoak.


Neurri-kopuruak, guztira, gora egin du 2008tik 2010era, eta, une horretatik aurrera, behera egiten hasi da, nabarmen.



**Tabla 3.** Neurri irmoak eta kautelazkoak. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza


NEURRIA	2008	2009	2010	2011	2012	Guztira
Barneratzea	93	116	209	169	120	<b>707</b>
Hezkuntza-taldearekin bizikidetza	7	5	11	8	7	<b>38</b>
Asteburuko egonaldiak	102	152	128	102	121	<b>605</b>
Eguneko zentrora joatea	19	34	26	37	29	<b>145</b>
Tratamendu ambulatorioa	8	22	10	13	8	<b>61</b>
Zaintzapeko askatasuna	293	311	327	376	297	<b>1.604</b>
Zeregin sozioedukatioak	157	186	146	137	101	<b>727</b>
Komunitatearen aldeko prestazioak	299	314	347	285	229	<b>1.474</b>
<b>NEURRI IRMOAK GUZTIRA</b>	<b>978</b>	<b>1.140</b>	<b>1.204</b>	<b>1.127</b>	<b>912</b>	<b>5.361</b>
Barneratzea	38	67	59	52	41	<b>257</b>
Zaintzapeko askatasuna	31	30	39	37	36	<b>173</b>
Hezkuntza-taldearekin bizikidetza	3	3	4	7	3	<b>20</b>
<b>KAUTELA-NEURRIAK GUZTIRA</b>	<b>72</b>	<b>100</b>	<b>102</b>	<b>96</b>	<b>80</b>	<b>450</b>
<b>NEURRIAK GUZTIRA</b>	<b>1.050</b>	<b>1.240</b>	<b>1.306</b>	<b>1.223</b>	<b>992</b>	<b>5.811</b>

**Gráfico 1. Neurri irmo eta kautelazko neurrien kopurua, guztira (2008-2012). Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**



Bestalde, hurrengo irudian ikusten denez, neurri gehienak ingurune irekian dira eta gehienak barneratzerik gabe.


**Gráfico 2. Neurri irmoen mota 2008-2012 aldirian. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**



Ingurune irekian izan diren neurriak direla eta, alegia, adingabea bere etxebizitzan dagoela egiten direnak direla eta, neurri irmoen guztizkoen 4011 izan dira (% 74,8). Horietatik, gehien agindu direnak honako hauek izan dira: zaintzako


askatasuna (% 39,8), gizartearentzako lanak (% 36,8), gizarte- eta hezkuntza-zereginak betetzea (% 18,2), eguneko zentrora joatea (% 3,6) eta tratamendu ambulatorioa (% 1,5).

**Gráfico 3. Neurri irmoen mota ingurune irekian, 2008-2012 aldian. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**




Bestalde, hezkuntza-zentroetan bete beharreko neurriak daude. Horiek, guztira, 1350 izan dira, neurri irmoen % 25,2. Talde horren barruan hiru neurri nabarmenenak honako hauek izango lirateke: barneratzeak, % 52,4, asteburuetakoko egonaldiak (% 44,8) eta, azkenik, hezkuntza-taldeko bizikidetzak (kasuen % 2,3).

**Gráfico 4. Neurri irmoen mota hezkuntza-zentroetan, 2008-2012 aldian. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**



Azkenik, nabarmendu behar da adingabeen epaileek gehien ezarritako neurri irmoak honako hauek direla: zainpeko askatasuna, gizartearentzako lanak, gizarte- eta hezkuntza zereginak betetzea, barneratzeak eta asteburuetako egonaldiak, hurrengo irudian ikus daitekeen bezala.

**Gráfico 5. Adingabeen epaileek ezarritako neurri irmoak, 2008-2012 aldian. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**




### 3.4.3 Adingabe arau-hausleen profila

Gure erkidegoan delitu-egitateak gauzatzen dituzten adingabe arau-hausleen profila aztertzeak garrantzi handia du gazte-justizian; izan ere, legea hausten duten neska-mutilen aldagai psikosozialak zein diren ezagutzeak aukera emango du, betiere 5/2000 Legean aurreikusitako neurrien barruan, adingabe bakoitzari egokitzeko, gazte-justiziako esperientzia bere bizitzako anekdota bat izateko. Horrela, iturri nagusitzat talde psikosozialek epailearentzako egiten dituzten aholkularitza-txostenean agertzen den informazioa hartuta, adingabeen bi profil aurkezten ditugu, denbora-tartearen arabera –nolanahi ere, ez dago ia alderik–.

Kontuan hartuta Planaren ebaluazioan lortutako datuak, alegia, 2008tik 2012ra artekoak, delituak egiten dituzten adingabeen profila honako hau da:

**Gráfico 6. Neurri irmoak dituzten adingabe arau-hausleen profila, 2008-2012 aldian.**  
**Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**



Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateak, Kriminologiaren Euskal Institutuaren bidez, adingabe arau-hauslearen profilari buruzko azterketa egin du, eta lagin gisa 2009an neurri bat amaitu zuten adingabe guztiak hartu zituen, eta 2013. urtera arteko jarraipena egin zuen. Ikerketa hori oinarri hartuta –horrez gainera, beste helburu batzuk ere baditu–, adingabe arau-hauslearen profila gure erkidegoan honako hau izango litzateke:

**Gráfico 7. Neurri irmoak dituzten adingabe arau-hausleen profila, 2009an. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**

% 82,1 gizonak dira.

% 67,3 EAEn jaio da.

% 74,5 jatorrizko familiarekin bizi da.

% 47,6ren gurasoetako batek edo biek lan egonkorra dute.

% 35,6k amaren, aitaren edo guraso bien arreta-defizita du.

% 34,6k gurasoetako baten bereizketa traumatikoa izan du edo ez dira gurasoen leku berean bizi.

Gaixotasun fisikoak eta/edo psikologikoak dituzten senitartekoen ehunekoak txikiak dira.

% 7,4k indarkeriazko ekintzak ezagutu ditu etxean.

Adingabeen eta/edo senitartekoen % 53k harremana du gizarte-zerbitzuekin.

Adingabe arau-hausleen taldea aztertzeaz gainera, atzerriko adingabeen kolektiboarekin azterketa labur bat egin zen; horiek puntuazio altuagoak izan zituzten, aztertu ziren arrisku-adierazleetan. Horrela, eta horietako batzuk nabarmentzeko baino ez, alde garrantzitsua nabaritu zen "jatorrizko familiarekin bizitzea" aldagaian. Adingabe atzerritarren % 40,2 baino ez da bizi bere familiarekin, lagin osoaren % 74,5en aurrean.

Gurasoen kontrolik eza ere (erakutsi berri dugun datuaren ondorioz) deigarria da. Adingabe atzerritar arau-hausleen % 71k ez du gurasoen gutxieneko kontrola; ordea, laginean, ehuneko hori % 53ra jaisten da. Nolanahi ere, ebaluazio honen helburu nagusia da 2009an neurri bat amaitzen duten adingabeen lagin osoa aztertzea, kolektibo horren analisia adingabe atzerritarren ezaugarrien zertzelada txikia izanik. Talde horri esku hartzeko estrategiak eskaini ahal izateko, azterketa sakona egin beharko litzateke, azterketakoa baino lagin handiagoarekin.

Era berean, nesken kolektiboaren azterketa txikia ere egin zen. Azterketan ikusi genuen profila, oro har, ezin da esan asko aldentzen denik gizonezko adingabe arau-hausleen profiletik. Azpimarratzekoa da nesketan toxikoen kontsumitzaileen ehuneko altua dagoela, eta arduratzekoa da, halaber, arrisku sozialean dauden pareen ehunekoa, bai eta neskarik gehienek aisia kudeatzeko arazo nabarmena dutela ere, eta hori arazo handia da denbora kudeatzeko, oro har. Datu horiek arrastoa izan litezke jakiteko esku hartzeko estrategiek zer bide hartu beharko luketen, kontuan hartuta, gainera, nesken berrerortzeko tasa herritarren, oro har, berrerortzeko tasa baino askoz ere txikiagoa dela, hurrengo epigrafean ikusiko dugun bezala.

#### 3.4.4 Berrerortzearen ebaluazioa


Delituaren berrerortzearen azterketa, gure erkidegoan, garrantzi handikoa da delitu-egitateak gauzatzen dituzten neska-mutilekin gure sistema judizialaren eraginkortasun maila zehazteko. Horrela, hurrengo irudian EAEn gazte-justiziaren berrerortzearen bilakaera ikusiko dugu, erreferentzia gisa Euskal Herriko Unibertsitateak Kriminologiaren Euskal Institutuaren bidez sistematikoki egin dituen

hiru azterketak hartuta. Lehenengo azterketan, lagin gisa, 2003an neurri bat amaitzen zuten adingabe guztiak hartu ziren, eta 2007ra arteko ibilbidea aztertu zen. Berrerortze-tasa % 28,1 izan zen. Bigarren azterketan, lagin gisa, 2006an neurri bat amaitzen zuten adingabe guztiak hartu ziren, eta 2010era arteko ibilbidea aztertu zen. Berrerortze-tasa % 21,8 izan zen. Azkenik, hirugarren eta azken azterketan, 2009an neurri bat amaitzen zuten neska-mutil guztiak hartu ziren lagin gisa, eta jarraipena egin zitzaien 2013ra arte. Berrerortze-tasak behera egin zuen berriro, % 19,6ra arte. Garrantzitsua da nabarmentzea berrerortzearen datua adingabeak delitu-egitateak gauzatu ondorengoak direla, ebaluatutako urtean ezarritako hezkuntza-neurria amaituta (2003, 2006 eta 2009). Era berean, lortutako berrerortzearen datuak adingabe direneko berrerortzeari egiten dio erreferentzia, baina baita adinez nagusi direnekoari ere, delitu-egitateak espetxeratzea dakarrenean.

Datu hori harrizkoa da; izan ere, oro har, gure erkidegoan arau-haustek egiten dituzten neska-mutilek gero eta arrisku psikosozial handiagoa dute, azterketa honetan aztertu ditugun aldagaiak kontuan hartuta. Hala ere, badaude aintzat hartu behar ditugun zenbait kontu. Esate baterako, gero eta handiagoa da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan dauden adingabeen kopurua (beraiek edo beren familiak). Hasieran hori negatibotzat jo badaiteke ere, irakurketa positiboa du; izan ere, antza denez, Gizarte Zerbitzuen erantzuna duela urte batzuk baino handiagoa da, eta horrek dakar, azkenean, adingabeek beren delitu-karrera lehenago uztea. Gauza bera gertatzen da Gazte justiziaren Zuzendaritzarekin, Adingabeen Epaitegiek ezarritako neurriak gauzatzeko arduradunarekin. Gero eta baliabide gehiago eta hobeak daude adingabe arau-hausleen eskura; beraz, gazte-justiziak EAEn duen erantzun eraginkorra kontuan hartuta, arau-haustek egiten dituzten neska-mutilek Justizia Zuzendaritzaren erantzun sendoa izaten dute, eta horren ondorioa izaten da delitu-jarduera uztea.



**Gráfico 8. Berrerortze mailak, zenbait aldi oinarri hartuta (2003-2007, 2006-2010 eta 2009-2013 konparatiba). Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**



- ✚ 2009an neurri bat amaitu duten neska-mutilen lagina, guztira, 542 subjektu izan dira.
- ✚ 2000. urtetik 2013ra bitartean Eusko Jaurlaritzaren Gazte Justiziaren Zuzendaritzaren datu-basean zeuden espediente guztiak berrikusi dira; izan ere, espetxeen lankidetzan izan da, adin-nagusitasuna beteta, espetxeratzea ekar dezakeen delituren bat egin duten adingabeak identifikatzeko. Horrela izan diren kasuak berrerortze gisa hartu ditugu.
- ✚ Laginaren % 82,1 gizonezkoa da, beraz, aurreko txosteneko datuari eusten zaio. Nesken % 18k, gutxi gorabehera, delitu-egitateak gauzatzen ditu EAEn.
- ✚ Batez besteko adina 16 urte izan da.
- ✚ % 67,3 EAEn jaio da, aurreko txosteneko ehunekoa baino txikiagoa, bertan % 72,2 baitziren. Atzerritarren kasuan, azterketak % 24,8 jasotzen du, aurreko azterketan jasotzen den ehunekoa baino pixka bat handiagoa (% 22,3).
- ✚ % 74,5 jatorrizko familiarekin bizi da.

- ✚ % 15,4k gizarte-prestazioren bat jasotzen du (aurreko azterketako % 17,5en aurrean).
- ✚ Adingabeen % 35,6k arreta-gabezia argia du oinarrizko beharretan, gurasoetako baten edo bien aldetik (aurreko azterketan % 23,4).
- ✚ % 34,6k guraso batekiko edo biekiko loturak apurtu direla erakusten du (immigrazioa, gurasoen banantze traumatikoa, beste egoitza-leku bat...). Aurreko azterketan, % 30 jasotzen da.
- ✚ % 7,4k etxeko indarkeria jasan du, aurreko azterketakoa baino ehuneko txikiagoak (% 10,5).
- ✚ Aztertutako laginaren % 52,8k harremana izan du gure erkidegoko Gizarte Zerbitzuekin, hainbat modutan (% 37,3k aurreko txostenean).
- ✚ Adingabeen Epaitegietatik sarrien ezartzen diren neurriak ingurune irekikoak dira (% 83,2) eta, zehazki, gizartearentzako lanak, zaintzapeko askatasuna eta gizarte- eta hezkuntza-zereginak.
- ✚ Delitu-egitateen kasuistika oso zabala da.
- ✚ Berrerortze-tasa % 19,6 da (% 28,1 lehen azterketan, % 21,7 bigarrean).
- ✚ Alde esanguratsuak daude adingabeen epaileak ezarritako hezkuntza-neurriaren aurretik eta ondoren aztertutako aldagaien artean; horrek esan nahi du neurri hori gauzatu izanak eragin positiboa duela neska-mutiletan.
- ✚ Laginaren ia % 53k ez du gurasoen aldetik inolako kontrolik neurriaren aurretik, eta ehunekoari eusten zaio ondoren ere.
- ✚ Toxikoen kontsumoa handia da neurriaren ondoren (% 29,9k kontsumo problematikoa du neurriaren ondoren).
- ✚ Honako aldagaien artean baino ez daude alde esanguratsuak: gurasoen kontrola, toxikoen kontsumoa, eskola-errendimendua eta antolatutako aisialdi-jarduerak.

🇪🇺 Laginaren % 52,8k harremanak ditu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin.

Ebaluazio honen helburu nagusietako bat da dagokion adingabeen epaileak adingabeei ezarritako hezkuntza-neurriaren eragina ezagutzea. Horretarako, aldagai dinamiko batzuen neurketa egin dugu, neurri horren aurretik eta ondoren, egon daitezkeen aldeak antzemateko eta, hala badagokio, horiek esanguratsuak diren jakiteko. Informazioa EAEko Adingabeen Epaiketen talde teknikoaren txosten psikosozialetik eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzak bere erakunde laguntzaileen bidez eginiko neurriaren amaierari buruzko txosten psikosozialetik eskuratu dugu. Aldagai dinamikoak honako hauek dira:

- Guraso-kontrola
- Toxikoen kontsumoa.
- Osasun mentaleko arazoak
- Eskola-egoera eta -errendimendua.
- Lan-egoera
- Pareen taldeak
- Aisialdiko jarduerak antolatuta

Aldagai horietan antzeman ditugun aldeak azaldu eta zehaztu aurretik, garrantzitsua da adieraztea atal honetan lagina nabarmen murrizten dela, neurri guztiek ez dutelako *neurri osteko* txosten psikosoziala behar. Alegia, neurri guztietan egiten da neurriaren amaierari buruzko txostena, baina hau ez da berdina, izan ere, esaterako, adingabeak barneratze erdi irekia egin badu (gizartearentzako lana baino askoz ere osoagoa da). Zehazki, amaierako txosten psikosoziala EZ duten neurriak gizartearentzako lanak, asteburuetako egonaldiak eta tratamendu ambulatorioak dira. Gainera, neurriaren aurretik eta ondoren aldagai dinamikoak homogeneotasunez neurtzeak dakarren zailtasuna ere hartu behar da gogoan, aurretik aipatu dugun bezala.


Era berean, bakarrik zehaztuko ditugu hezkuntza-neurriaren aurretik eta ondoren alde esanguratsuak IZAN DITUZTEN aldagaiak; horretarako, McNemar-Bowker proba erabili dugu, errepikatutako neurriak baitira.

### ***Guraso-kontrola***

Adingabe baten garapenean kontu erabakigarria da beren gurasoen edo erreferentziazko figuren kontrola. Lehenengo azterketatik ikusten da gurasoen kontrolik eza nabarmena dela adingabe horien profilean, eta jokabide antisozial batzuen iragarle gisa balio du. Hori dela eta, aurreko ebaluazioan argiago zehazten saiatu ginen guraso-kontrolaren definizioa eta neurketa. Horrela, "kontrol gabe"ko jo ditugu adingabearentzako guraso edo erreferentziazko figurek adingabeen gainean arau-, gizarte-, hezkuntza-kontrolik, besteak beste, egiten ez dutenen kasuak. "*Ohiko kontrol*"tzat jotzen dugu kontrol trinkoa, argia eta positiboa adingabearentzat, eta "*Trinkotasunik gabeko kontrola*" adingabeek zehaztu gabeko neurriak jasotzen dituzten kasuetan (adingabeak ez du argi zer egin behar duen), trinkotasunik gabeak (zigorra ezartzen zaio eta gero kendu egiten zaio), desberdinak (amak A dio eta aitak B) etab. Horrela, adingabeek neurriaren aurretik eta ondoren daukaten egoera ikus dezakegu, estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak (McNemar-Bowker  $p < 0,000$ ).

Hurrengo figuran ikusten denez, ohiko kontrola da neurriaren ondoren gehien hazten dena, eta trinkotasunik gabea murriztu eta erabateko kontrolik eza mantentzen da.

**Gráfico 9. 2009an neurria amaitzen duten adingabeen neurriaren guraso-kontrolaren bilakaera. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**




### ***Toxikoen kontsumoa.***

Neurriaren erabateko eragina duen beste aldagai bat da toxikoen kontsumoarekin lotutakoa eta, beste behin ere, estatistikoki desberdinak diren aldeak nabarmentzen dira (*McNemar-Bowker*  $p < 0,000$ ), hezkuntzako esku-hartzearen aurretik eta ondoren. Aldagai hori zehazteko, toxikoen kontsumoan progresio txikia ezartzea pentsatu dugu; horrela, kontsumoaren erabateko gabeziaren, kontsumo ez arazotsuaren (alegia, eguneroko jardueretan eraginik ez duena) eta, azkenik, kontsumo arazotsuaren –eskola-jardueretan eta abar ondorio negatiboak dituen– artean desberdindu ahalko dugu.

Hurrengo grafikoan neurriaren aurretik eta ondoren antzemandako aldeak ikusten dira; beraz, esku-hartzearen aurretik, aztertutako lagin gehienak kontsumo arazotsua zeukan (% 55,8) eta, ordea, esku-hartzearen ondoren, % 35,4k ez zeukan kontsumorik edo kontsumoa ez zen arazotsua (% 34,7). Hala ere nabarmentzekoa da ia % 30ek arazotsu gisa kalifikatu dugun kontsumoari eusten diola.

**Gráfico 10. 2009an neurria amaitu duten adingabeen substantzia toxikoen kontsumoaren bilakaera. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza**



#### ***Eskola-egoera eta -errendimendua.***


Adingabeen eskolatzearekin lotutako aldagaiak ezinbestekoak dira arrisku-egoerak ezagutzeko, azaltzeko eta auresateko.

Aldagai horien inguruan garrantzitsua da azpimarratzea zaila dela horiek aztertzea; izan ere, 2009an neurria amaitzen duten neska-mutilen eskola-egoeran aldagarritasuna ez da oso homogeneoa. Batzuk hainbat prestakuntza ikasten ari dira (gidabaimena atera, batxilergoa ikasi...), eta beste batzuk ez, baina, batzuetan, prestakuntzaren batekin hasi ahal izateko aukeraren zain daude. Azken batean, ezin dira elkarrekin erkatu. Hori dela eta, eskola-errendimenduaren aurreko eta ondoko egoerak aztertu ditugu, eta homogeneotasun pixka bat ikusi dugu. Gogorarazi nahi dugu "egoki" gisa definitu genuela adingabea hezkuntza-zentrorra erregularitasunez doanean, ikasgelan jokabide disruptiborik ez duenean, edukiak ondo aprobetxatzen dituztenean eta abar. Eskola-errendimendua "hala-holakoa" dela diogu, adingabea hezkuntza-zentrorra joan, baina jokabide arrunta ez duenean eta, hori dela eta, batzuetan kaleratu behar izan dutenean, mailaren bat errepikatzeko batez besteko errendimendua duenean... baina, oro har, behintzat, eskolatuta dagoenean eta

curriculumeko helburuak betetzen doanean. Azkenik, errendimendu "desegokia" daukagu, neska-mutilak maila, prestakuntza edo antzeko batean izena emanda egon, baina eskoletara ez doazenean, eta, joanez gero, oso jokabide negatiboak dituztenean.

Hurrengo grafikoan ikusten diren aldeak estatistikoki esanguratsuak dira (McNemar-Bowker  $p < 0,000$ ) eta, nabarmena denez, aldaketarik handiena errendimendu "desegokia" eta "egokia" duten taldeen artean dago.


**Gráfico 11.** 2009an neurria amaitu duten adingabeen eskola-errendimenduen bilakaera. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza



### **Aisialdiko jarduera antolatutak**


Eta, azkenik, atal honekin amaitzeko, "antolatutako aisia-jarduerak" aldagaia jaso dugu, neurriaren aurretik eta ondoren berriro ere aldeak dituen (McNemar-Bowker  $p < 0,000$ ) adingabearen profilararen ezaugarri esanguratsu gisa; izan ere, esku-hartzearen aurretik aisia-jarduera egituratuak zeuzkaten adingabeak % 12,3 ziren eta, neurriaren ondoren, % 32,2k zeuzkaten aisia-jarduera antolatutak.

**Gráfico 12.** 2009an neurria amaitu duten adingabeen aisia-jardueren bilakaera. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza



2009an neurria amaitu duten adingabe arau-hausleen laginetik eskuratutako aldagai garrantzitsuenak laburtzeko, honako grafiko hau dugu, aztertutako laginaren profila aztertzen duena:

**Gráfico 13.** 2009an neurria amaitu duten adingabe arau-hauslearen aldagai dinamikoen profila. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza



### 3.5 Neurriak gauzatzeko baliabideak

Adingabeek eskura izan ditzaketen baliabideen erabilera alde batera utzita – hezkuntza-sarea, osasun-zerbitzuak, enplegua izateko zerbitzua, prestakuntza-



zerbitzua, aisia, etab.–, EAEn justizia-sistemak ezarritako neurriak betetzeko berariazko baliabideak daude.

Horiek kategoriatan banatzen badira, bi talde daudela ohartuko gara:

- Egoitza-zerbitzuak: gazte-justiziako hezkuntza-zentroen sareari dagozkionak.
- Ingurune irekiko zerbitzuak.

### 3.5.1 Egoitza-zerbitzuak

Zentro hauetan, langile espezializatuek barneratzeko, gizartearentzako lanak emateko eta, kasu jakinetan, hezkuntza-taldean bizikidetzan jarduteko kautela-neurri irmoa bete behar duten adingabeak hartzeko ardura daukate.

Hiru lurralde historikoen artean 11 zentro daude hiru kategoria horietan espezializatuta. Lehenengo mailan (I. maila), herri-administrazioak kudeatzen dituen zentroak daude, neurririk zorrotzenak eta luzeenak betetzen direnak. Kasu honetan, EAEn ezaugarri horiek dituen zentro bakarra dago (Ibaiondo Hezkuntza Zentroa). Bigarrenik, II. mailako zentroak daude, alegia, erantzukizun publikoko zentroak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin hitzartutako kudeaketakoak. Horiek arduratzen dira epe laburreko erregimen erdi irekiko eta irekiko neurriak betetzen dituzten adingabeez. EAEn ezaugarri horiek dituzten sei zentro daude, eta, horietatik, bost mutilentzat dira eta bat neskentzat. Azkenik, III. mailako zentroak daude; "autonomiako egoitza" izenez ere ezagutzen dira. Aurrekoak baino txikiagoak dira. Zentro horiek erkidegoan integratuta daude eta erregimen irekiko edo erdi irekiko barneratzearen azken faseetarako erabiltzen dira. EAEn maila horretako lau zentro daude: horietako bi mistoak eta beste biak, bat mutilentzat eta bestea neskentzat.

**Tabla 4.** Gazte-justiziako hezkuntza-zentroyen sarea (2008-2012). Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

ZENTROA	LEKU LIBREAK <sup>10</sup>				
	2008	2009	2010	2011	2012
HZ IBAIONDO	34	39	39	39	39
HZ URIBARRI	14	14	16	16	16
CEMAR (Urioste)	7	7	7	7	0
HZ ITXASLUR	0	0	6	6	0
HZ URGOZO	0	0	0	0	10
EI DONOSTIA 1	4	4	4	4	4
EI DONOSTIA 2	6	6	6	6	0
EI GASTEIZ	4	4	0	4	4
EI BILBO	6	6	6	6	6
HZ ANDOIU/GORBEIA	7	7	15	15	15
HZ TXEMA FÍNEZ	0	0	0	10	10
<b>GUZTIRA:</b>	<b>82</b>	<b>87</b>	<b>99</b>	<b>113</b>	<b>104</b>

Zentroek eskaintzen dituzten lekuak direla eta, 1. taulan ikusten den bezala, eskariaren arabera joan dira egokitzen. Datuak ikusita, esan daiteke 2011n bete zela plazarik gehien, 113, zehatz esateko.

Zentro horietan lanean diharduten langileak direla eta, kasurik gehienetan, lan profesionala adingabeekin 24 orduz bizitzen eta "eguneroko bizitza" izeneko espazioetan txandaka lanean ari diren hezitzaileak dira. Horien ondoren, "ikasgela" eta

<sup>10</sup> Leku libreak abenduaren 31n

"tailer"retako jarduerak garatzen dituzten pertsonak daude. Hirugarrenik, "eguneroko bizi"ko taldeak koordinatzeko ardura dutenak eta esku-hartze soziofamiliarrean eta psikologikoko arloetan diharduten teknikariak daude. Azkenik, administrazio-lanez arduratzen diren langileak daude.

### 3.5.2 Ingurune irekiko zerbitzuak

Zerbitzu honen barruan, eguneko zentroak daude, eguneko zentroi laguntza emateko neurriak betetzera bideratuak, bai eta ingurune irekiko taldeak ere, besteak beste, zaintzapeko askatasunaz, gizarte- eta hezkuntza-zereginaz, gizartearentzako lanez, tratamendu ambulatorioez eta asteburuetako etxeko egonaldiez arduratzen direnak.

EAEn sei zentro daude, guztira. Hiru, ingurune irekikoak, bat lurralde historiko bakoitzeko, eta hiru eguneko zentro, bat lurralde historiko bakoitzeko.

Hezkuntza-zentroetan bezala, horrelako zentroetan ere adingabeez arduratzen diren langile gehienak hezitzaileak eta irakasleak dira eta tailerrez arduratzen dira.

Zentro horietako leku-kopurua txikiagoa da beste zentro batzuetakoa baino: Bizkaian, guztira, 20 leku daude, Gipuzkoan 12 eta Araban 4.

### 3.5.3 Baliabide ekonomikoak

Hurrengo puntuan, zentroetako bakoitzak erabiltzen dituen baliabide ekonomikoak bereizita ikusiko ditugu. Honela banatzea erabaki da:

- Baliabide ekonomikoak ingurune irekian
- Baliabide ekonomikoak hezkuntza-zentroetan
- Segurtasun-gastuak hezkuntza-zentroen sarean
- Baliabide ekonomikoak hezkuntza-zentroetan lanak eta mantentze-lanak egiteko

Horrela izanik eta 2. taulan ikusten den bezala, 2008-2009 aldiko gastua, guztira, ingurune irekietan, 9.267.580 € izan da gehi esku-hartze psikoterapeutikoen 234.622 €.

**Tabla 5.** Baliabide ekonomikoak: ingurune irekia (2008-2012). Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

	2008	2009	2010	2011	2012	GUZTIRA
<b>INGURUNE IREKIA BIZKAIA</b>	618.948	630.039	637.015	637.015	637.015	<b>3.160.032</b>
<b>INGURUNE IREKIA GIPIZKOA</b>	318.852	324.911	372.084	372.084	372.084	<b>1.760.015</b>
<b>INGURUNE IREKIA ARABA</b>	188.811	192.398	194.322	194.322	184.600	<b>954.453</b>
<b>BIZKAIKO EGUNEKO ZENTROA</b>	450.144	458.697	463.284	463.284	406.029	<b>2.241.438</b>
<b>GIPIZKOA KO EGUNEKO ZENTROA</b>	56.500 <sup>11</sup>	276.353	279.117	279.117	260.555	<b>1.151.642</b>
<b>ARABAKO EGUNEKO ZENTROA</b>	---	---	---	---	---	---
<b>GUZTIRA:</b>	<b>1.633.254</b>	<b>1.882.398</b>	<b>1.945.822</b>	<b>1.945.822</b>	<b>1.860.283</b>	<b>9.267.580</b>
<b>ESKU HARTZE PSIKOTERAPEUTIKOAK<sup>12</sup></b>	38.180	49.088	33.670	71.596	42.088	<b>234.622</b>

Bestalde, 3. taulan ikusten denez, 2008-2012 aldirian hezkuntza-zentroan gauzatutako baliabide ekonomikoak 53.139.709 € dira.

**Tabla 6.** Baliabide ekonomikoak: ikastetxeak (2008-2012). Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

	2008	2009	2010	2011	2012	GUZTIRA
<b>HZ IBAIONDO</b>	4.524.418	4.960.843	5.209.524	5.212.735	4.786.755	<b>24.694.275</b>
<b>HZ URIBARRI</b>	1.600.512	1.630.922	1.647.231	1.778.235	1.689.300	<b>8.346.200</b>
<b>CEMAR (Urioste)<sup>13</sup></b>	741.000	755.079	762.630	760.630	---	<b>3.021.339</b>

<sup>11</sup> Jarduera urriko azken egunetan hasi zuen.

<sup>12</sup> Esku-hartze psikoterapeutikoen ataleko gastuak honako hauek dira: programa terapeutikora joateko derrigortasuna dutela jasotzen duen neurri judiziala duten neska-mutilekin egin beharreko esku-hartze terapeutikoen ikuspuntutik (bakarkakoa, taldekoa edo familiakoa) lankidetzan jardun duten profesional edo erakundeei eginiko ordainketak.

<b>HZ ANDOIU</b>	789.600	804.603	1.540.000	1.931.500	1.766.575	<b>6.832.278</b>
<b>HZ MENDIXOLA (Txema Fínez)<sup>14</sup></b>	---	---	---	801.000	1.007.570	<b>1.808.570</b>
<b>EI BILBO 1</b>	425.136	433.214	437.546	437.546	415.650	<b>2.149.092</b>
<b>EI BILBO 2<sup>15</sup></b>	---	---	---	---	111.150	<b>111.150</b>
<b>EI DONOSTIA 1</b>	327.000	333.213	336.546	333.546	326.450	<b>1.659.755</b>
<b>EI DONOSTIA 2<sup>16</sup></b>	425.136	433.214	437.546	437.546	124.695	<b>1.858.137</b>
<b>EI GASTEIZ<sup>17</sup></b>	327.000	333.213	---	---	---	<b>660.213</b>
<b>HZ URGOZO<sup>18</sup></b>	---	---	---	619.000	974.700	<b>1.593.700</b>
<b>HZ ARTEA (PFSC)<sup>19</sup></b>	---	54.000	156.000	156.000	39.000	<b>405.000</b>
<b>GUZTIRA:</b>	<b>9.159.802</b>	<b>9.738.301</b>	<b>10.527.023</b>	<b>12.472.738</b>	<b>11.241.845</b>	<b>53.139.709</b>

Aurreko taulako datuak erakusten duenez, diru gehiena Ibaiondo hezkuntza-zentrorra bideratzen da; izan ere, I. mailako zentro bakarra da. Gainera, 2011tik 2012ra kopuruak hezkuntza-zentro gehienetan murriztu egin direla ikusten da eta 2009ko mailetara iristen dela eta, kasuren batean, 2008koetara.

Hirugarrenik, 4. taulan ikusten den bezala, hezkuntza-zentroetan segurtasuneko gastua, 2008-2012 aldian, 4.289.512 € dira. Taulan ikusten den bezala, 2008. urtea hutsik dago; izan ere, gastuak ez zeuden banatuta eta, beraz, ezinezkoa izan da jakitea zein partida bideratzen den segurtasunerako.

**Tabla 7.** Gazte-justiziako hezkuntza-zentroetan segurtasuneko gastuen exekuzioa (2008-2012).  
Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

<sup>13</sup> 2011ko abenduaren 31n itxita. Aldi baterako EI Bilbao2 hasta finales de marzo de 2012.

<sup>14</sup> 2011ko apirilean irekia.

<sup>15</sup> 2012ko hiru hilabetez baino ez zen ibili.

<sup>16</sup> 2012ko apirilaren hasieran itxia.

<sup>17</sup> 2010eko urtarrilean itxia. Plazak HZn sartzen dira. Andoiu-Gorbeia.

<sup>18</sup> 2011n irekia.

<sup>19</sup> 2012ko otsailean itxia.

Urtea	IBAIONDO HEZKUNTZA ZENTROA	CEMAR/URGOZO	ARABA	GUZTIRA
2008 <sup>20</sup>	---	---	---	---
2009	616.403	109.644	200.004	<b>926.051</b>
2010	658.931	110.381	201.277	<b>970.589</b>
2011	710.217	114.138	356.540	<b>1.180.895</b>
2012	733.519	109.138	369.320	<b>1.211.977</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.719.070</b>	<b>443.301</b>	<b>1.127.141</b>	<b>4.289.512</b>

Azkenik, 5. taulan ikusten den bezala, hezkuntza-zentroetan obretara bideratutako 2008-2012 aldi osoko partida 7.054.304 € izan da, aurreikusitakoa baino 2.920.696 € gutxiago.

**Tabla 8.** Baliabide ekonomikoak: gazte-justiziako hezkuntza-zentroetako obren exekuzioa (2008-2012). Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

		2008	2009	2010	2011	2012	GUZTIRA
HZ MENDIXOLA (Txema Fínez)	Obrak	72.564	596.489	2.103.974	239.961	---	<b>3.012.988</b>
	Altzariak	---	---	---	132.528	---	<b>132.528</b>
IBAIONDO HEZKUNTZA ZENTROA	Obrak	182.154	581.374	312.872	181.729	143.993	<b>1.402.122</b>
	Garbiketa	34.510	43.001	33.556	44.763	45.102	<b>200.932</b>
	Altzariak, mantentze-lanak eta hornikuntzak (ura, elektrizitatea eta gasa)	195.749	192.466	255.555	190.335	160.786	<b>994.891</b>
HZ URIBARRI	Obrak	140.547	878.614	2.464	---	---	<b>1.021.625</b>
	Altzariak	18.127	15.384	252.876	2.618	213	<b>289.218</b>
<b>GUZTIRA:</b>		<b>643.651</b>	<b>2.307.328</b>	<b>2.961.297</b>	<b>791.934</b>	<b>350.094</b>	<b>7.054.304</b>

<sup>20</sup> Ez dago partida bereizirik

### 3.6 Helburuak, sailaren arabera

Hurrengo atalean, sail bakoitzak 2008-2012 aldian garatu dituen helburuak deskribatuko dira. Helburuak idaztea baliagarria da, gero, orain arte egin den bezala, Plana hasieran lortu nahi zenarekin bat etorrita ebaluatzeko. Horrela ikusiko da eraginkortasunik eta, batez ere, efizientziarik egon den, egindako gastua eta betetako helburuekin erabilitako baliabideak kontuan hartuta.

#### 3.6.1 Herrizaingo Saila

Segurtasun Sailak, aurretik Herrizaingo Saila zenak, ebaluazioaren emaitzak ikusita, ezarritako helburuak bete ditu. Horretarako, honako jarduera hauek egin ditu:

- Araudi-aurreikuspenak sartu dira, Ertzaintzaren barne-araudirako jarraibideen bitartez.

- Adingabeen datuen konfidentzialtasuna bermatzeko prozesuak osatu dira.

- Berariazko 22 prestakuntza-ekintza gauzatu dira arlo honetan, 1415 agenteren parte-hartzearekin.

- Zumarragako, Laudioko, Bergarako, Eibarko, Gasteizko eta Donostiako ertzain-etxeek berariazko bereizgarririk gabeko ibilgailu ofizialak atondu dituzte, adingabeak garraiatzeko.

- Justizia Zuzendaritzaren eskariz, barneratutako 2241 adingabe lekualdatu dira.

### 3.6.2 Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Gaur egun, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila izenez ezagutzen denean honako ekintza hauek egin ziren Planaren hasieran ezarritako helburuak betetzeko:

- Gazte Justiziako zentroetan hezkuntza-arretako baterako aginduak indarrean jarraitu du.
- Ibaiondo HZk irakasle egokiak eta nahikoak edukitzea bermatu da.
- Behar izan duten adingabeek, urrutiko hezkuntzako programetarako sarbidea izan dute.
- Hezkuntza-zentroetan ezagutarazteko programari eutsi zaio, baita Justizia Jauregiarako bisita didaktikoei ere.

### 3.6.3 Osasun Saila

Osasun Sailaren ebaluazioarekin amaituta, Justizia Zuzendaritzaren lankidetzarekin, ondorioztatu da planteatutako helburuak betetzea lortu zela. Horretarako, egindako ekintza batzuk laburbiltzen dira:

-Ibaiondo HZko arreta medikoa eta erizaintza (medikuak, erizaina eta psikiatrak) gauzatzeko erakundearteko akordioak indarrean jarraitzen du.

- Gazte-justiziako zentroetan osasun-arretari buruzko 2003ko hitzarmenak indarrean jarraitzen du.

- OTIrako sarbidea bermatu da, gainerako herritarrentzat bezala.

- Osasun mentalaren arretak hutsuneak ditu berariazko arazo jakin batzuei aurre egitean; familia-terapiak egiteko, estupefazianteen kontsumoa, etab. Horrenbestez, zenbaitetan sare pribatura jo behar izan da.



### 3.6.4 Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Ekintza azpimarragarrienak sail honetan gauzatu dira:

- Bilbon bi etxebizitza lagatzeari eutsi zaio.
- Atzerriko nerabeen arreta Helduren bidez gauzatu da eta, gero, Biltzen-en bidez.
- Gazte-justiziako nerabeen etxebizitza-premiak 2012ko abuztuko txostenean aztertu ditu Etxebizitzako Euskal Behatokiak.
- Gazte-justizia sistemako nerabeei arreta eskaini diete gizarte-zerbitzuek sare orokorraren bidez, berariazko programarik edo ekintzarik baliatu gabe.

### 3.6.5 Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila

Gaur egun, sail hori Herri Administrazio eta Justizia Saila da. Sail hau III. Planean erabat inplikatu denez, erabaki da kategoriak bereiztea, bete den helburu bakoitza egindako ekintzen bidez aurkezteko:

- I. Azpiegiturak:** Gazte-justiziako hezkuntza-zentroen sarea osatu da Txema Fínez eta Urgozo hezkuntza-zentroak irekita, Andoiu/Gorbeia hezkuntza-zentroa handituta eta gainerako zentroak egokituta. Aldiaren amaieran, 104 leku zeudela ondorioztatu zen.
- II. Araudiaren garapena:** Planean aurreikusitako 163/2008 eta 80/2009 Dekretuak argitaratu dira.
- III. Sailarteko eta erakundearteko koordinazioa:**
  - Itunak Estatuaren Administrazio Orokorrarekin, Eudelekin, Osakidetzarekin, Hezkuntza Sailarekin, etab.
  - Kontseilu, foro eta batzorde askotan parte hartzea.
  - Koordinazio iraunkorrerako bideak zabalik mantentzea epaitegiekin, fiskaltzekin, talde psikosozialekin, erakunde laguntzaileekin, foru-aldundiekin, beste autonomia-erkidego batzuekin, etab.

-UPV/EHUrekin lankidetzan jardutea, azterlanak eta ebaluazioak egiteko.

**IV. Tresna informatikoak:**

-Gazte-justiziako datu-basea (28 zk.) berrikustea eta eguneratzea.  
-Talde psikosozialen oinarriaren funtzionamendua diseinatzea eta probatzea.

**V. Azterlanak, ikerketak eta materialak osatzea:**

-Hezkuntzako esku-hartzearen, adingabeen profil psikosozialaren eta EAEko Adingabeen Justiziako delitu-analisiaren ebaluazioa argitaratzea (2003-2006).

-Hezkuntzako esku-hartzearen, adingabeen profil psikosozialaren eta EAEko Adingabeen Justiziako delitu-analisiaren ebaluazioa (2003-2012).

-Gazteen Justizia Bitartekotzaren ebaluazioa EAEn (2006-2009).

-Hezkuntzako esku-hartzearen, adingabeen profil psikosozialaren eta EAEko Adingabeen Justiziako delitu-analisiaren ebaluazioa (2008-2011).

-Hezkuntzako esku-hartzearen, adingabeen profil psikosozialaren eta EAEko Adingabeen Justiziako delitu-analisiaren ebaluazioa (2009/2012).

-Behin eta berriz berrerori diren adingabeak EAEn (2006-2009).

-EAEko hezkuntza-zentroen ebaluazioa (2009).

-Argitaratutako materialak: neurri judizialei, hezkuntza-zentroeiei, autonomia-egoitzei eta bitartekaritza-, kontziliazio- eta ordain-prozesuei buruzko 12 liburuxka.

-Justizia Administrazioari buruzko unitate didaktikoa.

**VI. Gazte Justiziako Zerbitzuari atxikitako profesionalak:**

-Gazte Justiziako Zerbitzuari atxikitako profesional-kopurua egonkortu da (11 pertsona).

**VII. Gazte Justiziako hezkuntza-zentroen sarea:**

-Ezarritako hiru mailako eredua sendotu da. I. mailan, 39 leku; II. mailan, 51; eta III. mailan, 14.

**VIII. Ingurune irekiko zerbitzuak:**

-Zerbitzuon egiturari eutsi zaio, aldaketa nabarmenik egin gabe: Ingurune irekiko neurriak gauzatzeko 3 zerbitzu (26 profesional) eta 3 eguneko zentro (36 leku libre).

**IX. Lanbide-heziketa eta birziklatze profesionala:**

-Justizia Sailaren itunen bitartez Gazte Justiziaren sarean lanean ari diren pertsona guztiek bermatuta izan dituzte prestakuntzarako 30/35 ordu urtean.

-Ibaiondo HZn, tutoretzako, substantzien gehiegizko kontsumoko, nerabegaroko patologia psikiatrikoko eta krisietan esku hartzeko ereduko (2 ikastaro) berariazko ikastaroak egin dira. Pertsona horiek norbanako gisa eskuratu dute HAEEn prestakuntza-eskaintza.

-Gazte-justiziaren sareko langileek emandako trebakuntza-jarduerak ugaritu egin ziren.

### 3.7 Ondorioak

Jarraian, hurrengo atalean, ondoriorik nabarmenenak jaso dira. Azpimarratu beharreko puntu garrantzitsua da ezinezkoa dela iturrien informazioen arteko erkaketa egitea; izan ere, aldagaiak ez dira berdin neurtzen. Hori dela eta, ondorioak zenbait ataletan bereiziko dira:

#### 3.7.1 Kanpoko iturriak

- Gazteen Justiziara iristen diren gaien kopurua murriztu da.
- Neskak protagonista dituzten delitu-egitateen kopurua hazi da.
- Adingabe atzeritarrek egindako delituek, hasiera batean, nabarmen egin dute gora, eta beheranzko joera hautematen da 2010az geroztik, gaur egun ere mantentzen dena.

### 3.7.2 Justizia Zuzendaritzaren ondorioak: talde psikosozialen bitartekaritza-prozesuei eta aholkularitza-jarduketei dagokienez

- Beheranzko joera nabarmena egon da, kautela-agerraldietara joateko aldian eta neurrien egikaritze-aldian egindako txostenen aholkularitza-txostenak egiteko eskaerei dagokienez.
- Bitartekotza-prozesuek behera egin dute ebaluatutako aldian (586, 2008an; 384, 2012an). Datu hori korrelazioan jarri da aldi horretan ezarritako neurrien beherakadarekin.
- Egindako bitartekaritzen % 88,5 positibo amaitu ziren 2008-2012 aldian.

### 3.7.3 Neurriei buruzko ondorio orokorrak

- Justizia Zuzendaritzan adingabeen epaitegietatik iritsitako neurri guztiak egikaritu dira –leku ezezagunen batean zeuden pertsonen kasuan edota neurria egikaritzea ezinezko bihurtzen zuen egoera batean zeuden pertsonen kasuan salbu–, EAEz kanpoko zentro eta zerbitzuetara jotzeko beharrik gabe.
- 2008-2012 aldian, Justizia Zuzendaritzan, guztira, 5811 neurri sartu ziren. Horietatik, % 7,7 kautelazkoak izan ziren, eta % 92,3 irmoak.
- 2008. eta 2010. urteen artean, eskaerek gora egin zuten; hortik aurrera, joera beherakorra da. 2010ean, guztira, 1306 neurri izan ziren eta, 2012an, 992; hau da, % 24 gutxiago.

### 3.7.4 Kautela-neurriei buruzko ondorioak

- Ebaluatutako aldian, guztira, barneratze-neurriak inposatu dira kasuen % 57,1n; zaintzapeko askatasuna, kasuen % 38,4an; eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetzeta, kasuen % 4,4an.
- Kasuen % 84,4 mutilak dira eta % 15,6, neskak. Alde hori antzeko ehunekoetan mantendu da ebaluatu diren urte guztietan.

- Adinaren faktorea garrantzitsua da. 16 urte baino gehiago dituzten pertsonen inposatzen zaie neurrien % 70,4. Nabarmentzekoa da kautelazko barneratze-neurria jaso duten 14 urtetik beherako pertsonen ehunekoa % 9,2 dela.
- Kautelazko neurrien gehiegizko iraupena –barneratzeen heren batek 5 hilabete baino gehiago irauten du– zailtasun erantsia da gauzatzean, aldi baterako behin-behinekotasuna dela-eta, eta jazoeraren erantzukizunaren gainean lan egitea ezinezkoa delako, kautelazko aldiak irauten duen bitartean.
- Kautelazko barneratze-neurria ezartzen zaien pertsona-kopuruaren erdia baino gehiago (% 53,4) atzerritarra da, eta, azken talde horren barruan, gehienak Magreben jaiotako adingabeak dira.

### 3.7.5 Neurri irmoei buruzko ondorioak

- Ingurune irekiko neurri deritzenak guztizkoen % 75,8 izan dira, eta, horien artean, nabarmentzekoak dira zaintzapeko askatasuna eta gizartearentzako lanak.
- Neurri irmoen % 25,2 hezkuntza-zentroan bete ziren. Horietatik, % 52,4 barneratze-neurriak izan dira; % 44,8 asteburuko egonaldiak; eta, gainerako % 2,8, hezkuntza-taldearekiko bizikidetzakoak.
- Ezarritako neurrien ehunekorik handiena mutilena da, % 83,5, eta neskena, % 16,5. Esan beharra dago nesken ehunekoa gora joan dela 2008tik (% 13,1) 2012an % 20,3rekin amaitu arte.
- Adingabeen sexuaren arabera, neurrien ezarpena desberdina dela ikus daiteke. Horren adibide da eguneko zentrora joatea; mutilak % 95,2an eta neskak % 4,8an. Bestalde, ohikoagoa da neskek mutilek baino hobeto erantzutea gizarte- eta hezkuntza-zereginei.
- Nesken artean gehien gertatzen diren delituak dira tratu txarrarekin, familia-indarkeriarekin eta ebasketarekin lotutakoak. Gutxiago dira kalteen, indarkeriaren bidez eginiko lapurreten edo trafikoaren segurtasunaren aurka eginiko kasuak.

- 2008-2012 aldian, neurri irmo guztien % 63,1 EAEn edo beste autonomia-erkidego batean jaiotako adingabeei dagokie. % 36,9, berriz, atzerrian jaiotakoei. Bestalde, 2012az geroztik, azken talde horri inposatutako neurrietan beheranzko joera hautematen da.
- Delitu-egitaterik ohikoenak honako hauek izan ziren:
  - o Indarkeria eta/edo larderia erabiliz egindako lapurretak (% 14,5); kasu horietan, neurri irmo ohikoenak zaintzapeko askatasuna, barneratzeak eta gizartearentzako lanak izan dira.
  - o Indarra erabiliz egindako lapurretak (% 12,6); kasu horietan, zaintzapeko askatasuna, gizartearentzako lanak eta asteburuko egonaldiak inposatu dira.
  - o Lesioak (% 11,5); kasu horietan, gizartearentzako lanak, zaintzapeko askatasuna, gizarte- eta hezkuntza-lanak eta barneratzeak inposatu dira.
  - o Ebasketak (% 10,1); kasu horietan, gizartearentzako lanak, zaintzapeko askatasuna eta gizarte- eta hezkuntza-lanak inposatu dira.
- Barneratzeak, 7 hilabeteko iraupenarekin, iraupen luzeeneko neurri bilakatu ziren.
- Bestalde, neurri laburrenak asteburuko egonaldiak eta gizartearentzako lanak dira.
- Ikusi denez, desberdintasunak daude epaiketa oinarri hartuta ezarritako neurrietan.

### 3.7.6 Talde espezifiko nabarmenenei buruzko ondorioak

Atal honen barruan, azpimarratzekoak diren hiru alderdi nabarmentzen direla ikusten da:

1. Gurasoen aurkako indarkeria
2. Nesken taldea
3. Adingabe atzerritarrak

### 3.7.6.1 *Gurasoen aurkako indarkeria*

Talde honen barruan, honako ondorio hauek atera dira:

- 2010etik 2012ra arau-hauste honi lotutako neurri irmoen gorakada egon da.
- 2008-2012 aldian, bikoiztu egin dira kautela-neurriak eta indar berezia daukate neurri horien globalaren barruan.
- Barneratzea delitu-egitate honek gehien ezarritako kautela-neurria da.
- Gainerako delitu-egitateen aldean, arau-hauste honetarako nesken batez bestekoa handiagoa da.

### 3.7.6.2 *Nesken taldea*

- Ezarritako kautelazko neurrien % 15,6 eta neurri irmoen % 16,5 ezartzen zaizkie neskei.
- Kautelazko neurrien kasuan, neurrien erdiak baino gehiago barneratzeak dira.
- Adinaren batez bestekoa mutilen taldearena baino baxuagoa da.
- Nahiko alde handiak daude lurralde historikoen artean, neurriak ezartzeko orduan. Neurrien % 78 Bizkaian ezarri dira.
- Jaioterriari dagokionez, mutilen taldearekiko diferentzia oso nabarmena da, nesken % 83 EAEn edo beste autonomia-erkidego batean jaio baita.
- Neskei askatasunaz gabetzeko neurri irmo gutxiago ezartzen zaizkie mutilei baino. Hala ere, handiagoak dira tratamendu anbulatorioaren, hezkuntza-taldearekiko bizikidetzaren eta eguneko zentroko asistentziaren neurriak.
- Neskek sarriago egiten dituzte indarkeriaren eta/edo larderiaren bidezko lapurretak, ebasketak eta lesioak. Eta gehien ematen diren neurriak gizartearentzako lanak, zaintzapeko askatasuna eta gizarte- eta hezkuntza-lanak dira.

### 3.7.6.3 *Atzerritarren taldea*

- Ebaluatutako aldian EAEn inposatutako neurrien % 37,6 atzerrian jaiotako adingabeei ezarri zaie.

- Atzerritarren kopuruak beheranzko eboluzioa izan du 2010etik (% 40,9) 2012ra bitartean (% 31,7).
- Atzerrian jaiotakoen taldean, babesgabetze-egoera handiagoa da EAEn edo beste autonomia-erkidego batean jaiotako pertsonena baino, eta horiei askatasuna kentzeko neurri gehiago inposatzen zaizkie (barneratzeak eta asteburuko egonaldiak) besteei baino. Eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetzako, eguneko zentrorra joateko eta tratamendu anbulatorioko neurri gutxi jasotzen dituzte.
- Kautelazko neurriei dagokienez, nagusiki atzerritarrei ezartzen zaizkie, eta murriztaileagoak, gainera. Bestalde, mutil atzerritarrak dira, hein handiengan, halako neurriak jasotzen dituztenak.
- Adingabe atzerritarraren profila hau da: mutila, Magrebeko herrialde batean jaioa, eta laguntza ematen dion pertsonarik gabea (ez familiakoa, eta ez soziala). Bigarren taldea latinoamerikarrek osatzen dute; horiek ere, mutilak izaten dira kasu gehien-gehienetan, familiarekin berriz bildu direnak eta, oro har, amarekin bizitzera etorri direnak.

### 3.7.7 Kriminologiaren Euskal Institutuaren (Euskal Herriko Unibertsitatea) ondorioak

UPV/EHUK, IVAC/KREI erakundearen bidez, 3. ebaluazio-azterketa egin du EAEn. Zehazki, 2009-2012 aldia izan du aztergai ikerketak, eta ondorengo alderdi hauetan sakondu du: adingabe arau-hausleen profila, horien delitu-ibilbidea, eta hezkuntzako neurri judizialek adingabeetan duten inpaktua.

Beraz ondorioztatzen da EAeko adingabe arau-hausleen profil psikosoziala hau dela: mutila, EAEn edo beste autonomia-erkidego batean jaioa, eta bere jatorrizko familiarekin bizi dena. Halaber, horietako gehienek kasuan, gurasoetako batek edo biek lanpostu egonkorra dute. Dena den, neska-mutil horietako askoren kasuan, nabarmen ikusten da behar baino arreta gutxiago jasotzen dutela aitaren eta/edo amaren aldetik, eta/edo gurasoen banaketa traumatikoa jasan dutela. Gazte-justiziara



iristen diren adingabeen erdiek baino gehiagok harremana dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin.

Bestalde ikusi da berrerortzeak behera egin duela, hirugarren aldiz –hots, ebaluatutako heziketa-neurria bukatu ostean, delituak egiteak–. Gaur egun, EAEn, % 19,6ko berrerotze-tasa dugu –lehen azterketan % 28,1ekoa izan zen, eta, bigarreanean % 21,8koa–.

Azkenik esan beharra dago berrerortzen diren adingabe arau-hausleen profil psikosozialari dagokionez, arrisku-aldagai handiagoa dutela, arau-hausleak ez diren neska-mutilek baino.

### 3.8 Gazte-justiziako joerak

Azkenik, EAEn gazte-justizian antzematen diren joera nagusiak honako hauek dira:

- I. Gauzatu beharreko neurriak nabarmen gutxitu dira 2010. urtetik, eta gaur egun mantendu egiten dira.
- II. Nesken taldeak gero eta protagonismo handiagoa du gazte-justiziaren sisteman.
- III. Nabarmen gutxitu da beste herrialde batzuetatik datozen adingabe arau-hausleen kopurua.
- IV. Nabarmen sendotu da ingurune irekiko esku-hartzeko eredia, askatasunaz gabetzeko neurrien aldean
- V. Arazo berriak agertzen dira: osasun mentala, gurasoen eta seme-alaben arteko eta bikote barneko indarkeria, epe luzeko neurriak, historia pertsonalean arrisku-faktore larriak dituzten pertsonak, askotan berrerortzea, etab.
- VI. Bitartekaritza-prozesuak judizioz kanpoko soluzio gisa jartzen dira adingabeekiko gatazketan.

- VII. Berrerortze-tasak behera egin du aurreko neurketen aldean, eta horrek esku hartzeko prozesuetan hobekuntza dakar.
- VIII. Gazte-justiziak esku-hartze handiagoa du nerabeen gatazketan (hutsegiteetan esku hartzea) EAEn beste autonomia-erkidego batzuetan baino.
- IX. Sailen eta erakundeen arteko jarduera-prozedura hobetzen da.
- X. Eta, azkenik, etengabeko prestakuntzarako eta prestakuntza espezializaturako beharra ikusten da, gazte-justiziarekin zerikusia duten profesionalentzat.

## 4. JUSTIZIA ZUZENDARITZAKO JUSTIZIA ZERBITZUAREN ESKARIARI BURUZKO ANALISIA (2013-2014)

2013. urtean, 2008-2012 Gazte Justiziako III. Planaren ekintzak luzatu dira; horien ebaluazioa aurreko atalean aurkeztu da. Hala ere, hura ezagutzeko eta aztertzeko, Justizia Zuzendaritzako Justizia Zerbitzuaren neurriei buruzko eskariari dagokion datu esanguratsuenak aurkeztu dira, 2013an eta 2014an.

### 4.1 Justizia Zuzendaritzako Justizia Zerbitzuaren datu orokorrak (2013-2014)

#### 4.1.1 Neurri irmoak eta kautelazkoak: Alderdi orokorrak

Atal honetan, 2013an eta 2014an Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia-erkidego batzuetako Justizia Zuzendaritzan sartu diren neurriei buruzko datuen laburpen txikia aurkezten da, Euskadin bizi diren adingabe eta gazteenak, 5/2000 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta gauzatzeko. Aipatu behar da kargu hartzeko, urruntze-aginduetako eta administrazio-izaerako neurriak –besteak beste, gidabaimenak eta armak–, berezko izaeragatik eta edukiagatik, ez zaizkiola Justizia Zuzendaritzari bidaltzen, neurriak gauzatzeko eskumena duen erakunde publiko den aldetik. Beraz, gauzatze materialaren eskumena Justizia Zuzendaritzari dagokion neurrien kasuak honako hauek dira:

- ✓ Gazte-justiziaren sareko hezkuntza-zentroetan gauzatzen diren neurriak: barneratze irmoak eta kautelazkoak, edozein erregimenetan eta modalitatetan; hezkuntza-taldearekiko bizikidetza, irmoak eta kautelazkoak; eta asteburuetako egonaldiak hezkuntza-zentroan.
- ✓ Ingurune irekiko zerbitzuetan eta eguneko zentroan gauzatzen diren neurriak: eguneko zentrorra joatea, tratamendu ambulatorioa, zaintzapeko askatasuna,

gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak, gizartearentzako lanak eta asteburuko egonaldiak etxebizitzan.

**Tabla 9.** Neurri irmo eta kautelazko neurrien kopurua, guztira (2013 eta 2014). Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

NEURRIA	2011	2012	2013	2014
Barneratzea	169 (% 15)	120 (% 13,2)	104 (% 13,6)	109 (% 14,5)
Hezkuntza-taldearekin elkarbizitza	8 (% 0,8)	7 (% 0,8)	4 (% 0,5)	2 (% 0,3)
Asteburuko egonaldiak	102 (% 9,1)	121 (% 13,3)	76 (% 9,9)	59 (% 7,8)
Eguneko zentrorra joatea	37 (% 3,2)	29 (% 3,2)	37 (% 4,8)	41 (% 5,4)
Tratamendu ambulatorioa	13 (% 1,1)	8 (% 0,9)	5 (% 0,7)	12 (% 1,6)
Zaintzapeko askatasuna	376 (% 33,4)	297 (% 32,5)	241 (% 31,5)	226 (% 30)
Zeregin sozioedukatiboak	137 (% 12,1)	101 (% 11)	116 (% 15,2)	127 (% 16,9)
Komunitatearen aldeko prestazioak	285 (% 25,3)	229 (% 25,1)	182 (% 23,8)	177 (% 23,5)
<b>NEURRI IRMOAK GUZTIRA</b>	<b>1.127 (% 100)</b>	<b>912 (% 100)</b>	<b>765 (% 100)</b>	<b>753 (% 100)</b>
Barneratzea	52 (% 54,2)	41 (% 51,3)	18 (% 58)	29 (% 50,9)
Zaintzapeko askatasuna	37 (% 38,5)	36 (% 45)	11 (% 35,5)	24 (% 42,1)
Hezkuntza-taldearekin elkarbizitza	7 (% 7,3)	3 (% 3,7)	2 (% 6,5)	4 (% 7)
<b>KAUTELA-NEURRIAK GUZTIRA</b>	<b>96 (% 100)</b>	<b>80 (% 100)</b>	<b>31 (% 100)</b>	<b>57 (% 100)</b>

<b>NEURRIAK GUZTIRA</b>	<b>1.223</b>	<b>992</b>	<b>796</b>	<b>810</b>
-------------------------	--------------	------------	------------	------------

X eta X tauletan jasotako datuak irakurrita nabarmendu dezakegu, neurri-kopuru osoaren (irmoak eta kautelazkoak) arabera, jarraitzen duela 2011. urtean hasitako beherazko joerak –1223 neurri– eta eutsi egiten zaiola beherakadari 2012an –992 neurri–. 2013an, neurrien beste beherakada esanguratsu bat egon zen, guztira, 796 neurri. 2014an, horiek pixka bat hasi badira ere, 810 guztira (aurreko urtean baino 14 gehiago), garrantzitsua da azpimarratzea kautelazkoak direla areagotu direnak (2013an 31 izatetik 2014an 57 izatera). Ordea, irmoek behera egin dute, 765etik 753ra.

Neurri bakoitza aztertuta, neurri irmoen taldean, ehunekoak aurreko urtearen oso antzera mantentzen dira, baina pixka bat handitzen dira barneratzekoak, eguneko zentrorra joatekoak, tratamendu ambulatorkoak eta gizarte- eta hezkuntza-zereginetakoak. Ordea, behera egin dute (oso gutxi) asteburuetako egonaldiek, asteburuetako bizikidetzek, zaintzapeko askatasunak eta gizartearentzako lanek. Kautela-neurriak direla eta, behera egin dute barneratze-neurriek eta gora egin dute zaintzapeko askatasunek eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetzek.

**Tabla 10.** Neurri irmoak eta kautelazkoak (2013 y 2014). Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

NEURRIA	2011	2012	2013	2014
<b><i>Neurri irmoak, guztira</i></b>	<b>1.127 (% 92,2)</b>	<b>912 (% 92)</b>	<b>765 (% 96,1)</b>	<b>753 (% 93)</b>
<b><i>Kautela-neurriak, guztira</i></b>	<b>96 (% 7,8)</b>	<b>80 (% 8)</b>	<b>31 (% 3,9)</b>	<b>57 (% 7)</b>
<b>NEURRIAK GUZTIRA</b>	<b>1.223 (% 100)</b>	<b>992 (% 100)</b>	<b>796 (% 100)</b>	<b>810 (% 00)</b>

#### 4.1.2 Kautela-neurriak

5/2000 Lege Organikoak, 28. artikuluan, adingabeen epaitegiek kautelaz ezar ditzaketen neurriak ezartzen ditu:

- Barneratzea (edozein erregimenetan).
- Zaintzapeko askatasuna.
- Beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin biziitzea
- Urruntzea.

Lau kautela-neurri horietatik, Eusko Jaurlaritzak, erakunde publikoa den aldetik, lehenengo hirurak gauzatzen ditu. Urruntzea polizia-kidegoek ikuskatu eta/edo kontrolatzen dute.

2013an eta 2014an, ikusi dugun bezala, 31 eta 57 kautela-neurri gauzatu dira, hurrenez hurren. 2013. urtean, horietako 18 barneratzeak izan dira, 11 zaintzapeko askatasunekoak eta 2 bizikidetzakoak. 2014an, 29 barneratzeak izan dira, 24 zaintzapeko askatasunekoak eta 4 bizikidetzakoak. Taulan ikusten den bezala, kautelazko gisa ezarritako neurri gehienak barneratze erdi irekikoak eta zaintzapeko askatasunekoak izan dira.

2013an, kautela-neurri gehienak mutilei ezarri zaizkie (% 90,3), horietako hiru izan ezik, zaintzapeko askatasunekoak, neskei ezarri baitzaizkie (% 9,7). 2014an, mutilei ezarritako kautela-neurrien ehunekoak behera egin du aurreko urtearen aldean (% 80,7). Neskek, bestalde, ehunekoa bikoiztu dute, 2013tik 2014ra, baina jarraitzen dute gutxiengoa izaten kautela-neurrietan.

2013an eta 2014an kautela-neurriak bete dituzten adingabeen jaioterria dela eta, hurrengo bi tauletan ikus daiteke 2014an % 35 atzerritarrak direla (aurreko urtean % 29) eta % 65 EAEn edo beste autonomia-erkidego batean jaio direla (2013an, ordea, % 71).

### 4.1.3 Neurri irmoak

5/2000 Lege Organikoaren 7. artikulua adingabeen epaileek neurri horien epaietan ezar ditzaketen neurrien katalogoa ezartzen du. Eusko Jaurlaritzak, erakunde publiko eskudun den aldetik, horien ardura hartzen du, dagokion Adingabeen Epaitegiak hala eskatuta.

Atal honetan, Justizia Zuzendaritzan sartu diren neurri irmoen analisia egingo dugu, 2013an eta 2014an gauzatzeko. Neurri horiek Bilboko 1 eta 2 zenbakiko Adingabeen Epaitegiak, Donostiakoak, Gasteizkoak eta beste autonomia-erkidego batzuetakoak eman dituzte, EAEn bizi diren adingabeen edo, salbuespen gisa, zenbait arazoirengatik, neurria ezarri ezin zelako beste autonomia-erkidego batzuetako adingabeen kasuan.

#### 4.1.3.1 *Neurri irmoak, sexuaren arabera*

2013ko neurri irmo guztietatik, 765, % 21,8, alegia, 167, neskei ezarri zaizkie. 2014an, 753 neurri irmo izan dira, eta, horietatik, beherakada egon da; izan ere, % 17,5 (132 neurri) neskei ezarri zaizkie. Hala ere, bi datu horiek 2008-2012 Planaren ebaluazioan lortutako batez bestekoa gainditzen dute –% 16,5 zen–, eta berriz ere egiaztatu da goranzko joera dagoela adingabeak protagonista diren delitu-egitateetan.

**Tabla 11.** Neurri irmoak, sexuaren arabera aplikatuta (2013 eta 2014). Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

NEURRIAK		2013an guztira		2014an guztira		
Barneratzea	Mutilak	88	104 (% 13,6)	Mutilak	99	109 (% 14,8)
	Neskak	16		Neskak	10	
Asteburuko egonaldiak	Mutilak	58	76 (% 9,9)	Mutilak	50	59 (% 7,8)
	Neskak	18		Neskak	9	
Hezkuntza-taldearekin elkarbizitza	Mutilak	3	4 (% 0,5)	Mutilak	2	2 (% 0,3)
	Neskak	1		Neskak	---	
Eguneko zentrora joatea	Mutilak	32	37 (% 4,9)	Mutilak	41	41 (% 5,4)
	Neskak	5		Neskak	---	
Tratamendu ambulatorioa	Mutilak	3	5 (% 0,6)	Mutilak	9	12 (% 1,6)
	Neskak	2		Neskak	3	
Zaintzapeko askatasuna	Mutilak	198	241 (% 31,5)	Mutilak	181	226 (% 30)
	Neskak	43		Neskak	45	
Zeregin sozioedukatiboak	Mutilak	87	116 (% 15,2)	Mutilak	98	127 (% 16,9)
	Neskak	29		Neskak	29	
Komunitatearen aldeko prestazioak	Mutilak	129	182 (% 23,8)	Mutilak	141	177 (% 23,5)
	Neskak	53		Neskak	36	
GUZTIRA	Mutilak	598 (% 78,2)	765 (% 100)	Mutilak	621 (% 82,5)	753 (% 100)
	Neskak	167 (% 21,8)		Neskak	132 (% 17,5)	



Bestalde, neurri bakoitza hartzen badugu kontuan, banaketa ez da homogenea mutilen eta nesken artean 2013an, hurrengo grafikoan ikusten den bezala. Barneratzeak (% 15,4) eta eguneko zentroetara bertaratzeak (% 13,5) ez dira ohiko neurriak nesken artean, ordea, gizartearentzako lanak (% 29,1) edo tratamendu ambulatorioa (% 40) neurri ohikoagoak dira.

2014an, bizikidetzaz-neurririk eta eguneko zentrora bertaratzeko neurririk ez dago nesken kasuan. Gainera, barneratzeak (% 9) eta asteburuetakoko egonaldiak (% 15) ere oso gutxi dira.

#### *4.1.3.2 Neurri irmoak, jaioterriaren arabera aplikatuta*

Jaioterria dela eta, esan daiteke 2013an ezarritako neurri irmo guztietatik % 69,3 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotzea, eta % 30,7 atzerrian. Datu hori 2008-2012 aldiari dagokion adingabe atzerritarren batez bestekoa baino baxuagoa da; % 36,9 izan zen orduan. Adingabe-talde bakoitza aztertuta eta batez bestekoarekin erkatuta, aldi berean, ikusten da EAEn jaiotzea den neska-mutilen taldeak gora egin duela (% 56,3tik % 62,2ra) bai eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotzeak (% 6,8tik % 7ra), Latinoamerikan jaiotzeak (% 11,1etik % 14,6ra) eta Europan jaiotzeak ere (% 2,9tik % 4,6ra). Ordea, beherakada handia izan du kolektibo magrebtarrak (% 18,3tik % 8,6ra) eta beste batzuen taldeak (% 4,6tik % 3ra).

2014an, EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotzeko adingabeen proportzioa eta atzerritarrena aztertzen badugu neurri bakoitzean, ikusten da atzerritarren ehunetik txikiena tratamendu ambulatorioan (% 16,7) dagoela eta handiena, asteburuetakoko egonaldietan (% 44). Alde batera uzten dugu hezkuntza-taldearekiko bizikidetzaren neurria; bertan, bi atzerritar baino ez daude neurri irmoen taldean.

**Tabla 12.** EAEn, beste autonomia-erkidego batzuetan eta gainerako herrialdeetan jaiotako adingabeei 2013an eta 2014an ezarritako neurri irmoak, neurri motaren arabera. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

NEURRIA	EAE + gainerako AUTONOMIA ERKIDEGOAK		Gainerako herrialdeak		GUZTIRA	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014
<b>Barneratzea</b>	68 (% 65,4)	68 (% 62,4)	36 (% 34,6)	41 (% 37,6)	<b>104</b> <b>(% 100)</b>	<b>109</b> <b>(% 100)</b>
<b>Bizkidetza</b>	2 (% 50)	---	2 (% 50)	2 (% 100)	<b>4</b> <b>(% 100)</b>	<b>2</b> <b>(% 100)</b>
<b>Asteburuko egonaldiak</b>	50 (% 65,8)	33 (% 56)	26 (% 34,2)	26 (% 44)	<b>76</b> <b>(% 100)</b>	<b>59</b> <b>(% 100)</b>
<b>Eguneko zentrora joatea</b>	28 (% 75,7)	28 (% 68,3)	9 (% 24,3)	13 (% 31,7)	<b>37</b> <b>(% 100)</b>	<b>41</b> <b>(% 100)</b>
<b>Tratamendu ambulatorioa</b>	3 (% 60)	10 (% 83,3)	2 (% 40)	2 (% 16,7)	<b>5</b> <b>(% 100)</b>	<b>12</b> <b>(% 100)</b>
<b>Zaintzapeko askatasuna</b>	175 (% 72,6)	160 (% 70,8)	66 (% 27,4)	66 (% 29,2)	<b>241</b> <b>(% 100)</b>	<b>226</b> <b>(% 100)</b>
<b>Zeregin sozioedukatioak</b>	73 (% 63)	93 (% 73,2)	43 (% 37)	34 (% 26,8)	<b>116</b> <b>(% 100)</b>	<b>127</b> <b>(% 100)</b>
<b>Komunitatearen aldeko prestazioak</b>	131 (% 72)	117 (% 66,1)	51 (% 28)	60 (% 33,9)	<b>182</b> <b>(% 100)</b>	<b>177</b> <b>(% 100)</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>530</b> <b>(% 69,3)</b>	<b>508</b> <b>(% 67,5)</b>	<b>235</b> <b>(% 30,7)</b>	<b>245</b> <b>(% 32,5)</b>	<b>765</b> <b>(% 100)</b>	<b>753</b> <b>(% 100)</b>

#### 4.1.3.3 *Neurri irmoak, delitu-egitateen arabera aplikatuta*

XX taulatik, egiten diren egitate motaren inguruko informazio esanguratsua eta neska-mutilei 2013an gauzatutako egitate horien aurrean ematen zaien zigorerantzunaren inguruko informazioa ateratzen da. Lehenengo eta behin, adingabeek mota ugariako delitu-egitateak gauzatzen dituzte, eta horrek dakar horiek guztiak, nolabait ere, mugatu behar izatea; horrela, sarrien agertzen diren 11 gertakarien inguruko informazioa batuta, "beste batzuk" kategoriak du egitate guztien % 14,2.

Bestalde, lesioak dira sarrien agertzen diren gertakarien kategoria (gutzizkoaren % 18), eta horren zigorerantzuna, batez ere, erregimen irekiko neurrietan oinarritzen da (funtsean, zaintzapeko askatasuna, gizarte- eta hezkuntza-zereginak eta gizartearentzako lanak). Bigarrenik, indarkeriaz eta/edo larderiez baliatuta egindako lapurretan gutzizkoaren % 17 dira, eta gehienetan hezkuntza-zentroan betetzeko neurrien bidez erantzuten zaie. Ebasketak (% 15) eta indarraren bidezko lapurretak (% 10,4) erregimen irekian agertzen dira, batez ere. Gainerako egitateak % 7 dira, bakoitza.

2014an –datuak XXX taulan ikus daitezke–, adingabeek mota ugariako delitu-egitateak gauzatu dituzte, eta "beste batzuk" kategoriak du egitate guztien % 15,3. Bestalde, lesioak dira sarrien agertzen diren gertakarien kategoria (gutzizkoaren % 16,2), eta horren zigorerantzuna, batez ere, erregimen irekiko neurrietan oinarritzen da (funtsean, zaintzapeko askatasuna, gizarte- eta hezkuntza-zereginak eta gizartearentzako lanak). Bigarrenik, indarkeriaz eta/edo larderiez baliatuta egindako lapurretak gutzizkoaren % 15,7 dira, eta, gero, indarkeriaz baliatuta egindako lapurretak (% 15,4) gehienetan hezkuntza-zentroan betetzeko neurrien bidez erantzuten zaie. Ebasketak (% 13,5) 2014an gauzatutako delitu-egitaterik ohikoenak dira adingabeen artean.

#### 4.1.3.4 *Neurri irmoa: Barneratzeak*

Barneratze-neurriak 104 izan dira 2013an, % 13,6, guztira. 2014an, barneratze-neurriak 109 izan dira, % 14,5, guztira.

Horietatik erdiak baino gehiagok (% 52 2013an eta % 57,7 2014an) 6 eta 12 hilabete bitarteko iraupena dute. Hiru hilabete baino gutxiagoko aldiak ezartzen diren barneratze-neurriak % 4 baino ez dira 2013an eta % 3,7, 2014an. Oso epe luzekoak, urte eta erdi baino gehiagokoak, 2013an ezarritako barneratze-neurrien % 16,2 dira, guztira, eta, 2014an, % 12.

Gehienetan, mutilei ezartzen zaizkie.

Barneratze-neurrietan epaitegien banaketari dagokionez, alde esanguratsuak daude bi urte horietan. Barneratze-neurrien pisu handiena Donostiako Epaitegian ezarri da (2013an barneratze-neurri guztien % 40 eta 2014an % 38), baina, 1 eta 2 zenbakiko Bilboko Epaitegietan ezarritako barneratzeak gehitzen baditugu, 2013an ezarritako guztien % 43 dira eta 2014an % 66.

#### **4.1.3.5 Neurri irmoa: Asteburuko egonaldia**

Asteburuan hezkuntza-taldean egoteko neurria asteburuetan neurtzen da. 2013an, horietako gehienek (% 55,2) 2 asteburu irauten dute, eta, ondoren % 32,9k (25 neurri), 3 eta 4 asteburu bitartean. 2014an, horietako gehienek (% 42,4) 3 eta 4 asteburu irauten dute, eta, ondoren % 40,6k (24 neurri) iraupen laburragoa dute, 1 eta 2 asteburu bitartean. Alegia, asteburuetako egonaldiaren neurri guztien % 88,1ek 2013an eta % 83k 2014an gehienez 4 asteburutako iraupena dute; ehuneko horrek gainditu egiten du iraupenaren batez bestekoa 2008-2012 aldian, ordukoa % 72,2 zela kontuan hartuta.

Euskadiko lau epaitegien arteko banaketa hurrengo grafikoan agertzen da; bertan, 2013an Gasteizko Epaitegia (% 32) da nabaria, eta gero Donostiakoa (% 29). 2014an, Donostiako Epaitegia da nabaria, neurri hori gehien ezartzen duena baita – % 54–, eta, gero, Bilbokoa, baina alde handiarekin –% 17–eta Gasteizkoa (% 13).

#### **4.1.3.6** *Neurri irmoa: Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza*

Hezkuntza-taldearekiko bizikidetza dela eta, ezer gutxi gehiago esan dezakegu, 2013. urte osoan lau neurri irmo ezarri direla baino ez. Horietako bi Gasteizko Epaitegian, bat Bilboko 2 zenbakiko Epaitegian eta beste bat EAetik kanpoko epaitegi batetik datorrena. Neurrietako batek sei hilabetetik beherako iraupena du; bik sei hilabete eta urtebete arteko iraupena dute; eta bakarra dago 450 egunetik gorako iraupena duena. 2014an, datu gutxiago ditugu; izan ere, bi neurri irmo baino ez dira ezarri 2014an. Bat Bilboko 2 zenbakiko Epaitegikoa, mutil bati, 361 eta 450 egun bitartean, eta bestea, Gasteizen, beste mutil bati, 271 eta 360 egun bitartean.

#### **4.1.3.7** *Neurri irmoa: Eguneko zentrora joatea*

Eguneko zentrora joateko neurriak direla eta, 2013an, gehienak 200 eta 300 egun bitartekoak izan dira, gutxi gorabehera, 7 eta 10 hilabete bitartean (% 40,5 2013an eta % 48, 2014an), eta, jarraian, 101 eta 200 egun bitarteko iraupena duten neurrien taldea dago. Bi kategoria goriek eguneko zentrora joateko neurri guztien % 75,6 da 2013an eta % 85,4, 2014an.

EAEko epaitegien arteko banaketa da hurrengo grafikoan ikusiko duguna. Donostiako Epaitegia da 2013an neurri hori gehien erabiltzen duena, eta bikoiztu egiten ditu Bilboko 1 zenbakiko eta Gasteizko Epaitegiak. Bilboko 2 zenbakiko Epaitegiak 2013an gauzatu diren 37 neurrietatik 3 baino ez ditu ezarri. 2014an, Donostiako eta Bilboko 1 zenbakiko Epaitegiak dira neurri gehien erabili dutenak (% 32, hurrenez hurren). Gasteizko Epaitegiak 5 aldiz baino ez du ezarri 41 neurrietatik.

#### **4.1.3.8** *Neurri irmoa: Tratamendu ambulatorioa*

Tratamendu ambulatorioaren neurria ez da oso ohikoa EAEko Epaitegietan. Bost aldiz baino ez da ezarri 2013. urtean; Bilboko 2 zenbakiko Epaitegia da neurri hori gehien erabili duena (bost kasutatik lautan). 2014an, 12 aldiz ezarri da, eta Bilboko 1 zenbakiko Epaitegiak erabili du horien erdian. Era berean, horien iraupena 5 eta 15

hilabeteen artekoa izan da; ez da ezarri bat ere hilabete-kopuru hori baino iraupen laburragoaz edo luzeagoaz 2013an eta 2014an; bik baino ez dute izan 5 hilabetetik beherako iraupena, guztiak Bilboko 1 zenbakiko Epaitegian. Daukagun tratamendu ambulatorioko neurri-kopuru txikia kontuan hartuta, ezin dugu erkaketarik egin epaitegien artean.

#### **4.1.3.9** *Neurri irmoa: Zaintzapeko askatasuna*

Hurrengo tauletan ikusten dugunez, zaintzapeko askatasunaren neurri gehienek tarteko iraunaldia dute, 90 eta 180 egun bitartekoa (% 41,6 2013an eta % 45,6 2014an), eta, ondoren, 181 eta 270 egun bitarteko tartea (% 23,6 2013an eta % 27 2014an). Zaintzapeko askatasunaren neurrien % 9,1ek baino ez du gainditzen urtebeteko iraupena 2013an, eta % 6,2k, 2014an.

Kontuan hartuta epaitegiek neurri honen inguruan egiten duten aplikazioa, X grafikoan ikusten da aldaketak egon direla neurri honetan. 2008-2012 Planaren ebaluazioan eskuratutako batez bestekoari dagokionez. Horrela ikusten da Donostiako Epaitegiak neurri horren ezarpena areagotu egin duela, % 21etik % 29ra 2013an, % 40ra 2014an, Gasteiz bezala, % 10etik % 15era areagotu duena. 2014an, ordea, ehuneko hori % 9ra jaitsi da. Behera egin duten epaitegiak Bilboko 1 zenbakikoa (% 32tik % 23ra 2013an eta % 21era 2014an) eta 2 zenbakikoa (% 37tik % 29ra 2013an eta % 22ra 2014an) izan dira.

#### **4.1.3.10** *Neurri irmoa: Gizarte- eta hezkuntza-zereginak*

Gizarte- eta hezkuntza-zereginen neurria 116 aldiz ezarri da 2013an eta 127 aldiz 2014an; epaitegien arteko banaketa nahiko homogeneoa izan da. Era berean, horietako gehienek sei hilabetetik behera iraun dute (% 78,4 2013an eta % 78,1 2014an). Bi kontu horiek bat datoz neurri horri buruzko datuekin Justizia Zuzendaritzaren 2008-2012 Planaren ebaluazioan.

Epaitegien arteko banaketa dela eta, bai 2013an, bai 2014an ikusten da neurri horren aplikagarritasunaren proportzioa nahiko berdina dela lau epaitegietan.

#### **4.1.3.11 Neurri irmoa: Gizartearentzako lanak**

Azkenik, gizartearentzako lanak hurrengo taula hauetan agertzen da. Iraupena orduetan adierazten duen neurri bakarra da eta, ikusten denez, horien erdiak (% 49,5 2013an eta % 45,7 2014an) iraupen laburra du, 21 eta 40 ordu bitartean. 2013an, % 3,2k baino ez du 60 orduetik gorako iraupena eta, 2014an, ehuneko hori % 8,6ra iristen da.

Epaitegien arteko banaketa dela eta, 2013an, Gasteizko Epaitegia da, % 28an, neurri hori gehien ezartzen duena, eta, gero, Donostiakoa, % 26an. Donostiako eta Bilboko (1 eta 2 zenbakikoak) Epaitegiek ehunekoak gutxitu dituzte, 2008-2012 Planaren Ebaluazioan lortutako batez bestekoaren aldean, eta areagotu Gasteizko Epaitegian, % 20tik % 28ra. 2014an, ordea, Gasteizko Epaitegia da, % 28an, neurri hori gehien ezartzen duena, eta, gero, Donostiakoa, % 26an. Donostiako eta Bilboko (1 eta 2 zenbakikoak) Epaitegiek ehunekoak gutxitu dituzte, 2008-2012 Planaren Ebaluazioan lortutako batez bestekoaren aldean, eta areagotu Gasteizko Epaitegian, % 20tik % 28ra.

## **4.2 Neurriak gauzatzeko baliabideak: Egoitza-zerbitzuak eta ingurune irekiko zerbitzuak (2013-2014)**

Adingabeen jurisdikzioan ezarritako neurriak gauzatzeko, edozein nerabek edo gaztek gure erkidegoan eskura dituen baliabide ia guztiak erabiltzen dira. Hezkuntza-sareko zerbitzuez dihardugu, osasun-zerbitzuez, enplegura jotzeko zerbitzuez, enplegu-zerbitzuez, prestakuntza, aisia eta denbora sozialen denboraren zerbitzuez, haurrak babesteko zerbitzu eta programez eta abar.

Zerbitzu komun horiez gainera, Euskadin badaude berariazko baliabide batzuk, neurri judizialak betetzeko. Horiek, eskematikoki, bi kategoriatan azpisailka ditzakegu:

- A. Egoitza-zerbitzuak = Gazte-justiziako hezkuntza-zentroen sarea
- B. Ingurune irekiko zerbitzuak.

#### 4.2.1 Egoitza-zerbitzuak

Gazte-justiziako hezkuntza-zentroen sarea zentro espezifikoek osatzen dute; horietan, espezializatutako langileek dihardute, gazteak hartzen. Gazteok, hain zuzen, neurri irmoren edo kautela-neurriren bat bete behar dute: barneratzeak –nolanahikoa dela ere erregimena–, komunitatearen aldeko prestazioak, eta, salbuespenez, hezkuntza-taldeko bizikidetzak.

**Tabla 13.** Gazte-justiziako hezkuntza-zentroen sarea, 2013an eta 2014an. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

MAILA	ZENTROA	PLAZAK LIBRE 2013AN	PLAZAK LIBRE 2014AN
I	IBAIONDO Hezkuntza Zentroa (mutilak)	39	39
II	URIBARRI Hezkuntza Zentroa (mutilak)	16	8
	URGOZO Hezkuntza Zentroa (mutilak)	10	10
	ANDOIU/GORBEIA Hezkuntza Zentroa (neskak)	15	15
	TXEMA FÍNEZ Hezkuntza Zentroa (mutilak)	10	11
III	DONOSTIAko autonomia-egoitza (mutilak)	4	---
	GASTEIZko autonomia-egoitza (neskak)	4	---
	BILBOko autonomia-egoitza (mistoa)	6	6
	<b>GUZTIRA:</b>	<b>104</b>	<b>89</b>

Planean ezarritakoarekin bat, zentro horiek hiru mailatan sailkatu beharko lirateke: I, II eta III. Modu sinplifikatuan esan dezakegu I. mailako zentroak erantzukizuneko eta



kudeaketa publikoko zentroak direla eta, horietan, eskubideen neurri murriztaileenak eta iraupen luzeena dutenak betetzen direla. II. mailakoak erantzukizun publikoko eta kudeaketa publikoko zentroak dira, irabazi-asmorik gabeko erakunde batekin itunduak, tamaina txikikoak, eta, horietan, erregimen erdi irekiko eta irekiko neurriak betetzen dira, edo epe laburrekoak itxian. III. mailakoak, "autonomia-egoitzak", oso tamaina txikikoak dira, gehienez 6 plazakoak, erkidegoan erabat integratuta, erregimen irekiko edo erdi irekiko azken barneratze-faseak betetzeko.

**Tabla 14.** Gazte-justiziako hezkuntza-zentroetako plantilla, 2013an eta 2014an. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

ZENTROA	ZUZENDARITZA		KOORDINATZAILE TEKNIKOAK		HEZITZAI-LEAK		IRAKASLEAK		ZERBITZUAK ETA ADMINISTRAZIOA	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
HZ IBAIONDO	3	5	9	9	50	50	13	13	2	1
HZ URIBARRI	2	1	3	2	17	11	3	2	3	2
HZ URGOZO	1	1	2	2	12	12	3	3	0	---
HZ ANDOIU/GORBEIA	2	1	3	3	27	20	3	3	2	2
HZ TXEMA FÍNEZ	1	1	2	2	12	12	3	3	1	1
EI DONOSTIA 2	0	---	0	---	0	---	0	---	0	---
EI GASTEIZ <sup>21</sup>	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
EI BILBO	0	---	1	1	7	7	0	---	0	---
<b>GUZTIRA:</b>	<b>9</b>	<b>9</b>	<b>21</b>	<b>19</b>	<b>130</b>	<b>112</b>	<b>25</b>	<b>24</b>	<b>8</b>	<b>6</b>

Plantillen inguruko taulak erakusten duenez, gazte-justiziako hezkuntza-zentroetan lan egiten dutenak, gehienak, hezitzaileak dira. Pertsona horiek, txandaka,

<sup>21</sup> Langileak Andoiu/Gorbeia zentroan sartzen dira.

zentroko mutilekin eta neskekin bizi dira urteko egun guztietan, eguneko 24 orduetan, «eguneroko bizitza»rako espazio deitzen duten eremuan. Bigarren taldea "ikasgela" eta "tailer"rez arduratzen diren pertsonak osatzen dute, alegia, zentroko prestakuntzaz arduratzen direnek. Hirugarren taldea eguneroko bizitzako taldeak koordinatzeko funtzioak betetzen dituzten pertsonak eta esku-hartze soziofamiliarreko eta psikologikoko arloetan esku hartzen duten teknikariek osatzen dute. Jarraian zerbitzu eta administrazioko funtzioak betetzen dituztenak daude.

Zuzeneko jarduketako langileez gainera, I. eta II. mailako zentro batzuek hezkuntza-taldeei laguntza emateko segurtasuneko langileak dituzte.

#### 4.2.2 Ingurune irekiko zerbitzuak

Zerbitzu hauen barruan, eguneko zentroak daude (eguneko zentroei laguntza emateko neurriak betetzeko) eta ingurune irekiko taldeak (zaintzapeko askatasunak betetzeko, gizarte- eta hezkuntza-zereginak betetzeko, gizartearentzako lanak egiteko, tratamendu ambulatorioetarako eta asteburuak etxean egiteko).

**Tabla 15.** Ingurune irekiko zerbitzuetako plantilla. Egilea: Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritza

ZERBITZUAK	2013	2014
INGURUNE IREKIA BIZKAIA	14	14
INGURUNE IREKIA GIPUZKOA	8	8
INGURUNE IREKIA ARABA	4	4
BIZKAIKO EGUNEKO ZENTROA	7	7
GIPUZKOAKO EGUNEKO ZENTROA	4	6
ARABAKO EGUNEKO ZENTROA	2	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>37<sup>22</sup></b>	<b>41<sup>23</sup></b>

<sup>22</sup> Nahiz eta 39 diren ingurune irekiko zerbitzuen plantilla gisa dagoen kopurua, 37 adierazten dira, Arabako eguneko zentroko langileak Uribarri hezkuntza-zentroaren barruan baitaude.

<sup>23</sup> Idem. 2014an 41 dira, baina 39 adierazi dira, arrazoi beragatik.

Ingurune irekiko zerbitzuak hezitzaileek eta tailerreko irakasleek osatzen dituzte. Pertsona horiek dira ingurune irekiko neurriak gauzatzearekin zuzenean arduratzen direnak, neska-mutil bakoitzarekiko hezkuntza-harreman pertsonalaren eta ingurunearen bidez.

### 4.3 Gazte-justiziako neurrien eskariaren ondorioak (2013-2014).

Aurreko atalak laburbiltzeko, urte bakoitzetik lortzen diren ondorio nagusiak honako hauek dira:

#### 2013

- 796 neurri gauzatzeko eskatu da. Horietatik, 31 (% 3,9) kautelazkoak izan dira eta 765 (% 96,1) irmoak.
- 31 kautela-neurrietatik, 18 barneratzekoak izan dira, 11 zaintzapeko askatasunekoak eta 2 bizikidetzakoak. Horietatik 28 mutili ezarri zitzaizkien (% 90,3) eta 3 neskei (% 9,7). Kautela-neurriak aplikatu zaizkien pertsonen nazionalitateari bagagozkio, ikusi da neurrien % 71 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako pertsoneri ezarri zitzaizkiela, eta % 29 atzerritarren sektoreari dagokienei.
- Neurri irmoak direla eta (765), 167 (% 21,8) neskei ezarri zaizkie eta 598 (% 78,2) mutili.
- Neurri irmo gehienak zaintzapeko askatasunekoak dira (241 neurri, % 31,5), gizartearentzako lanekoak (182 neurri, % 23,8), gizarte- eta hezkuntza-zereginetakoak (116 neurri, % 15,2) eta barneratzekoak (104 neurri, % 13,6). Gutxien ezarri diren neurriak asteburuetako egonaldietakoak dira (76 neurri, % 9,9), eguneko zentroetara joatekoak (37 neurri, % 4,8), tratamendu ambulatorkoak (5 neurri, % 0,7) eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetzakoak (4 neurri, % 0,5).

- Neurri irmoak aplikatu zaizkien pertsonen nazionalitateari bagagozkio, % 69,3 Euskadin edo estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak dira, eta % 30,7 atzerrian.

**2014**

- 810 neurri gauzatzeko eskatu da. Horietatik, 57 (% 7) kautelazkoak izan dira eta 753 (% 93) irmoak.
- 57 kautela-neurrietatik, 29 barneratzekoak izan dira, 24 zaintzapeko askatasunekoak eta 4 bizikidetzakoak. Gehienak mutilei ezarri zaizkie (% 80,7) eta 11 neskei (% 19,3). Kautela-neurrien ezarpenaren helburu izan diren pertsonen nazionalitatea dela eta ikusi da neurrien % 65 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako pertsonen ezarri zitzazkiela, eta % 35 atzerritarrei.
- Neurri irmoak direla eta (753), 132 (% 17,5) neskei ezarri zaizkie eta 621 (% 82,5) mutilei.
- Gehien ezarritako neurriak zaintzapeko askatasunekoak izan ziren: 226 neurri (% 30), gizartearentzako lanak: 177 neurri (% 23,5), gizarte- eta hezkuntza-zereginak: 127 neurri (% 16,9), barneratzeak: 109 neurri (% 14,8). Gainerako neurriek ez dute oso presentzia esanguratsurik: Asteburuetakako egonaldia (59 neurri, % 7,8), eguneko zentrorra joatea: 41 neurri (% 5,4), tratamendu anbulatorioa: 12 neurri (% 1,6) (9 mutilei eta 3 neskei) eta hezkuntza-taldearekiko bizikidetzak: 2 neurri (% 0,3).
- Neurri irmoak aplikatu zaizkien pertsonen nazionalitateari bagagozkio, % 67,5 Euskadin edo estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak dira, eta % 32,5, atzerrian.

## 5. INKARDINAZIOA JAURLARITZAREN PLANGINTZA OROKORREAN

2014-2018 Gazte Justiziako IV. Plan honen Gobernu Programak oinarritzko hiru konpromiso ditu: Enplegua eta pertsonak; bakea eta bizikidetzak; eta Euskadirako estatus politiko berria. Lehen konpromisoaren barruan, enplegua eta pertsonak, zenbait arlo ditugu gazte-justiziarekin zuzenean lotuta daudenak, baina oinarritzkoena 28. arloa da (Justizia modernoa), eta zortzi helburu ditu, baina 5. helburua da nabarmenena: Adingabe arau-hausleak birtxertatzeko eta birgizarteratzeko arloan aurrera egitea.

Zehazki, Herri Administrazio eta Justizia Sailean kokatzen da helburu hau. Horrek, aldi berean, sei ekimen ditu:

- Erkidegoko gazte-justiziako zentro bakoitzean hezkuntza-proiektuak egin daitezela sustatzea.
- Gazte Justiziako IV. Plana egin dadin sustatzea, funtsean berrerortzeko maila hobetzeko eta murrizteko, aurreko planaren aurretiko ebaluazioa egin ondoren.
- Laguntzarik gabeko atzerritar adingabeei dagokienez erakundearteko lankidetzak sustatzea.
- Buru-nahasmenduak dauzkaten gazte arau-hausleen barneratzerako eta tratamendu terapeutikorako neurrien ezarpena bultzatzea.
- Atzerritar adingabearen doako laguntza juridikoa ematea eginbideen hasieratik, adina zehazteko, doako laguntza juridikoa arautzen duen dekretuaren aldaketa sustatuz.
- Adingabeekin bitartekaritza-zerbitzu intrajudizialak sustatzea.

Bestalde, zehaztasunerako asmorik gabe, gaur egun indarrean dauden sailen plan ugari dugu, eta horiek, zuzenago ala zeharkago, Gazte Justizian IV. Planean dute eragina edo, beste modu batera esanda, planaren helburu diren pertsonetan.

Indarrean dauden plan horien artean honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Plana. Bertan, plan honi buruzko berariazko ekintzak jasotzen dira, bai 2014koak, bai 2015ekoak.
- Gida-plana, hezkuntza-sisteman baterako hezkuntza eta indarkeriaren prebentzioa lantzeko. Ekimen honen garrantzia, prebentziorako duen balioa kontuan hartuta, oinarrizkoa da. III. Planaren bilakaeran jasotako joeretan, genero-indarkeriarekin lotutako delituen areagotzea agertzen da. Eskola-sistematik prebentzios jarduteak, kontratu honetan, gaitz honen eragina gutxitzea ekarriko du.
- Hezkuntzan Jarduteko Plana ikasle atzerritarrentzat. Gazte-justiziaren sistemara jotzen duten pertsonen % 30 baino gehiago atzerritarrak dira eta eskola-defizit garrantzitsuak dauzkate. Eskola integraziorako lehen mailako espazio gisa aurkezten da, legearekin gatazkan dauden pertsonentzat.
- Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana. Ijito batzuk, zailtasun sozialeko errealitateak, harremanetan daude gazte-justiziarekin, eta horietako asko ez daude eskolatuta. Eskola-sistema inklusiboa, pertsona horien errealitateari irekia eta horiekin inplikaturik dagoena beharrezkoa da arrakasta sozialerako eta pertsonalerako.
- Beste plan batzuek, besteak beste, boluntariora, immigrazio, herritar eta kulturarteko bizikidetzaren 2014-2016 planak eta 2012-2016 Inklusio Aktiboko III. Euskal Planak, ekintzak dakartzate eta horiek, zuzenean edo zeharka, gazte-justiziarekin harremanetan dauden pertsonengan dute eragina.

Aipatutakoez gainera, Euskadiko Adikzio Planak laguntza-tresna izan behar du eremu honetan lanean ari diren pertsonen eguneroko bizitzan. Gure lanaren helburu diren adingabe askok kontsumo arazotsuak dituzte eta horiek eragina dute beren egunerokotasunean, beren harremanetan eta, sarri askotan, delituak egitearekin lotuta daude. 5/2000 Lege Organikoak, neurrien katalogoan, "edari alkoholduen, droga toxikoen edo substantzia psicotropikoen kontsumoaren adikzioa"rekin zerikusia duten neurri batzuk jasotzen ditu, barneratze terapeutikoez eta tratamendu anbulatorioez ari gara.

Adingabeen magistratu guztiek jasotzen dute beren epaietan errealitate hori, esku hartzeko planak egiten parte hartzen duten pertsona guztiek daukate hori kontuan eta kontsumoa prebenitzeko, kontsumo arazotsuak murrizteko/ezabatze eta, batzuetan, adikzioak tratatzeko baliabide espezializatuetan laguntzeko jarduketak planteatzen dituzte.

Gazte-justiziako lanak arrakasta izateko, neska-mutilak bizi diren erkidegoan/ingurunean beharrezko baliabideek egon behar dute (hezkuntzakoak, osasunekoak, aisiakoak eta aisialdikoak, diru-sarreraren bermekoak, aniztasunari laguntzekoak, enplegu eta prestakuntzakoak, etxebizitzakoak, gizarte-babesekoak etab.), beharrei erantzuteko.

Ia beti, eremu honetan lanean dihardutenen zeregina da neska-mutil horiei arreta emateko erkidegoko baliabideetara sarbidea ematea, bitartekaritza-lanak egitea... eta hurbilketa horrek arrakasta izatea.

Azken batean, kontua da pertsona batek ere ez edo ia inork ez, adingabea edo gaztea izan, justiziaren administrazioaren baliabide espezifikoak behar izatea, hazteko.

Ildo estrategikoetan adierazten den bezala, erakundearteko eta sailarteko lana plan honen arrakastaren oinarrietako bat da. Justizia-arloan eskumena duen sailari dagokio zenbait arlotan, besteak beste, osasunean, hezkuntzan, gizarte-gaietan, enpleguan, segurtasunean... eskumena duten sailak eragile nagusi diren lankidetzako ekimena eta lidergo-lana.

Era berean, mundu juridikoko beste instantzia batzuen erantzunkidetasuna – besteak beste, fiskaltzak eta adingabeen epaitegiak–, plan honen xedeekin, erabakigarria da.

## 6. GAZTEEN JUSTIZIAREN PRINTZPIOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Gazte-justiziaren jardun-eremuak ez ditu hartzen Euskal Autonomia Erkidegoan erregularatasunez edo aldi baterako bizi diren nerabe edo gazte guztiak. Oso talde mugatura bideratuta daude. Talde horien ezaugarriak honako hauek dira:

- Hamalau urtetik gora dituzte eta hemezortzitik behera.
- Adin-tarte horretan, zigor-legeekin bat, hutsa edo delitua dakartzan jokabideren bat izan dute.
- Fiskaltzekin eta adingabeen epaitegiekin harremanetan egon dira, aurretik jarritako salaketa baten bidez.
- Zehapen- eta hezkuntza-erantzunen bat jasotzen dute.

Zehaztu behar da gazte-justiziatik esku hartzen hasten dela zigor-arloan tipifikatuta dauden egitateengatik, pertsona adingabea denean, baina esku-hartzea adin-nagusitasuna (hemezortzi urtetan ezarria) beteta ere luza daiteke. Zigor-erantzukizunean adingabe gisa tratatzen da, baina, gainerako jarduketetan, heldu gisa.

Garatu beharreko jarduketa ororen abiapuntua eta erreferentzia-puntua pertsona horien nerabe-izaera da.

Eremu guztietan –psikologikoa, afektiboa, emozionala, soziala, familiarra, prestakuntzakoa, biologikoa etab.– aldaketez beteriko bizitzako aldi batean daude, helduaren bizitzara igarotzeko aldian, etengabe bilakatzen ari den errealitate batean sartuta, non gatazka, ingurunearekiko eta helduen munduarekiko konfrontazioa eta bere izaera banaezinak diren.

Errealitate horretatik abiatuta baino ez du zentzua gazte-justiziaren esku-hartzeak eta, batez ere, eraginkorra izan daiteke. Horretarako, martxan jartzen diren erantzunek zehatzak eta pertsona horientzat diseinatuak izan behar dute eta, beraz, helduentzat ezarritakoez bestelakoak. Zenbait kontzeptuk, besteak beste, sormenak,



dinamismoak, zentzuaren bilaketak, efikaziak eta arrakastak, pertsonaren eta bere ingurunearen eraldaketak, segurtasunak, aniztasunak eta berdintasunak eta abar eratzten dute ereduaren ADNan.

Jarraian garatzen diren printzipioak azken urteotan lortutako esperientziaren emaitza dira, beste arrakasta-eredu batzuekiko konfrontazioarenak, gazte-justiziaren eremuan ez ezik, hezkuntzaren eta esku-hartzearen mundu guztian, indarrean dagoen antolamendu juridikoaren ahalmenen azterketa eta sakontasunean –bai barnekoa, bai nazioartekoa–; azken urteotan nazioarte mailan egindako azterketa eta ebaluazioenak; eta, batez ere, egunero Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-justiziarekin harremanetan jartzen diren nerabeekiko eguneroko harremanarenak.

**Nazioarteko funtsezko araudi eta gomendioen** artean, honako hauek aipatu behar dira: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989ko azaroaren 20an Nazio Batuen Batzar Nagusiak emana eta 1990eko azaroaren 30ean Espainiak berretsia; Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1985eko azaroaren 29ko 40/33 Ebazpena, Adingabeen Justizia Administrazioarako Gutxieneko Arauak onartzen dituenak (Beijingo Arauak); Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 45/113 Ebazpena, askatasuna kentzen ez duten neurriei buruzkoa (Tokioko Arauak); Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 45/113 Ebazpena, gazte-delinkuentziaren prebentzioari buruzkoa (Riadeko Zuzentarauak); Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 45/113 Ebazpena, askatasuna kendu zaien adingabeak babesteko.

Europako eremuan: Europako Kontseiluaren Ministro Batzordearen R (87)20 zenbakiko Gomendia, irailaren 17koa, gazte-delinkuentziaren aurreko gizarte-erreakzioei buruzkoa; Estatu kideen Ministroen Batzordearen Rec (2003) 20 Gomendia, 2003ko irailaren 24koa, gazte-delinkuentziaren tratamendu-forma berriei buruzkoa, eta gazte-justiziaren paperari buruzkoa; Estatu kideen Ministroen Batzordearen Rec (2006) 2 Gomendia, Europako espetxe-arauei buruzkoa; eta Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen Irizpena (2006/c 110/13), gazte-delinkuentziaren prebentzioari buruzkoa, gazte-delinkuentziaren tratamendu moduei buruzkoa, eta adingabearen justiziak Europar Batasunean duen paperari buruzkoa. Era berean, garrantzia duen testu berri bat dago: Europako Legebiltzarraren 2007ko

ekainaren 21eko Ebazpena, gazte-delinkuentziari buruzkoa, eta emakumeen, familiaren eta gizartearen paperari buruzkoa.

Testu horiek guztiek zalantzarik gabe agerian uzten dute gazte-delinkuentziaren fenomenoagatiko arreta eta kezka azken hamarkadetan Europako gizartean hartu duen etengabeko garrantzia. Aipatutako azken irizpena nabarmendu behar da, eremu horretan erantzun eraginkorrak emateko beharra; horiek, gainera, hiru euskarri handitan oinarrituta eraiki beharko dira: prebentzioa, neurri zehatzaileak-hezitzaileak eta adingabe arau-hausleen integrazioa eta gizarteratzea.

*Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen 2006ko Irizpena, gazte-delinkuentziaren prebentzioari buruzkoa, gazte-delinkuentziaren tratamendu moduei buruzkoa, eta adingabearen justiziak Europar Batasunean duen paperari buruzkoa* oinarri nagusitzat hartuta, adierazitako nazioarteko araudiak, eta zehazki Nazio Batuen 1989ko Konbentzioak, Haurren Eskubideei buruzkoak, Europako gazte-justiziaren sistemetan etengabe gertatu diren aldaketen lekuko gisa jarduten du eta printzipioak honako hauek dira:

1. Prebentzioa errepresioaren aurretik; puntu honetan ezinbestekoa da gizarte-, lan-, ekonomia- eta hezkuntza-arloko asistentziarako programa egokiak egitea.
2. Justizia-sistema berriak ezartzea; gazte-delinkuentziaren fenomeno espezifikorako egina eta diseinatua, adingabeen kasuan gerta daitezkeen beste egoera batzuen tratamendua beste eremu batzuetarako utziz.
3. Estatuaren zigortzeko esku-hartzeen murrizketa eta prebentzio-estrategiak aldi berean aktibatzea honako eremu hauetan, esaterako: adingabeentzako asistentzia soziala, gizarte-politika, lan-merkatua, astialdiko eta aisialdiko eskaintzak, eta udal-politika, oro har.

Egia esan, gazte-delinkuentziaren aurka borrokatzeko, gizarteek prebentzio-politikak garatu behar dituzte, adingabe eta gazte guztiak gizarteratzeko helburuarekin, *bereziki familiaren, gizartearen, berdinen taldearen, eskolaren, lanbide-heziketaren edo lan-merkatuaren bitartez*; azken horri

dagokionez, laneratzea biztanle talde hau integratzeko eta gizarte-egonkortasuneko guneetara hurbiltzeko ezinbesteko bide gisa ikusteari buruzko adostasun handia dago.

Era horretan, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak azpimarratu duenez, gatazken konponketan eta aukera bideragarrien bilaketan protagonismo handiagoa ematen zaie gizarteari eta beste gizarte-talde batzuei.

4. Askatasuna kentzeko neurriak al bait gehien murriztea, soilik salbuespenezko kasuetara mugatuta.
5. Erreakzio penala malgutu eta dibertsifikatzea, askatasuna kentzeko neurrien ordeztu, adingabearen zirkunstantzia zehatzetara egokitzen diren neurrien bitartez, neurriaren betearazpenaren baldintzen, aurrerapenaren eta bilakaeraren arabera.
6. Prozesu penalean helduei aitortzen zaizkien eskubide eta berme berberak aplikatzea adingabe arau-hausleei (bidezko epaia, inpartziala eta ekitatiboa). Era horretan, adingabeak legearen aurrean duen egoera indartzen da.
7. Gazte-justiziaren sisteman parte hartzen duten gizarte-kontrolako organoen profesionalizazioa eta espezializazioa; horretarako, adingabeen justiziako administrazioan esku hartzen duten profesional eta agente guztiei (polizia, epaiak, fiskalak, abokatuak eta zehazpenak betearazten dituzten profesionalak) prestakuntza espezializatua eman beharko zaie.

**“Gazte-delinkuentziaren prebentzioari”** dagokionez, aipatzekoa da prebentziorik hoberena adingabeek jaiotzen direnetik 18 urte bete arte dituzten eskubideak betetzea dela, nazioarteko, estatuko, autonomiako eta tokiko araudiaren arabera; jarrera antisozialen prebentzio-ikuspegitik etorkizunera begira ez ezik, batez ere orainera begira, eskubideak betetzea helburu bat baita, nahiz eta jarrera irregularrak prebenitzea bigarren mailako ondorio izan. Horrela, bada, ekintza **adingabe guztientzat izango da**, inolaz ere ez pertsona batzuk hartuz delitu-jokabideak prebenitzeko jarduera berezien hartzaile gisa, zeren egiaztatuta baitago seinalatze hutsak lortu nahi diren kontrakoak diren ondorioak eragiten dituela.

Gazteen arau-hausteei erantzuna emateaz arduratzen diren instituzioek ez dute lehen mailako prebentzioan esku hartu behar, aldiz, biztanleria osoan lan egiten duten instituzioek egin beharko dute lan hori, eta lantzen ari garen adingabeen eremuari dagokionez, adierazi beharra dago instituzio nagusia eta garrantzitsuena eskolaren, familiaren eta erakunde mailako babesaren eremukoa dela, eta baita eremu horietan eragiteko eskumena duten instituzioak ere.

Izaera juridikoko nazioarteko jarraibide horietaz gain, Planaren ildo estrategikoak **hezkuntzako eta esku-hartze sozialeko paradigmetan** oinarritzen dira, eta horien baliozkotasuna eta sendotasuna ondo konparatu dira; paradigma horien helburua da nerabeak esku-hartzearen muinean kokatzea, esku-hartzeko ereduaren abiapuntu gisa. Premisa horretatik abiatuta, eredu ikuspegi desberdinetara irekia dago egoera bakoitzari aurre egiteko, eta, beraz, eredu eklektiko gisa definitzen da, elkarlotutako harremanen sistema batean integratutako pertsona gisa nerabearen portaeran eragiten duten harreman-faktoreen gaineko esku-hartze integrala oinarritzat duen eredu; adingabearen errealitatea osatzen duten harremanen sistemako zati batean gertatzen diren aldaketek sistema osoan eta sistema osatzen duten pertsonengan eragiten dute.

Printzipioak abiapuntu dinamiko gisa aurkezten dira, globalitaterako eta etorkizunean agertzen doazen egoera eta eskari berrietara zabalik, gazte-justiziaren eragileen jarduketak arautu behar dituzten printzipio gisa: epaiketak, fiskaltzak, talde psikosozialak, neurriak gauzatzeko erakunde publikoa eta 14 eta 18 urte bitarteko nerabeei arreta emateko beste erakunde batzuk, eta, gaur egun, 70.000 baino pixka bat gehiago direla kontuan hartuta.

## 6.1 Zigor-erantzukizuneko eredu: izaera zehatzaile-hezitzailea

Espainiako Estatuan 1991ko otsailaren 14ko Konstituzio Auzitegiaren epaiaren ondoren, adingabeen babeserako auzitegien jarduketa arautzen zuten zenbait lege-agindu "konstituzioaren aurkako" aitortu dituenaren ondoren, eta Nazio Batuen Batzar

Nagusien 1989ko azaroaren 20ko Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa indarrean sartu zenean (1990eko abenduaren 31ko BOE) hasi zen gazte-justiziaren kontratua funtsean aldatzen.

Aldaketa horrek herritar-agiriaren izaera hartu zuen, 5/2000 Lege Organikoa, Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzkoa, indarrean jarri zenean.

Legez ezarritako eta gaur egun indarrean dagoen eredia erantzukizunezko eredia da, hau da, botere judizialak, zigor-lege baten aplikazioaren ondorioz, zigorarloan legez kanpokoa den egitate bat egiteagatik arduradun gisa hartuko ditu 14 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako gazteak. Adingabeak askatasunez jokatzeko eta, beraz, beren ekintzez arduratzeko gaitasuna duten pertsona gisa onartzen dira. Onarpen horrek hezkuntza-erantzun baten katalizatzaile gisa dihardu, nerabea aldaketako hezkuntza-prozesuaren arduraduntzat hartzen du.

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoen Azalpenak "adingabe arau-hausleei aplikatzekoak diren neurrien eta prozeduraren izaera formalki penala eta materialki zehatzailea eta hezitzailea" deklaratu du.

Aintzat hartzen da "zehapen-xedapenaren izaera, adingabeko arau-hausleekiko benetako erantzukizun juridikoaren eskakizuna garatzen baitu, betiere Zigor Kodeak eta gainerako lege penal bereziek delitu edo hutsegite gisa tipifikaturiko ekintzak egiteari berariaz badagokio ere. Adingabe arau-hauslearentzako erreakzio juridikoa hezkuntzako esku-hartzea izatea nahi denez, intentsitate berezikoa betiere, helduen zigor-zuzenbidearen beste helburu batzuk espresuki baztertuz, hala nola ekintzaren eta zehapenaren edo arauaren hartzaileengan sorturiko larderiaren arteko heinekotasuna, adingabekoarentzako kalterakoa izan daitekeen guztia saihestu nahi da, biktimak edo beste partikular batzuk akzioa baliatzea, esaterako".

Hortaz, adingabeen zigor-zuzenbidea lehenik eta behin Zigor Zuzenbidea da, hau da, Kode Zibilak delitu edo falta gisa kalifikatutako egitate baten aurreko erantzun zehatzailea ezartzen duten arauen multzoa da. Hala ere, ez dugu nahi zehapenak soilik eduki ordainarazlea izatea, eta ez du eduki hori soilik izan behar, baizik eta

zehapenaren aplikazioak eta betearazpenak adingabearen interesa bete behar dute, inplikaturiko besteen gainera, eta helburu hezitzailea izan behar dute.

Hezkuntza-erantzun egokia emateko bilaketak orientazioa zehazten du neurriak gauzatzean. Orientazio hori gorabehera, argi izan behar dugu gazte-justiziak duen funtzioa ez dela adingabeak heztea edo babestea, ezin dugu "zigor-kodearen edo erreformaren bidez babestu", ezin dugu aprobetxatu zigor-zehapen baten ezarpena hezkuntza-, babes-, gizarteratze-lana egiteko, xede horietarako instantzia komunek egin ez dutelako.

Era berean, proportzionaltasun-printzipioa nabaria da, izan ere, adingabearekin hezkuntza esku-hartzea egiteko beharrak ezin du gainditu egindako egitatearen larritasunaren arabera adingabeari legez ezarri behar zaion eskubide-muga. 5/2000 Lege Organikoak, 7.3 artikuluan adingabearen bi egoera ezartzen ditu. Horiek ezin dute justifikatu egitatearen larritasunak ahalbidetzen duenaren gainera adingabearen eskubideak murrizten dituen neurri bat ezartzea; norberaren egoerek, familiakoek, gizarterakoek, prestakuntzakoek eta abarrek aukera ematen dute neurriaren izaera eta iraupena hezkuntza-interesera egokitu, finkatu eta modulatzeko, baina pertsonaren proportzionaltasunerako eskubide konstituzionala ezin da urratu.

## **6.2 Sistema berme-emailea: eskubide guztiak zorrotz baino zorrotzago errespetatzea.**

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoiaren Azalpenak, era berean, honako hau ezartzen du: "eskubide konstituzionalen eta adingabearen intereseko eskaera berezien errespetutik ondorioztatzen diren berme guztien esanbidezko errekonozimendua".

Eta "Konstituzio Auzitegiak aitortutako orientazioekin bat –aurretik aipatu dira–, uzi prozesalera egokitutako berme-sistema ezartzen da, zehapena inozentzia-presuntzioaren ondoren ezarriko dela ziurtatuz, baina prozesu honen buru den

adingabearen interesaren hezkuntza- eta balioespen-irizpideak oztopatu gabe, aldi berean gutxieneko esku-hartzearen printzipioaren erabilera malgua eginez".

Nazioarteko eta estatuko legediak adierazitakoaren arabera, adingabeen interesak beste edozeinen gainetik egon behar du. Operadore guztien papera – juridikoak zein bazkide hezitzaileak– da gazte-justiziarekin harremanetan daudenean babesten dieten eskubide eta betebeharrak guztiak zaintzeaz gain, nagusiki, normaltasunez betetzen direla bermatzea.

"Adingabe"aren izaerak ez du, inolaz ere, estatuaren aurrean pertsona gisa dauzkan eskubideen gutxitzerik edo murrizketarik justifikatzen –polizia-jarduketaren, fiskalaren, judizialaren edo neurriak gauzatzeko jarduketaren aurrean–. Aldiz, pertsona eta herritar gisa dagozkion eskubide guztien titularra da adingabea, eta, gainera, adingabea izateagatik berariaz dagozkion eskubideak ditu, estatuaren botere positiboaren aurrean edo beste arlo batzuetan eskumena duten instituzioen aurrean.

### 6.3 Erantzukizuna hartzea

Gazte-justiziaren esku-hartzea erantzukidetasun penalaren deklarazio eta errekonozimenduaren ondorioa da; arduradun egitea, hau da, norberaren ekintzen arduradun egitea, pertsonaren eraikuntzarako eta hazkunderako ezinbesteko baldintza gisa ezartzen da. Une oro jarri behar da neska edo mutila erantzukizun horren aurrean eta ahaleginak batu eskubidea/erantzukizuna binomioa lortzeko, bereizezin gisa.

Erantzukidetasuna norberaren gain hartzearen ezinbesteko elementua da adingabe arau-hauslea biktimaren bizipenean kokatzea, horien erantzukidetasuna benetan beren gain hartzeko atea irekitzea, gatazkaren konponketa baketsua sustatzea, eragindako kaltea zuzenean edo sinbolikoki konpontzea.

Biktimarekin adiskidetzea eta pertsona bati edo erkidegoari kalte bat eragin zaiola onartzea etengabeko erreferentzia izan behar dira eta neurrien betearazpen-prozesuan agertu behar dira.

Azken batean, daukatenei protagonismoa ematea da kontua, eta, sarritan, ebatsi egiten zaie.

Eskubideak eta betebeharrak kontzeptuak bereizezinak dira, txanpon baten bi aldean moduan; lan hezitzailea ezin da zentzu bakar batean desorekatu. Hezkuntza-zereginak eskubideen defentsa eta eskubideen betearazpena sustatu behar ditu.

#### 6.4 Behar den gutxieneko esku-hartzea

Zigor-arauen aplikazioaren funtsezko printzipioa da gutxieneko esku-hartzea, zeina Zigor Zuzenbidek eta zehapen penalek legez ezarritakoaren zuzeneko ondorioa den: erabilgarritasuna, beharra, gizarte-bizikidetzaren babesteko. Horren ondorioz, Zigor Zuzenbidearen baliabidea azken baliabide gisa erabili behar du legegileak; adingabearen portaera arau-hausleari eraginkortasun berarekin erantzuteko beste biderik ez dagoenean bakarrik aplikatu behar da zehapen penala; barneratzeko neurria eraginkortasun bereko beste biderik ez dagoenean aplikatu eta mantendu behar da bakarrik.

Beccariako Markesak 1764an adierazi zuenez, beharrezkoa gaingitzen duen edozein zigor tiranikoa da.

5/2000 Lege Organikoaren Arrazoiaren Azalpenak honako hau egitea ezartzen du: "gutxieneko esku-hartzearen irizpidea malgutasunez erabiltzea, hau da, honakoei gailentasuna ematea: prozedura ez zabaltzeko edo prozedurari uko egiteko aukerei, kalte-ordain aurreratuari edo arau-hauslearen eta biktimaren arteko adiskidetzeari, eta ezarritako neurria baldintzapean eteteari edo betetzen ari den bitartean neurri hori ordezkatzeari."

Berehalakotasunaren, gutxieneko esku-hartzearen, adingabearen interesaren, justizia berrezartzailearen printzipioak eta bestelako printzipioak aplikatzeak, zalantzarik gabe, nagusiki Fiskaltzaren esku geratzen diren esku-hartze ez zehatzaileen



aukera indartzea dakar, lantalde teknikoen laguntzarekin, eta nagusiki egilearen eta biktimaren arteko bitartekotza-programak edo hezkuntza-arloko jarduerak egitea.

Apustu horrek ikuspegi-aldaketa bat dakar operadore juridikoengan, magistratuengan, fiskalengan, abokatuengan eta akusazioengan, eta epaileen eta fiskalen laguntzarako lantalde teknikoetan lan egiten duten profesionalen kualifikazio berezia dakar.

Jauzi garrantzitsu hori osatu gabe geratuko da, neurrien betearazpenean parte hartzen dutenen inplikazio arduratsu eta profesional bat ez badago; biktimarekin adiskidetzak etengabeko erreferentzia izan behar du eta neurrien betearazpen-prozesu guztietan aurkitu behar da.

Idea horrek aurrez aurre talka egiten du eredu asistentzialisten eta/edo babesleen defendatzaileekin, hezkuntza esku-hartzearen “beharraren” babespean auzibidea gehiegizko moduan erabiltzen dutenak. Zailtasun sozialeko egoeran dauden nerabeen ongizatearen bermatzaile-papera justizia penalaria ematen bazaio, Adingabeen Tutoretzako Auzitegien 1948 legedia eragin zuten esku-hartze eredueta itzuliko gara.

5/2000 Lege Organikoak eta horren ondoz ondoko aldaketek argi eta garbi finkatzen dituzte “jokoaren arauak”. Horren esku-hartze mota eta gehieneko denbora-muga epaian adierazten da. Sareko lana eta sistema bakoitzaren –hezkuntzako, sanitarioa, soziala, judiziala, eta abar– betebeharrak beren gain hartzea izan behar dira nerabe horri bere testuinguruan erantzuna emango diotenak. Gazte-justizia arau-hauste penal bat egin duen adingabeari erantzun hezitzaile bat emateaz arduratu beharko da. Arau-hauste penal bat egin ez duten adingabeen –baita arau-haustea egin dutenak ere, zehazpenaren edukia gaindituta– hezkuntzaz, gizarteratzeaz, babes orokorraz eta haurtzaroaren eskubideak betetzeaz arduratu behar direnak instituzio eta agente eskudunak dira. Horrek argi eta garbi adierazten du normalizazio-printzipioa.

“Erreformarekin babestea”, aurrerapenerako elementu bat baino, nagusiki, babesik gabeko nerabeen kriminalizazioa eta gizarteak bere betebeharretan hutsegitea eragin dezake.

Adingabeen jurisdikzioko organo judizialak, erreformako erakunde publikoa, zein horien erakunde laguntzaileak ez dira haurren babes-sistemako osagaiak –babestu edo hezi beharreko pertsonaren borondatearen aurka babes edo hezkuntza derrigorrez ezartzeko azken babes-istantzia izango balira–; gazteen erantzukizun penalaren sistema osatzen dute, eta bertan adingabe bati egitate batzuk egitearen arduradun deklaratzeko zaio, zehapen bat ezartzen zaio eta, orain bai, esparru horretan, hezkuntza-arloko eta arreta integraleko esku-hartzea egiten da.

## 6.5 Goi-mailako interesa: banakako egokitzapena

5/2000 Lege Organikoak honako hau deklaratu du: “Adingabekoen Zuzenbide penalean adingabekoaren interesaren nagusitasuna lehenetsi behar dela, prozeduraren eta hartzen diren neurrien elementu erabakigarri gisa. Interes hau zientzia ez-juridikoen arloko profesional espezializatuen ekipoek irizpide teknikoak eta ez-formalistak erabiliz balioetsi behar dute, betiere neurrien aplikazioa honako printzipio garantista orokor eztaba daezinetara egokitzea alde batera utzi gabe: akusazio-printzipioa, defentsa-printzipioa edo errugabetasun-presuntzioaren printzipioa.”

Helduen jurisdikzioan ez bezala, 5/2000 Lege Organikoaren 7.3 artikulua, neurri eta horren iraupena hautatzeko, arau-haustearen larritasuna kontuan hartzea behartzen du, eta baita adingabearen zirkunstantzia pertsonalak eta hezkuntza-interesak ere. Era berean, betearazpenean zehar, etengabeko arreta eman behar zaio adingabe bakoitzaren interes indibidualari, eta arau-haustearen erantzun gisa adingabearen hezkuntza integralerako egokiena dena kontuan hartuta.

Erabakiak hartzerakoan interesak haztatu behar direnean, adingabearen interesa bestelako baldintzen gainetik egon behar duela ezartzen da araubidez.

Atal honetan, egiteko garrantzitsua dute talde tekniko-psikosozialen eta neurriak gauzatzeko eskumena duen erakunde publikoaren txostenek; horietan, adingabearen egoera pertsonalak, familiakoak, gizartekoak eta abar zehazten dira, erabakiak hartzeko une bakoitzean.

Beraz, gazte-neurriak aplikatu eta betearazteko bide bakarra neska eta mutil bakoitzaren errealitaterako erantzun egokiena bilatzea eta horren bilakaerari egokitzea da, gaztearen testuingurua kontuan hartuta.

## 6.6 Erkidegoaren ikuspegiaren normalizazioa

Adingabe batek neurri judizial bat bete behar izateak ez du urruntze sozialik edo erkidegoaren eta herritar garen aldetik aitortuta ditugun zerbitzuen urruntzerik ekarri behar. Horretarako, edozein neurri gauzatzean, neurriak gauzatzeko eskumena duen erakunde publikoaren eta hezkuntzako, osasuneko, etxebizitzako, enpleguko, prestakuntzako, gizarteratzeko, eta abarreko erakundeen artean, lankidetzat trinkoa eta eraginkorra behar da.

Azaldutakoa oinarri hartuta, posible denean, neurriak gauzatzeko herritar guztiei zuzendutako baliabide orokorrak izango dira. Baliabide bereziak sortzeak salbuespena ekarriko du.

Gizartean, gizartearekin eta gizartearentzat lan egitea gazte-justiziako lanaren oinarritzko euskarrietako bat da. Ezin dugu alde batera utzi pertsonen eta osatzen dituzten taldeen garapena pertsona horien inguruarekin lotuak daudela. Ikuspegi horretan oinarrituta, eta asmoa esku hartzen duen pertsonen garapena optimizatzea dela aintzat hartuta, gazte-justiziak pertsona horien ingurua eraldatzera bideratu behar ditu bere ahaleginak, bestela ezingo da inoiz eredu egokitzat jo.

Aukera-berdintasunen printzipiotik arrakastarako eskubidera igarotzeak lanean eta, argiago, defizit edo gabezia gehiagoko testuinguruetan dauden erreferentziak dauzkaten pertsonekin lanean jarraitu beharreko ildoak markatzen du.

Testuinguru horietan –gizarte-baliabide ahul gisa ere definituta–, sarritan egiaztatu den bezala, asmoak txikitu eta bitartekora egokitzeko joeratik aldendu behar gara. Ikuspegi "egokitzaile" horrekin, errealitatea eraldatu eta aberastu beharrean, desberdintasunak areagotu edo, kasurik onenean, mantendu egiten dira.

Gizartearen tolerantzia handitzean, alarma sozialak itzaltzean, partaidetza aktiboa eragitean, aniztasunari eta aniztasunaren berdintasunari baliozkotasuna ematean, arrakasta hobetzeko aukerak sortzean, eta abarretan lan egitea ezinbestekoa da solidaritatea eta gatazken konponketa baketsua lortzeko.

## 7. ILDO ESTRATEGIKOAK

Gazte Justiziako Laugarren Plan honen ildo estrategikoak zehazteko, aurreko planetan ezarritako ildoak begiratu behar diegu.

Horrela, II. Planak, aitzindaria izan zenez, bere ildoak banakako esku-hartzean eta erantzun globalak eta egokituak emateko beharrean, esku-hartzeen hezkuntza-izaeran, administrazio-eskumen bakarrean eta ikuspegia aurkeztutako eskariez haratago zabaltzeko beharrean oinarritzen zituen.

III. Planak, aurrekoaren ildo nagusiak mantentzea oinarri hartuta, jauzi "kualitatiboa" proposatzen zuen, erakunde eta sailen mailan zabala den eredu baterantz, optimizazioa eta kalitatea bilatzeko, ikerketa eta ezagutza lehenetsiz, kudeaketan lankidetzaren eredua (publikoa/pribatua) esploratuz, ordainsarien eredua azpimarratuz eta, azken batean, ikuspegia prebentziorantz zuzenduz.

Ibilbide hori kontuan hartuta, plan berri honen ildo estrategikoek azken planak –aztertu ondoren– bideratutako ibilbidetik jarraitzen dute. Hori dela eta, ildoetako batzuk jarraitzeko eta hobetzeko asmo argiarekin hartzen eta birformulatzen dira.

### 7.1 Prebentzioa

"Goiz esku hartzea berandu da" esaldiak garrantzi handiagoa hartzen du gazte-justiziaren eremuari gagozkionean. Hainbat irizpenek eta txostenek agerian utzi dute prebentzioaren alde egiten ez duten eta hura sustatzen ez duten sozietate antolatuek, azkenean, errepresioaren bidez esku hartu ohi dutela.

Gaur egungo krisi-etapa sakon honetan, gizarte-ongizateko, osasuneko, eta abarreko estandarrek eragina dute pertsona guztiengan eta, bereziki, adingabeetan. Bereziki familiaren bidez, erkidegoaren, berdinen taldearen, lanbidea gauzatzeko edo lan-merkatutarako gaikuntza-eskolaren bidez (adostasun handia dago laneratzea bide pribilegiatutzat hartzeko orduan arazoak/gatazka judizialak dituzten neska-mutilek

integratioko eta egonkortasuneko espazioetara jotzeko), adingabe guztiak sozializatzeko eta integratzeko prebentzio-politiken ahultasunak eragin negatiboa du eta izango du biztanle horiengan.

Aurreko planak deskribatzen zuen bezala, "prebentziorik onena da adingabeei jaiotzen direnetik 18 urte betetzen dituzten arte dagozkien eskubideak baliatzea...".

Adingabe guztiekin lan egiten duten erakundeak dira modurik erabakigarrienean eragingo dutenak adingabeengan eta uneren batean gazte-justiziarekin harremanetan jartzen direnen arazoetan. Eskolaren, familiaren, osasunaren, erakunde-babesaren eta abarren eremuan lan egiten dutenez ari gara.

Gazte-justizian lan egiten duten erakundeetatik sistema orokorretan esku hartzea lehenetsi beharko da eta salbuespen-egoeretan bakarrik jo esku-hartze espezializatura eta bereizira, betiere kontuan hartuta herritar guztientzako sistema komunetara "itzultzeko" helburua.

## 7.2 Sailartekotasuna eta erakundeen arteko lankidetzak

Aurreko ildoarekin jarraitu eta, bigarreanean, Euskadiko Gazte Justiziako operadore guztien egunerokotasunean sartzen da sakonago. Beste sail eta administrazio batzuekin lan egitean, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Justiziaren ADNean sakondu da.

Ildo horretan, plan honek Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailen jarduketak planteatzen ditu; horiek gabe eta horien inplikaziorik gabe, ezingo litzateke aurrera eramana. Osasuna, Hezkuntza, Segurtasuna, Gizarte Gaiak, Justizia... Plan honen zati eta euskarri dira.

Beste erakunde batzuen ekintza, besteak beste, foru-aldundienak eta udalenak, elementu nagusi dira plan honen jasangarritasunerako eta gazte-justiziaren eguneroko jarduerarako. Haurren eta nerabeen babesa, laguntza eta familiako esku-hartzea,

oinarrizko gizarte-zerbitzuak, larrialdikoak eta gizarte-larrialdietakoak, emakumea... egunero alternatibak eraikitzeke zerbitzu eta programetako batzuk dira.

### 7.3 Esku-hartzearen kalitatea: ebidentzian oinarritutako tratamendu-programak

Azken urteotan, adingabeentzako tratamendu-programen eraginkortasunari buruzko ebidentzia enpirikoa erakutsi duten zenbait azterketa egin dira. Horrela, erkidego zientifikoa berrerortzearen murrizketan arrakasta-tasarik onenak dauzkaten programak identifikatzen hasi da, Redondoren (2011) hitzetan, honako ezaugarriak dituztenak:

- Oinarri teoriko sendoa, jokabide antisozialaren azalpenaren eta prebentzioa erraztu ditzaketen eragile garrantzitsuen berri ematen duena. Oinarri sendoa da tratamenduaren programetarako ikaskuntza sozialaren teoria, jokabidearen modelatuaren, jokabidearen indartzearen, komunitate sozialean bertan subjektuekin lan egitearen eta zigor-estrategien saihestearen dimentsioetan.
- Programa egituratuak eta gidatuak.
- Subjektuak trebetasunetan eta ohitura prosozialetan trebatzen dituztenak.
- Pentsamenduaren, jokabideen eta balioen berregituraketan sustatzen dutenak.
- Aplikazio-denbora gehiago, intentsitate handiagoa eta integritate gehiago tratamenduaren osagai guztien administrazioan.
- Alderdi anitzeko programak, alegia, arrisku dinamikoko alderdietara –bai banakakoak, bai familiakoak eta sozialak– bideratutako teknikak eta osagaiak dituztenak.
- Subjektuen arrisku mailak ebaluatzen dituztenak eta, maila horien arabera, tratamenduen intentsitatea modulatzeko dutenak. Arriskurik handienak programa intentsiboagoak inplikatu behar ditu.

- Trebetasun pertsonal eta tekniko egokiak dituzten terapeutak dauzkatena, programaren aplikazioa modu berezian trebatuak izan direnak.
- Eskuliburu estandarizatuak dituztenak, lan terapeutikoa behar bezala bideratzeko.
- Ahalik eta osotasun gehienarekin aplikatuak; horrek eskatzen du erakunde-arduradunek tratamenduekin konprometitu agertzea.
- Erkidegoari orokortzeko estrategia bereziak sartzea, besteak beste, berrerortzeak prebenitzeko teknikak.

Ildo horretatik, azterketek erakusten dute berrerortzea prebenitzeko programa batzuek jardunbide egokiak partekatzen dituztela eta horiek gure ingurunean ezarri beharko liratekeela.

Planaren indarraldian, praktika horien onarpenean eta berrerortzeko jokabideen prebentzioan emaitzarik onenak ematen dituen prozesuaren onarpenean edo delituaren gaitzespenean sakondu beharko da. Testuinguru horretan, bitartekaritza-programek leku berezia dute eta informazioaren bilketa, prozesuen definizioa eta emaitzen ebaluazioaren diseinua hobetu beharko da.

#### 7.4 Erantzukizun publikoa eta kudeaketa-eredu mistoa

Aurretik aipatu den bezala, II. Plana gauzatzeko erantzukizun publikoa "Justizia-arloan eskumena duen sail"ean kokatzen zen. Lan berri honetan, hura ere ildo estrategikoa da, baina edukia moldatzen da.

Adingabeen epaitegiek ezarritako neurrien gauzatze "materiala" justizia-arloan eskuduna den Gobernu Sailarena da eta izaten jarraituko du, baina zeregina partekatu egingo da, garapenerako lankidetzeta gisa, beste sail batzuekin. Sailaren zeregin berria Planaren ekintzak Gobernuaren beraren beste instantzia batzuetan lasaitasunez eta egunero inplikatzeko lidergo-modua gauzatzearekin lotuta egongo da.

Kudeaketari dagokionez, jarraitzen da kudeaketa-eredu mistoaren alde egiten (titulartasun publikoko eta kudeaketa publikoko zerbitzuak eta titulartasun pribatuko eta kudeaketa pribatuko zerbitzuak), bai eta erantzukizun publikoaren alde ere.



Une hauetan, ereduaren finkapen maila kontuan hartuta, zerbitzu eta unitateen arteko lankidetzan sakonduko da, jarduketan sistematizazioa lortzeko.

## 8. HELBURU OROKORRAK

2014-2018 Gazte Justiziako IV. Planaren bidez lortu nahi diren helburuek aurreko planaren ebaluazioa dute abiapuntu, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-justiziaren printzipioak eta aurretik deskribatu diren ildo estrategikoak ere. Honako hauek dira:

- A. Ahalik eta denborarik laburrenean, Adingabeen Epaitegiek hartzen dituzten ebazpen judizialeatik, EAEko administrazio orokorraren eskumen diren guztien exekuzioa bermatzea.
- B. Gazte-justiziarekin harremanetan jartzen diren pertsona guztiei prozeduraren edozein fasetan kontzilio-erreparazio programetako sarbidea bermatzea.
- C. Gazte-justiziaren erantzunak pertsona bakoitzaren errealitatera egokitzea eta, horrela, gizarteratzea hobetzea.
- D. Adingabeek egindako arau-hausteak prebenitu eta murriztea.
- E. Gazte-justizian inplikaturik dauden eragileei prestakuntza espezializatua eta espezifiko eskaintzea.
- F. Programa, zerbitzu eta zentro aukera handia edukitzea, eskarietara egoki daitezkeenak, neurri zehatzailea-hezitzailea bete behar duten adingabe guztientzako bikaintasunean oinarritutako erantzuna bermatzen dutenak.
- G. Informazioa biltzeko sistema hobetzea, esku-hartze efizienterako eta eraginkorrerako aukera emango duena.

- H. Adingabeek egindako zigor-arloko arau-hausteen erakunde-erantzunaren kudeaketa ebaluatzea.
  
- I. Gazte-justiziaren neurriak bete dituzten pertsonetan atzera egiteko adierazleei buruz ikertzea.

## 9. HELBURUAK SAILEN ARABERA (helburuak, ekintzak, aldia eta adierazleak)

### 9.1 Segurtasun Saila

#### 9.1.1 Helburuak

9.1.1.1. Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren adingabe arau-hausleen atxiloketari, zaintzari, lekualdatzeari eta bestelako gaiei buruz indarrean dagoen legedian ezarritakoa betetzen dela bermatzea.

9.1.1.2. Adingabeak egin ditzaketen arau-hausteen prebentzio espezifikorako ekintzak egitea.

#### 9.1.2 Ekintzak, aldia eta adierazleak

<i>Ekintzak</i>	<i>Aldia</i>	<i>Adierazleak</i>
9.1.2.1 Justizia Zuzendaritzak eskatuta, askatasunaz gabetzeko neurriak betetzen ari diren adingabeen lekualdaketak egitea.	2014-2018	Lekualdaketen kopurua.
9.1.2.2 Gazte-justiziari buruzko prestakuntza espezifikoa ematea Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren oinarritzko eskalan sartzeko ikastaroetan. Era berean, adingabeekin lotura duten espezializazio-ikastaroetan.	2014-2018	Prestakuntza-jardueren kopurua eta prestatutako ikasleen kopurua.
9.1.2.3 Adingabeekin jarduketan urteko estatistika espezifikoa antolatzea.	2014-2018	Urteko estatistikak.
9.1.2.4 Gazte Justiziako Zerbitzuetako profesionalen mugikortasun seguruaren inguruko prestakuntza ematea.	2014-2016-2018	Egindako ikastaro-kopurua, prestatutako ikasleak eta emandako materialak.

9.1.2.5 Adingabeekin esku-hartzeak egitean jaso beharreko gutxieneko aldagaiak zehaztea.	2015	Aldagaien zerrenda.
9.1.2.6 Egun adingabeekin egiten den jardunaren eremuan indarrean dagoen polizia-instrukzioa berrikustea eta, hala badagokio, eguneratzea.	2015-2016	Instrukzio berriaren izapidea eta, hala badagokio, argitalpena balioztatze txostena.
9.1.2.7 Ertzain-etxe bakoitzean adingabeekin egiten diren jarduketetan berariaz erabiltzen diren baliabide materialei buruzko ebaluazioa egitea.	2015-2016	Ertzain-etxe bakoitzeko balioespen-txostena.

## 9.2 Osasun Saila

### 9.2.1 Helburuak

9.2.1.1. Neurri judizial bat betetzen duten adingabe guztiei osasun-arretarako sarrera bermatzea.

9.2.1.2. Prebentzioaren bidez esku hartzea osasunaren eremuan, batez ere osasun mentalaren, kontsumo arazotsuen eta sexu-harreman arriskutsuen arloan.

9.2.1.3 Osasunaren baliabide arruntak egokitzea neurri judizial bat betetzen ari diren eta osasun mentaleko arazoak, adikzioak eta gizarte-bazterkeriako egoerak bizi dituzten adingabeen arreta-premietara.

### 9.2.2. Ekintzak, aldia eta adierazleak

<i>Ekintzak</i>	<i>Aldia</i>	<i>Adierazleak</i>
9.2.2.1 Neurri judiziala betetzen ari diren adingabe guztiei Osasun Identifikazioko Txartela ematea.	2014-2018	Artatuak izan diren eta OTI duten pertsonen kopurua.

<p><b>9.2.2.2</b> Gazte-justiziako hezkuntza-zentroetan hartutako adingabe guztiei asistentzia sanitarioa bermatzea adingabea kokatua dagoen hurbileneko osasun-zentroan.</p>	2014-2018	Egindako asistentzien kopurua eta ukatutakoen kopurua.
<p><b>9.2.2.3</b> Beren neurria dela-eta, osasun-zentrorra joan ezin duten adingabeei asistentzia sanitarioa ahalbidetzea gazte-justiziako hezkuntza-zentroetan. Arreta hori etxez etxeko arreta balitz bezala emango da.</p>	2014-2018	Egindako asistentzien kopurua eta ukatutakoen kopurua.
<p><b>9.2.2.4</b> Egunero osasun-arreta ematea, astelehenetik ostiralera bitartean, 2 orduz, Zumarragako Osasun Zentroko mediku baten eskutik. Ordu berean, erizain bat joango da, 4 egun astean, Zumarragako Ibaiondo Hezkuntza Zentroaren bulegoetara.</p>	2014-2018	Asteko asistentzia-orduak eta egindako asistentziak.
<p><b>9.2.2.5</b> Aldian behin laguntza psikiatrikoa ematea Zumarragako Ibaiondo Hezkuntza Zentroaren bulegoetan.</p>	2014-2018	Asteko ordu-kopurua eta artatutako pertsona-kopurua.
<p><b>9.2.2.6</b> Haurren, gazteen eta helduen osasun mentaleko zentroetako laguntza hobetzea, zabaltzea eta neurri judiziala betetzen dutenen beharretara egokitzea.</p>	2014-2018	Lehen hitzordurako epeak, hitzorduen arteko epeak, terapia indibidualak, familiakoak edo taldekoak baliatzea.
<p><b>9.2.2.7</b> Osasunaren sustapenari eta drogaren kontsumoa eta beste adikzio batzuk prebenitzeari buruzko prestakuntza-programetarako sarbidea erraztea gazte-justiziako hezkuntza-arloko langileei.</p>	2014-2018	Prestakuntza-egitekoen kopurua eta prestatutako langileen kopurua.
<p><b>9.2.2.8</b> Gazte-justiziako zentro eta zerbitzuei osasunaren sustapenari eta drogaren kontsumoa eta beste adikzio batzuk prebenitzeari buruzko material espezifikoak ematea.</p>	2014-2018	Hornitutako materialak.

<p><b>9.2.2.9 Neurri judizial bat betetzen ari diren adingabe guztiei osasun-arreta emateko indarrean dagoen protokoloa berrikustea.</b></p>	2015-2016	Balioespen-txostena edo protokolo berria sinatzea.
